

# Jakin173

uztaila-abuztua  
2009



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen  
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*

.....



KULTURA SAILA

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*



## ZENBAKI HONETAN

**7**

### **GAI NAGUSIA** Liburu elektronikoa

**11** Liburua unibertso digitalean.  
Liburu elektronikoa

**JOAN MARI TORREALDAI**

**59** Liburu digitalen irakurgailuak eta  
haietarako argitalpenak

**ANDONI SAGARNA**

**85** *Iritzi bilketa*: Liburuaren munduko sektoreak  
aldaketaren aurrean

**ASKOREN ARTEAN**

## EGUNEN GURPILEAN

**113** **XABIER GANTZARAIN**  
**INAKI IRAZABALBEITIA**  
**LIONEL JOLY**  
**JOSU LARRINAGA**

© **Jakin**

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria

**Jakin**

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia  
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07  
jakin@jakingunea.com  
www.jakingunea.com

---

2009ko PREZIOAK

| BARRUAN         | HARPIDEDUNA | EZ HARPIDEDUNA |
|-----------------|-------------|----------------|
| Harpidetza      | 50 €        | —              |
| Ale arrunta     | 8,30 €      | 10,50 €        |
| EUROPAN         |             |                |
| Harpidetza      | 65 €        | —              |
| Ale arrunta     | 11 €        | 13,50 €        |
| EUROPATIK KANPO |             |                |
| Harpidetza      | 75 €        | —              |
| Ale arrunta     | 15 €        | 17,50 €        |

## SUMMARY



### THE ELECTRONIC BOOK

#### The book in the digital universe. The electronic book

Joan Mari Torrealdai, editor of *Jakin*, presents a general introduction to the main issues related to the emergence and establishment of the electronic book: definition of the concept, main features of the electronic book, compatibility between the printed book and the digital book, the extent to which it has become established, the impact it has caused in the different sectors related to books (publishers, distributors, book sellers), and the intense debate about copyright, etc. —in short, a «state of affairs» that gives us an overview of the subject. **JOAN MARI TORREALDAI**

#### The reading devices of digital books

Andoni Sagarna, an industrial engineer and doctor in Arts, focuses on an exposé of the technical and technological features of the electronic book: types of format of the most commonly used files, the most widespread reading devices available on the market, the main types of reading software and systems for protecting copyright (DRM). Lastly, he adds a long list of sales points of electronic books. **ANDONI SAGARNA**

## Opinions about the electronic book

The magazine has addressed different associations that represent the four main sectors involved in the world of books (publishing companies, bookshops, distributors and writers) in order to gather together their stances regarding those changes that will be implied in the emergence of the electronic book in the traditional models of production, distribution and sale of books. A specific questionnaire has been prepared for each sector involved in order to find out their opinion and assess the way in which the introduction of the electronic book will affect their professional activity and the future of books in general. **VARIOUS AUTHORS**

## NEWS TODAY

This section gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. Current affairs in the field of art, technoscience, literature, socio-linguistics and globalization will be analyzed this year. This section draws on various specialists: Xabier Gantzarain, Inaki Irazabalbeitia, Uxue Alberdi, Lionel Joly, and Josu Larrinaga. **VARIOUS AUTHORS**

## ZENBAKI HONETAN



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 173. zenbakia da eta 2009. urteko laugarrena.

Zenbaki honetako *Gai nagusia* sailean liburu elektronikoaren gaiari heldu diogu. Izan ere, kultura digitalaren uhina liburuaren esparruraino ere ari da iristen azkenaldian; liburu elektronikoak gure egungo gizartean zabaltzeko eta finkatzeko beharko duen abiaduraz ahobatezko iritzirik ez dagoen arren, badirudi aditu guztiak gauza batean ados daudela: liburu elektronikoaren agerpen eta hedapenak ez du atzera egingo. Jakina, berrikuntza teknologiko horrek eragin nabariak izango ditu liburuaren munduan, eta oro har, gizarte eta kulturaren eremu osoan. Aldaketa horien nondik norakoak argitzen laguntzera datorren zenbaki honetan, lehenik sarrera orokor eta gainbegiratzaila eskaini diogu gaiari bi artikuluren bitartez, eta, ondoren, liburugintzaren esparruan lan egiten duten sektore tradizionalen iritzia bildu dugu, gaiari buruzko ikuspuntu ezberdinak jasotze aldera.

Lehen artikuluan, beraz, Joan Mari Torrealdaik liburu elektronikoaren agerpen eta hedapenarekin lotutako auzi nagusiak aurkezten ditu, sarrera orokor gisako artikulua baten bitartez: kontzeptuaren definizioa, liburu elektronikoaren ezaugarri nagusiak, liburu inprimatuaren eta liburu digitalaren arteko bateragarritasuna, liburu elektronikoaren hedapen esparrua, liburugintzari atxikitako sektoreetan (editoreak, liburu dendak, banatzaileak) izaten ari den eragina, egile eskubideen inguruko eztabaida sutua... Azken buruan, gaiaren egoerari buruzko ikuspegi orokorra eskaintzen du artikulua.

Andoni Sagarnak, bigarren artikuluan, liburu elektronikoaren ezaugarri tekniko eta teknologikoen aurkezpenari heltzen dio: gehien erabiltzen diren formatu motak, merkatuan gehien zabaldua dauden irakurgailuak, liburu elektronikoak irakurtzeko software motak eta egile eskubideak ba-

besteko sistemak (DRM). Azkenik, liburu elektronikoen saltoki digital garrantzitsuenen zerranda luzea eransten dio artikuluari.

Sail honetako azken atalean, liburuaren munduan jarduten duten sektoreengana (argitaletxeak, liburu dendak, idazleak eta banatzaileak) jo dugu iritzi eske, liburu elektronikoaren agerpenak ekoizpen, banaketa eta salmenta eredu tradizionaletan ekarriko dituen aldaketei buruz egiten dituzten aurreikuspen eta balorazioak ezagutu nahian. Iritzia eskatzera sektore horiek ordezkatzten dituzten elkarteengana jo dugu (Euskal Editoreen Elkarte, Gremio de Editores de Euskadi - Euskadiko Editoreen Elkarte, Gipuzkoako Liburu Denden Elkarte, Euskal Idazleen Elkarte eta Cámara del Libro de Euskadi - Euskadiko Liburu Ganbara). Bestalde, sektore bakoitzak berezko ezaugarriak dituela aintzat hartuta, bakoitzari galdeketa egokitua prestatu diogu.

*Egunen gurgiplean* saileko idazlanak datoz azken orrialdeetan. Azken bi hilabeteotako berrien iruzkin labur eta biziak egin dituzte Xabier Gantzarainek Arterari buruzko atalean, Inaki Irazabalbeitiak Teknozientzian, Lionel Jolyk Soziolinguistikian eta Josu Larrinagak Glokalian. Bestalde, zenbaki honetan ez da Literatura atala osatu, baina aurrerantzean berriro ere agertuko da. ¶



# Liburu elektronikoa

- 11** Liburua unibertso digitalean. Liburu elektronikoa  
JOAN MARI TORREALDAI
- 59** Liburu digitalen irakurgailuak eta haietarako argitalpenak  
ANDONI SAGARNA
- 85** *Iritzi bilketa*: Liburuaren munduko sektoreak aldaketaren  
aurrean  
EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA  
GREMIO DE EDITORES DE EUSKADI - EUSKADIKO  
EDITOREEN ELKARTEA  
GIPUZKOAKO LIBURU DENDEN ELKARTEA  
EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA  
CAMARA DEL LIBRO DE EUSKADI - EUSKADIKO LIBURU  
GANBARA (BANAKETAZ)

# Liburua unibertso digitalean. Liburu elektronikoa

**JOAN MARI TORREALDAI**

Soziologian doktorea eta Kazetaritzan lizentziaduna

## Aitzin oharrak

Liburu elektronikoa, ebooka edo dena delakoa, modan dagoenik nekez ukatuko du inork.

Aldizkari eta egunkarietan gaiaren inguruan ehunka asko izenburu argitaratu dira. Ezaugarri jakin batekin gehienak: apokalipsia. Liburu elektronikoak liburu analogikoa edo paperezkoa hil egingo du. Noiz? Bihar, etzi edo etzidamu.

Kolore kulturalista piska bat eman nahi zaionean, Victor Hugoren «ceci tuera cela» («honek hura hilko du») erabili ohi da. Parisko Notre Dameko Claude Frolo artxidiakonoaren ahotan jartzen ditu Victor Hugok hitz enigmatikook: «Ceci tuera cela. Le livre va tuer l'édifice». Hitz horiek zer esan nahi duten? Profetikoak ote 1482an? Liburuak katedrala hilko duela, alegia, kultura berriak kultura zaharra desagerraraziko duela, Gutenberg Galaxiak Erdi Aroko kultura hilko zuela. Eta gaur egun berrinterpretatu egin ohi da, esanez Gutenberg Galaxia Marconi Galaxiak lurperatuko duela. Umberto Ekok, eta horrekin batera beste askok, konstatazioarekin erantzuten dute: «ceci n'a pas tué cela».

Testuinguru honetan gehiago jakin nahian hasi nintzen duela hilabete batzuk, hitz arrandiatsu, iragarpen katastrofiko horien azpian zer dagoen begiratzen. Hitz eta burrunba mediatikoaren atzetik zer dagoen, paperezko liburuaren zatarriskua zenbaterainokoa den jakin nahita.

Aldi berean esperientzia berri bat egitea erabaki nuen: liburu digitalaren berri unibertso digitalean bilatzea pentsatu nuen. Eta horretantxe aritu izan naiz, Internet bidez, paperezko liburuz osaturiko bibliografia zeharka bakarrik begiratu. (Egia esan, saio batzuk jo nituen Madrilen eta Parisen liburu inprimatuaren bidetik, baina zorte handirik gabe.) Froga egitea erabaki nuen orduan, bada. Digitalari buruz unibertso digitalean aritzeak ea zer eman zezakeen jakin nahi nuen eta.

Zer esan eskarmentuaz?

- Oihanean galduta ibili denaren sentsazioa izan dut. GPS gabe sartu nintzen oihanean. Sareen sareko txoko guztietan ibili naizelakoan nago, txosten sakonetan, artikuluetan, blogetako bat-bateko idatzietan, postit eta billetetan...
- Harribitxiak aurkitzen dira, bai, baina nekaturik bukatzen du batek hainbeste informazio eskas eta txar baitago, bat-batekoa, oso subjektiboa, informazio lapurtua, kamuflatua, mozorrotua eta, okerreana, matxuratua. Garia eta oloa bereizten lanak izan ditut. Informazioa banean iragazten denbora asko galdu dut.
- Aldenik alde gurutzatu nahi izan dut oihana, eta ez du merezi. Denbora asko galdu dut ibilaldi horretan, emaitzei begira behintzat. Azken batean, fidagarritasuna eskaintzen dizuten ehun lan horietan oinarritzen zara gero. Eta hori bera ez da gutxi!
- Entziklopedia erraldoi baten antza hartu diot webari. Hitz edo kontzeptu jakinaren bila joan behar duzu, Entziklopedia klasikoan bezala, bestela jai duzu. Gertatzen da depuratu gabeko entziklopedia dela, kalitate-kontrola edo editorearen iragazkia pasatu gabea.

- Neure burua esperimentatu dudanaren sentsazio gazi-go-  
zoa dut. Esperientzia egin izanaren poza dut, baina emai-  
tza ona bilatzerako agortu egiten zaizkizu indarrak. Au-  
rretik irizpide jakin bat ez baduzu, zureak egin du Inter-  
neten. Nabigatzen hasi baino lehen bide-orri bat behar  
duzu.
- Unibertso digitalak informazioa bilatzeko eta eskuratze-  
ko balio izan dit, baina landu eta tratatu ahal izateko pa-  
perera pasatu dut guztia, ehunka orrialde. Esperientzia  
hori egiten ere ez naizela bakarra pentsatu nahi dut. Le-  
kukotasun berdintsuak ikusi ditut Interneten, eta ez gu-  
txi, alegia, lan sakonerako paperera jotzen dela.

Lehen entregatzat hartzekoa da honako lan hau. Ez da lan heldua, umotua. Abiapuntuko geltokian nago, eta ez *terminusen*. Aurrerantzean sakondu, findu, biribildu nahiko nuke gaia, baina orain-oraingoz ezin izan dut, asti eta beta fal-  
tagatik. Irakurketen sistematizatzeko saio bat da, ez askoz gehiago. Ez dago, hortaz, behar bezainbat heldu edo zoritua fruitua, goitzko arbolatik kendua izan baita; baina unibertso digitalean hain maiz aipatzen den interaktibitate horri esker-  
rak, irakurlearen baitan zorituko da, irakurlearen baitan helduko.

Kostata bada ere bidea egin dudalakoan nago. Ibilian-ibili-  
lian topatu dut bidea. Bilaketa lanetan hasi nintzenean ebook  
edo liburu elektronikotik hasi nintzen. Baina ez dut hor bu-  
katu. Liburu elektronikoa definigaitza da izan, baina muga-  
tua aldi berean, lanean ikusiko dugunez. Liburu elektroni-  
kotik harago joan naiz edizio digitalera, unibertso digitalean  
idatziaren lekua, funtzioa eta etorkizuna aztertu guran.

Bilaketa hau 2009ko maiatzean amaitu dut. Behar-beha-  
rrezkoa da data ohartaraztea gai honetan teknologiak dara-  
man abiadura kontuan hartuta. Burutu dudanetik argitarat-  
zen den egunera ez dakit zenbat aurreratuko duen gaiari  
buruzko gogoetak, edo sektoreko aktore desberdinak nola  
posizionatuko diren, baina ziur naiz teknologikoki aldaketa  
ugari emango dela.

## Liburu elektronikoa: izena eta izana

### Izena...

Hizkuntzaz hizkuntza, izen jakin bat eta bakarra ez dago errealtate bera izendatzeko: *libro electrónico*, *libro digital*, *libro-e*, *e-libro*; *livre électronique*, *livre numérique*, *livrel*; eta *electronique book*, *e-book* edo *ebook*.

Eta euskaraz? Normalizatu gabe daukagula esango nuke. Izan ez denez, izenik ere ez. Kazetaritza alorrean agertu dira batzuk: liburu elektronikoa, e-liburua, liburu-e, liburu digitala. E-liburua proposatuko nuke nik.

Baina ahalegin guztien gainera seguruena geldituko dena bat da, izen ingelesa: ebook.

Saiotxoren bat ikusi dut, liburua izen neutro bihurtu eta euskarriaren arabera bereizketak egitea. Honela: liburu digitala e-liburua litzateke; eta paper euskarrian argitara emandakoa, liburu klasiko, p-liburua. Ez da gaizki baina arrakastaz ez naiz fio.

### Uztarketa zaila

Izenetik harago, «liburu elektroniko» izen sintagmak arazoak sortzen ditu.

Jean-Gabriel Ganasciak 1995ean idatzi zuen liburu elektroniko izen sintagma «aldi berean murriztaile eta desagokia» dela, eta geroztik beste askok gauza beretsuak errepikatu dituzte. Groupement d'Intérêt Scientifique (GIS) «Sciences de la Cognition» delakoaren zuzendari zen Ganascia.

Murriztailea dio, idatziaren garai jakin bateko euskarriari egiten diolako erreferentzia, eta liburuak historian zehar beselako euskarriak eta formak izan dituela kontuan hartu gabe.

Eta desagokia zergatik? Ezin direlako uztartu bi termino antitetikoak, liburua eta elektronikoa.

Bi terminook, izan ere, euskarriari dagozkio. Eta honetaz dagoen literatura nahikoa zabala da, ugaria. Izenaren dese-

gokitasuna azpimarratu nahi dutenek bien arteko diferentzia seinalatzen dute: liburua bere jatorrian zuhaitz azala da, objektu fisiko, materiala; elektronikoa, aldiz, immateriala. Uztarrezinak omen dira. Gehienek, hala ere, ebook edo dena delakoa, ikuspegi praktikotik begiratuta onartu egiten dute, kontraesanak kontraesan.

Bi adieratan ulertzen da liburu digitala, paperezko liburua ulertzen den bezala. Batetik, edukia; eta edukitzailea, bestetik. Testua eta euskarria, obra bera eta batez ere irakurgailua.

### ... eta izana

Liburu inprimatuak 500 urtetan bide luzea egin du, eta erreka harri biribila bezala dago, ibiliaren poderioz ongi landua.

Unescok 1964an emandako definizioak dio argitalpen inprimatua dela, ez aldizkakoa, eta gutxienez 49 orrialde dituen, azalak kontatu gabe.

Urtetan iraun du aldatu gabe definizio horrek. 90eko hamarkadan, ordea, papera ez den bestelako euskarrietan argitara ematen ziren produktuak jaso, inbentariatu eta ordenatzeko, definizioa zabaltzera jo zen. Eta liburuaren itzal berean sartu ziren euskarri elektronikoetan argitara ematen zirenak: CD, Video, DVD eta... Internet.

Liburu bezala identifikatzen dira produktu horiek, eta hala egiteko definizioa aldatu egin behar zen. Aurrerantzean, ez bakarrik inprimatua baizik eta irakurketarako balioko duen edozein euskarrikoa izan daiteke liburua. Hona, esaterako, 2007ko Liburu lege espainiarrean nola azaltzen den:

Obra científica, artística, literaria o de cualquier otra índole que constituye una publicación unitaria en uno o varios volúmenes y que puede aparecer impresa o en cualquier otro soporte susceptible de lectura.

Zehaztasun gutxiko definizioa da, egia esan. Orrialde edo karaktere kopururik ez da eskatzen hor. Eta orduan galdera:

zein da dokumentu jakin baten eta liburuaren arteko aldea?, edozein dokumentu ote da liburu? Batzuek hala diote, poema bat, idatziriko orrialde pare bat. Eta bestetik: nola identifikatu? Ebookean erraza da, paperezko liburuan bezala. Interneteko testu biguna denean, orduan ez da horren xamurra, ezta gutxiago ere.

Asko korapila daiteke identifikazioa. Eman dezagun 100.000 karaktereko testu bat Interneten. Testu hori hartu eta lau zatitan ematen badut lau gune diferentetan, zer dira, orduan, lau liburu? Nola jaso eta sailkatu behar da bibliografia lanetan?

Liburu elektronikoaren definizioak bide luzea du egiteko. Trantsizio aldi batean dago liburu mota hori. Ez bakarrik euskarri dagokienean, baizik eta baita definizioari berari dagokionean ere. Izena liburu klasikotik hartu du, baina urrunduz joango da, behin unibertso digitalean sartuta.

Definiziorik eza dela eta kezka ugari nabaritu dut bazterretan. Definizio saio bat ere irakurri dut:

*oeuvre complète vendue de façon perenne e individuel, refletant le livre papier quand il existe, à la quelle ne saurait être assimilé la vente des contenues ou l'usages dérivés de ces contenus.*

Definizio baten beharra zertan azpimarraturik ez dago. Edozein liburu aztertzailek behar du definizio operatibo bat, bibliotekariak nahitaezkoa du, eta editoreak ez gutxiago. Nola identifikatu, bestela? Nola saldu, bestela?

## Eboluzioa ala iraultza?

### Apokaliptikoak eta integratuak

Izen horrekin 60ko hamarkadaren erdian eman zuen argitara Umberto Eco izen bereko liburua, kulturaren aurrean hartu ohi ziren jarrerak aztertuz.

Bi posizio kontrajarri bereizten zituen. Apokaliptikoek, alde batetik kultura berrian balioak ikusteari uko egin ohi

zioten, teknologia berriak kondenatu nahi zituzten. Eta hori dena tonu trumoitsuan eta guztiz beltzean.

Integratuak berriz akritiko ziren berrikuntzekin, optimismoz eta begiak itxita bezala onartzen zuten zetorkeen berrikuntza. Horientzat bertutez betea da e-liburua. Eta haienztzat ez du arimarik, ez berotasunik.

E-liburuaz galdezka Interneten nabigatzen duenak jarrera berdinak aurkituko ditu gaiari buruz. Apokaliptikoez papezko liburuaren mehatxutzat hartzen dute e-liburua, uni-bertso digital guztia, eta liburuaren mistikan babesten dira. Integratuak, aldiz, teknologiaren miresle akritikoak dira, txalo eta txalo.

Ganascia ikerleak espresuki salatzen ditu gai honen inguruan irakurri dituen hainbat profetia, hiperbole, ukapen, edota entusiasmo, hizkuntz gehiegikeria, bazterketa edo onarpen liriko.

Egia da, baita ere, orain baino lehen, mende honen hasieran, jarrera horiek indar gehiago zutela. Gaur egun, urte batzuk pasatu ondoren, ikusi da igartzen zen haizete hura ez dela gertatu, bizikidetzaz gisako batean bizi direla liburuaren bi bertsioak, paperezkoa eta elektronikoa, eta jarrerak lasaitu egin dira. Beste hark zioen bezala, mundua ez da apokaliptiko eta integratuen artean banatzen. Horiei «despistatuak» erantsi behar zaizkie, gehienak seguru.

Konfrontazio horrek sasi hipotesi bat zeukan azpian, e-liburuak p-liburua osoki ordezkatu egingo zuela. Denbora pasatu ahala ikusi da 30 urtetik gora daramatela elkarrekin bizitzen eta batak bestea jate edo irenste hori ez dela gertatu. Batzuek uste zuten baino motelago doa e-liburuaren inplantazioa, eta besteek desiratzen zuten bezala liburuak irauin baino gehiago egin du, titulutan hazi ere bai.

Adituek gogorarazten dute media batek ez duela bestea nahitaez hiltzen, kontrara baizik, biziberritzeko balio deza-keela, sortu berriak premia berriei erantzuten badie be- hinentzat. Horrela gertatu omen zen kolorezko argazkiarekin, horrela irrati eta telebistarekin. Irrati eta telebistarena nabar-



mena da: telebista irratia ren heriotza gisa ikusi bazen ere, irratia k espazio berriak aurkitu ditu, autoetan, gazte geletan, lantokietan. Audientzietan goiza irratia rentzat da eta gaua telebista rentzat. Ez dakit liburuarekin horrelakorik gertatuko den, baina zergatik ez?

## Uste baino eboluzio mantsoagoa

Hogeigarren mende bukaeran begi-bistakoa da batzuek desio eta beste batzuek beldur zutena baino mantsoago doala ebookaren gizarte ezarpena. Pronostikoetan ematen zioten abiadarik ez du hartu oraindik, ez Europan eta ezta Ameriket an ere.

Bi eratako arrazoiak irakurri ditut hori esplikatzeko. Lehenengo, eta agian sakonena, da teknikoki edo teknologikoki posible den guztia ez dela besterik gabe sozial bihurtzen. Liburuaren historian aditua den Roger Chartier-ek ongi argudiatzen du hori: teknologia berriak premia bati erantzun behar dio eta gainera erresistentziak gainditu behar ditu, ohiturak, errituak, etc. Arrazoa ez da, batek baino gehiagok salatu duenaren aurka, e-liburuak ez badu azkarrago aurrera egin industria editorialaren jarrera atzerakoa edo editoreen egoskorkeria.

Iradokitze ra ematen duenez, errazegi irentsi dugu Microsoften diskurtsoa: teknikoki ahal bada sozialki ere ahal da, ohartu gabe Microsoftek interes unibertsalak eta enpresarialak nahasten dituela. Gainera, teknikoki posible dena besterik gabe gertatu egingo balitz, determinismo teknikoaz arituko ginatke.

Bestelako arrazoi mota bat ere badago, teknologikoa hain zuzen ere. Modan dauden irakurgailuak horixe dira, irakurgailu, irakurgailu besterik ez. Eta gaur egun jendea funtzio askotariko hardwaretara ohituta dago. Alegia, tresna berean edukitze ra telefono mugikorra, mezu bidaltzaile-hartzailea, PDA, musika erreproduzitze ra, GPS, argazki kamera, etab. Eta oraingo irakurgailuek ez dute hori eskaintzen. Diotenez,

liburuentzako iPod sortuko denean, orduan gertatuko da *tipping point* delakoa.

Ametsa badirudi ere, hurrengo Internet belaunaldiak muga horiek guztiak gaindituko omen ditu. Marie Lebert aztertzaile quebecarrari irakurri diot sarean konektatuta egongo garela guztiok edozein lekutan eta uneoro eta tresna mota guztiekin sare bakar eta nonahikoan.

Beste batek zioen bezala, zertarako irakurgailu batean liburuak bildu, den-denak «hodeian» eduki daitezkeenean?

Salmenta moteltasuna azaltzeko eman ditugun bi arrazoi mota horien ondoan badira beste batzuk ere, hala nola, edukiak erosteko zailtasunak, aparatu guztiz komentzigarririk ez egotea, edota gestio digitala aurrera eramateko zailtasun ugari izatea.

## Aldaketari data jarri diote

Aurreikuspen, iragarpen, pronostiko, apustu... denetarik dago e-liburuaren data esanguratsu eta iraultzaileari buruz.

Batzuei irakurriz ematen du «itzaltze analogikoaren» eskemarekin dabiltzala, halako batean *tipping point* hori gertatuko dela, eta hortik aurrera digitala bakarrik izango dela edizioa.

E-liburuaren urtea behin eta berriz izendatu da, oraingoz bederen arrakasta eskasarekin.

Kazeta bat baino gehiagotan agertu da aurtengo urte hau berau erabakigarri bailitzan, ebookak sekulako bultzada izango duela eta 2010etik aurrera e-liburuarena izango dela nagusigoa ziurtatuz. Hala izango al da? Nahikoa lan.

Badira 2007-2010 urteak prestaketa-urtetzat jo ohi dituztenak, eta leherketa 2010ean aurreikusten dutenak. Ez da asko falta jakin-mina asebetetzeko, baina ez dakit bada, ingurua ez dut nik oso bero ikusten.

Datak pixka bat luzatuz gero, errazago egin ohi dira iragarpenak, eta, kontrasterik ez dagoenez, aiseago onar daitezke. Badira horrelakoak ere. Adibidez, batzuentzat, mun-

duan idatzita dagoen guztia 2029an digitalizatua egongo omen da. Beste batzuk ez doaz horren urrun denboran: hamar urte barru idatziriko guztia euskarri informatikoan izango dugu, eta hamar urte beranduago hori guztiori gu denon eskura izango omen da. Ez dago gaizki. Hamar urte barru, irakurtzen dugunaren %95 izango omen da digitala, eta kontrakoa dioenari afaria jokatzeko prest agertu da Juan González de la Cámara, Papyre irakurgailua komertzializatzen duen Grammata enpresaren sortzailea.

Bada liburu digitalaren etorkizuna zehatz aurreikusi eta egutegian kokatzen duenik. Orain arteko urratsak banan-banan deskribatu ondoren aurreikusi daitezkeen gainerako urratsak honela markatuta ikusi ditut:

2009: e-liburua p-liburua baino gehiago salduko da kategoria askotan.

2012: lehia bortitza bi formatuen artean.

2015: bibliotekek beren liburu guztiak digitalizatuko dituzte.

2018: egunkari asko digitalean bakarrik argitaratuko dira.

2019: paperezko liburuak opari bezala salduko dira, bildumazaleentzat, irakurketa inprimatuaren zaleentzat, maila goreneko arte-liburu eta argazki-liburuak soilki aterako dira edizio analogikoan.

2020: titulu guztien %90 digitalean bakarrik argitaratuko da. Hiztegieta «liburu» izena aldatu eta «liburu digitala» agertuko da.

Bi belaunaldi barru gertatuko omen da liburu digitalaren iraultza.

Lau haizeetara zabaldu zen iaz Frankfurteko Liburu Azokan 30 herritako 1.000 profesionali egindako inkesta. 2013 omen da aldaketaren urtea eta 2018an nagusituko omen da negozio aldetik liburu elektronikoa. Horra editore eta profesiokeen iritzia, erositako prezioan nik saldua.

Iragarpenak iragarpen, abiada bizkortu ala moteldu egingo den ez dakit jakin, baina liburu digitala etxeko dugu eta ez da desagertuko, guztiz nagusitzen ez bada. Gaur-gaur-

koz, liburu digitalak ez du tronutik bota paperezko anaia zaharra. Ez da erraza jakiten noiz gerta daitekeen hori: oraingoz ez da usadioetan sartu, baina teknologia berriek daramaten abiadurarekin agian ez dugu luzaz itxaron behar.

## Elkarrekin nola moldatu

### Liburua: ia perfektua

Liburu elektronikozale askok besterik gabe gaindituztat jotzen dute paper liburua. Milaka erreferentzia aurki daitezke Interneten liburuaren heriotzaren inguruan hizkuntza desberdinetan, merke-merke.

Orain baino lehen hasita dago jendea iragarritako heriotza baten kronika idazten. Gogoan dut 60ko hamarkadan Marshall MacLuhane atera zuen zarata Gutenberg Galaxia eta Marconi Galaxiaren inguruan. Gutenberg presente gabeko iragana zen. Marconi, etorkizuna. MacLuhan komunikabideez ari zen, baina liburuari berdin zegokiokoen.

Beraz, liburu elektronikoa iritsi aurretik ere paper liburuaren hil kanpaiak adituak ditugu. Liburu digitalarekin, egia esan behar, suteak haizetarekin bezala, sekulako indarra hartu du liburuaren desagerpenaren (hipo)tesiak.

Paperezko liburua, ordea, ez dago defendatzaile faltan. Bibliofiloez gainera, erabiltzaileak atera ohi dira liburuaren defentsan. Sutsu, askotan. Blog batean ebookarekiko paperezkoak dituen 90 abantaila irakurri ditut bata bestearen ondoren zerrendatuta, bitxiak tartean, izenburu honen pean: «Le eBook c'est null!». Mahaia altxatzeko ere egokiagoa omen da paperezko liburua.

Paper liburuaren alde arrazoi emozionalak, argudio praktikoa nahiz teknikoak aipatu ohi dira.

Paperezko liburua ez omen da tresna mugatua, bere horretan perfektua baizik, esango du batek. Eta ordezkazina; irakurketa fisikoa ezin omen da ordezkatu birtualarekin, laztan bati ezin zaio parean jarri mezu elektronikoa, ez dira balioki-

de webcameko topaketa eta gorputza gorputzaren kontrakoa. Papera ez dela ordezkagarri dio Antonio Castro aztertzaileak:

El libro aporta emoción que nos llega a través del tacto. Una suavidad especial. Podemos tener en nuestro ordenador miles de libros en formatos PDF y no es lo mismo. Están sacando dispositivos electrónicos e-books que hacen la función sustitutiva de un libro. La gente los compra y los usa, pero les falta alma. Han intentado ofrecerlos con una cubierta de cuero, pero tampoco funciona. El papel no es sustituible.

Aurreko mendeko 90eko hamarkadan urte gutxitako bizi-tza ematen bazioten ere, liburuak iraun egiten du eta ez du ematen osasun txarra duenik. Hiltzekotan, dio adituren batek, ekoizpen larregiak jota hilko da, ez liburu digitalak ordezkatzuko duelako. Musikari edo zinemari gertatu zaiona ez omen zaio gertatuko paperezko liburuari, proportzio berean ez behintzat. Zergatik hori? Euskarri finkoa, urte askotan birribildu eta landua, mendeetako eredu, jende askoren leialtasuna irabazia duena baita euskarri gisa ere. Liburu analogikoari Bruno Patino aztertzaileak liburu digitalari egozten zaizkion bertute beretsuak egokitzen dizkio, honela:

movilidad, presencia de un motor de búsqueda en forma de índice, sistema en parte abierto (se puede escribir encima, doblar las páginas e incluso rasgarlas), autonomía perfecta (ninguna fuente de energía es necesaria), posibilidad de uso en todos los lugares, y carga instantánea y definitiva una vez realizado el acto de compra.

Funtzionala izatea, horra zer duen alde paper liburuak. Azken batean, liburu analogikoa edo digitala hautatzeko unean, praktikotasunak erabakiko du hein handi batean. Begien bistakoa da testu mota batzuetarako digitalak dakartzan abantailek leku gutxi uzten diotela paperari. Baina berdin ote da literaturaren kasuan, esaterako?

**Ebook: jaio orduko hil?**

E-liburuak ez duela luze iraungo, gainditua dagoela jada lehenbizikoz irakurri nuenean harridurak jo ninduen. Adie-

ra horretan ebook irakurgailua da, eta ez, beste zenbaitetan ulertzen denez, sareen sarearen bidez hedatzen diren zeinahi testu. Interneten, ebookaren kontrara, liburu elektronikoak ez du itxura indibidualizatua; ez du orrialde kopururik, esate baterako.

Ebook aparatu nomadaz ari gara orain, hortaz. Chartierren aburuz, irakurgailu tipo horretara bideratu nahi izan da liburu elektronikoa, ordenagailutik atera eta tresna nomada horretara. Asko aurreratu da, baina oraingoz ez da estandar onarturik lortu. Ez dago liburuaren iPod bat! Ez da lortu teknologia heldua. E-Ink-arekin aurrerapauso handia eman da, sekulakoa, baina kolorea eta pantaila malguak oraindik laborategietan daude, esaterako. Badirudi, gainera, paper digitalaren ikerketak orain asmatu ere ezin diren irtenbideak proposatuko dituela.

Ahalegin horrek emango al du fruitu nahikorik? Hau da, iraunkorra al da euskarri mota hori? Kritikarien artean bi joera bereiziko nituzke. Batzuentzat lehen urratsetan gaude, eta hobetuz joango da. Orain-oraingoz liburu analogikoaren antz eta jite berbera du, kalkoa bailitzan, eta hain zuzen ere alderdi horixe indartu nahi izan da. «Orrialdea» da bietan erreferentzia, adibidez, nahiz eta orrialdea ez den «naturala» edizio digitalean. Aduana teknologikoei diote guztiz aldatuko dela ebookaren oraingo itxura. Aduana pasatu eta eremu digitalean murgildu ostean, imajinatu ezin ditugun garapenak izan ditzakeela liburu mota horrek. Egunkarien kasua ematen da adibidetzat. Egunkari digitalak hasi zirenean paperezkoa kalkatzen saiatu ziren, eta emeki-emeki transformatuz joan da kazeten edizio digitala, harik eta nortasun propioa hartu duen arte, paperezko ediziotik urrun.

Beste batzuek eredu teknologikoan jartzen dute auzia, kritika. Ebookari unidimentsionaltasuna salatzen diote eta antzutua dagoela, gaitasunetan murriztua, digitalaren baliabide apalenak erabiltzen dituela, digitalaren propioenak direnei uko eginez. Irakurri bakarrik egiten du aparatu horrek, digitalaren gainerako funtzioak baztertuta.

Arrakasta soziala ere ez du horren erraza, teknologia berrien erabiltzailea ohituta baitago gaur egun gailu berean funtzio ugari izatera, hala nola, telefono mugikorra, mezuak bidali eta jaso egitera, Interneten nabigatzera, musika entzutera, etab. Honetan, baina, irakurri besterik ez. Funtzio horri erantzuten diote besteek ere. Liburu elektronikoak erabilera bakarrerako balio izatea, hots, irakurtzeko bakarrik balio duela, aditu batzuen iritzira, ustezko muga hori bera da bere indarra, gero eta gehiago funtzioetan desberdinduz garatuko baita teknologia. Diotenez, ebookaren teknologiaren abantailak ezingo dituzte lortu ordenagailuek. Paper elektronikoa ez da abantaila txikia, egia esan.

Dena den, tresnatik harago eraman liteke gogoeta. Aparatu perfektu bakarraren bila jo behar al da, gaitasun eta erabilgarritasun eta aniztasun handikoa; ala disko gogorrik gabeko eredu batera jo behar dugu? iPod ala *cloud computing*? Batzuentzat kontra daude, ni ez nago seguru.

Badirudi aurrerantzean hiru norabidetan garatuko direla pantailak: komunikazioari loturiko pantailak (telefonoak), erabilera profesionalari lotuak (ultraeramangarriak) eta aisia zein kulturakoak (iPhone, iPod, bideokontsolak).

Segun eta zein bide hartzen den, irakurgailu perfektua lortuko da edota bestela irakur-pantailen ugalketa etorriko da. Bigarren ereduaren aldekoek galdetzen dute ea zertarako behar dugun informazioa deskargatu, sarean kontsultatzea daukagunean. Zertarako nahi dugun ehunka liburu tresna barruan baldin eta biblioteca bera «hodeian» badaukagu, nahi dugunerako kontsultagai. *Cloud computing* delakoaren soluzio horrek ere badu Akilosen orpoa: dependentzia.

## Papera eta digitala, elkarrekin bizi?

Iraultza predikatzen dutenek oraingoz ez dute asmatu, hots, liburu digitalak ez du bere anaia zaharra hil. Eboluzioaren mugimendu lasaiagotik hurbilago dago errealitatea, itxura guztien arabera.

Iragarpen katastrofiko guztien gainetik bizikidetzaz bake-tsua daramate biek. Bakoitzak du bere gustuko eremua, di-rudienez. Digitalizazioak indar handia hartu du sektore batzuetan, eta hori ez da kasualitatez horrela. Zerikusia du digitalizazioaren ezaugarriekin. Abantaila handia ematen du digitalak informazioaren erabilpenean, edo bat-batean bilatzen den informazioa aurkitzean, edo erraz iraugitzen den informazioa eguneratzeko orduan.

Digitalaren ezaugarriak abantaila bete-beteak dira, esaterako, edizio profesionalean (zientziazkoa, teknikazkoa, juridikoa, medikoa...) edo erreferentziazko liburuetan (hiztegiak, entziklopediak), edo liburu praktikoetan (bidaia gidak, sukalde liburuak...). Liburu tipo horietan digitalizazioak bide luzea du jada egina, bere ezaugarri propioei jarraituz: indexazioa, edukien zatiketa, etengabeko eguneratzea.

Beste liburu mota batzuetan, aldiz, ematen du digitalak ez duela horrenbesteko indarrik, hala nola liburu ilustratuetan, aktualitatezko saiakeretan, haur eta gazteentzako liburuetan eta literaturan oro har. Adostasun moduko bat badago uste duena literaturak luzaroan jarraituko duela paperean.

Egia izan liteke digitalaren ezaugarriek ez dutela halako eraginik nobela bat irakurtzerakoan. Eman dezagun horrela dela. Baina teknologia digitalak literatura berritzeko aukerak ematen ditu, ez bat eta ez bi bakarrik. Eta idazteko orduan ere ez? Autorearen eta irakurlearen arteko distantzia janda geldi daiteke, aldi bereko idazketa egin daiteke. Badira saio eta esperientzia batzuk indarrean. Adituek diotenez, teknologia digitalak genero berriak sortuko omen ditu, hipermedia eskritura, eleberrri multimedia, hipernobela, posta-nobela, etc.

Badu beste abantaila bat, liburu mota batzuetan interesgarrri suerta dezakeena: poemak ahots goran autoreak berak edo deklamatzailer profesional batek irakur ditzake.

Paperean eta digitalaren artean bide dagoen oreka hori noiz puskatuko den ez dakit, ez du zertan irau horrela, baina badirudi joerak gaur-gaurkoz bide beretik jarraituko dutela: zientzia digitalean argitaratuko da; eta literatura paperean.



## Unibertso digitala

### Doakotasuna

Unibertso digitalaren aipamen hutsak doakotasuna dakarkigu burura. Sinonimo dirudite unibertso digitalak eta doakotasunak. Kostu gabeko unibertsoa dirudi, immateria- la, diru kontuak hortik at baileuden. Doan ezagutu dugu beti, eta badirudi halaxe izan behar duela betiko.

Pertzepzio hori, zertan esanik ez da, traba gertatzen zaio liburu digitalaren planteamendu profesionalari. Sakrilegioa dirudi kobratzeak. Gustu txarreko da kobratzea aipatze hutsa. Baina sektorea mesfidati dago, eszeptiko, ez baitu ikusten nola aurrera egin eta iraun doaneko sistemarekin. Egileari ordaintzen ez bazaio, autoreak idazteari uko egingo dio, gaur ez bada bihar. Ezetz, diote beste batzuek, autoreak ez direla hortik bizi eta idazten jarraituko dutela, orain arteko huskeria kobratu gabe ere. Baliteke. Baina autoreari ordaintzen zaiona huskeria izan ala ez, editoreak frogatu duena da inork ez diola uko egiten autore eskubideetan dago- kionari. Interneten sartzan denean bai?

Nola esplikatzan da doakotasuna Interneten?

Doakotasuna Interneten sorrerako marka da, bai, baina salmenta-estrategia ere bai, biak. Doakotasunaren kultura hori orain arteko erabilerak berak esplika dezake: jatorrian, komunikabide hori sortu zenean, irabazizko helbururik gabe sortu baitzen, komunitate zientifikoak bere ikerketa lanak trukatzeko. Gerora, hazi denean ere, domeinu publiko- ko edukiekin elikatu da asko, batez ere erakunde publikoen eraginez, eta zertan esanik ez da horiek ez dauzkatela eragi- le pribatuen joko arau berak. Galaxia bereko telebista eta irratia ere doan izateak indartu egin du doakotasunaren aldeko korronea eta pertzepzioa.

Gainera, operadoreak Internetez baliatzen hasi direnean ere doakotasuna errespetatuz hasi dira. Baina ez da gauza bera. Horien kasuan merkatu estrategia da, hots, produktua doan emanez ahalik eta kontsumitzaile gehienengana iristea

dute helburu, horren arabera bermatzen baitute finantzia-zioa hirugarren baten bidez, eragile publizitarioaren bidez. Audientziaren arabera kobratzen baitu eragileak.

Eredu horrek ez du balio edizioaren sektorerako.

Gauza bera egiteko eskatzen diote editoreari, kontuan hartu gabe liburuak ez duela aski masa kritikorik publizitate-egilearen interesa bereganatzeko. Tamaina kontua da. Googlek bai, Googlek egin dezake planteamendu hori eta dirutza irabazi, baina gure argitaletxe bati webgunea ordaintzeko ere ez lioke emango.

Ohar gisa erantsiko dut produktu kulturalak doan ematea ez zaidala sanoa iruditzen. Debaluatu egiten du kultura. Jankintzara doaneko sarrera behar dugula, diote. Bat nentorke beste premia batzuetan ere filosofia bera aplikatuko balitz, oinarrizkoagoak diren premietan, bestalde, hala nola, jana, etxebizitza, etab.

Unibertso digitaletik atera gabe ohartarazi behar da, gainera, edukiak bakarrik daudela doan, ez makinak, tresnak, eta ez horien erabilera: telefonoa, ordenagailua, irakurgailua, indar elektrikoa.

Doakotasunaren planteoan gutako bakoitzak duen nortasun bikoitza ez nuke azterketatik aparte utziko: erabiltzaile garenean doan jaso nahi genuke; eta egile garenean lanaren saria jaso nahi dugu. Eduard Hovy-k bere sentimendu bikoitza aitortzen du. University of Southern California-ko Information Sciences Institute-ko Natural Language Group ikertaldearen zuzendaria da Hovy. Unibertsitarioa denez, informazio guztietara sarrera librearen alde dago. *Start-up* enpresa txiki bateko jabeakidea izanik, jakin badaki informazioaren bilteak eta tratamenduak zer lan duen eta zerbitzu hori ordainarazi beharra ikusten du. Aitorpenaren meritua du Hovyk.

## Liburu digitalaren ezaugarriak eta abantailak

Liburu tradizional eta berriaren arteko harremana talka gisa azaldu denetan, liburu digitalaren aldekoek abantailak az-

pimarratzen dituzte. Abantaila horiek ez dira kuantitatiboki bakarrik inportanteak. Kualitatiboki ere bai. Nonahi agertzen dira Interneten eta nahikoa begi-bistakoak edo agerikoak dira bestela ere. Zerrenda luzeak aurki ditzake nahi duenak. Gaitasun horiek, eta hori da hemen azpimarratu nahi dudana, ez dira kanpotik erantsiak, baizik eta izaera digitalari berari atxikiak. Beste modura esan, teknologia berrien ezaugarriei dagozkie zuzen-zuzenean gaitasun berriak.

Luzamendutan ibili gabe, Joaquín M<sup>a</sup> Aguirre aztertzailearen eskutik agertu nahi ditut ezaugarri eta aldi berean abantaila diren digitalaren ardatz nagusi batzuk, zehazki: birtualtasuna, autonomia, higikortasuna, bikoizgarritasuna, irekiera, interaktibotasuna...:

La información digital —no podemos hablar de un solo tipo de soportes— posee las siguientes características:

- *virtualidad*: la información en su nivel energético es ilegible directamente, necesita de unos procesos de decodificación y unos instrumentos (aparatos y programas informáticos) que nos ofrecen una representación virtual.
- *autonomía*: necesita de instrumentos complementarios que permitan su decodificación y lectura (dispositivos de lectura, de salida, etc.).
- *movilidad*: la movilidad de la información digital puede ser entendida:
  1. Como transferencia energética entre diferentes puntos de una red. En este caso, su movilidad es total y su velocidad es casi instantánea.
  2. Como su trasferencia de unos soportes a otros sin sufrir modificaciones. Obtenemos el mismo resultado con la información a través de una red, de un CD-ROM, de un disco magnético o de un magneto-óptico. [...]
  3. Si la movilidad se refiere al instrumento de lectura (ordenador), la movilidad es menor y sus condicionamientos mayores al depender de otro tipo de circunstancias (redes telefónicas, dispositivos de transmisión, etc.), si bien la movilidad va aumentando con la reducción de los elementos intregrados en el proceso.
  4. Si entendemos la movilidad en términos físicos (volumen), el sistema digital permite el movimiento de grandes cantidades de información en espacios mucho menores; es decir, un cd-rom puede contener cientos de obras digitalizadas.

- *duplicabilidad*: un factor esencial a lo largo de la historia de los soportes comunicativos ha sido su capacidad de duplicación o copia. [...] Podemos establecer dos circunstancias muy diferentes:
  1. *duplicación de soportes*: cuando la información digitalizada se encuentra en un soporte, éste puede ser duplicado, es decir, se duplica la información y el soporte (copiar un disquete o un cd-rom). [...]
  2. *duplicación de la información*: [...] Esta es una de las grandes ventajas culturales de las redes de comunicación: permiten, sin necesidad de duplicaciones de soportes, a millones de personas acceder a una misma información. Es la información la que se mueve y no los soportes.
- *apertura de la información*: la información digital puede ser revisada o renovada sobre el mismo soporte. Un hipertexto está siempre abierto a nuevos enlaces con otros puntos de información conectados directamente. [...]
- *estructura abierta*: frente a la estructura cerrada o acabada de la obra impresa, la obra digital es reconfigurable o abierta. Este es un importante elemento de debate en la actualidad y que afecta a aspectos como la autoría. [...]
- *modificación de los órdenes de la información*: una de las características más acusadas del formato hipertextual es la ruptura de la secuencialidad de la información. Este tipo de sistemas permiten una nueva forma de relación múltiple entre los diferentes textos o bloques dentro de un mismo texto. [...]
- *interactividad*: el fenómeno de la interactividad es uno de los grandes logros del sistema de información digitalizada. La interactividad supone un *diálogo* entre el lector y el texto, que se modifica en función de los elementos que se le solicitan en cada momento. [...]

## Digitalak hazian du kultur iraultza

Unibertso digitalak dakarren aldaketa ez da axalekoa. Sankontasunaren maila eztabaida badaiteke ere, iraultza den ala ez, kuantitatiboa den ala kualitatiboa, urtegiar ur asko da goela aho batez onartzen dute denek.

Unibertso digitalak jauzia egiten du testutik hipertestura. Hipertestuak linealtasuna eta ordena hautsi edo aldatu egiten ditu, arrazoiketaren kateatze linealean oinarritzen den

tradizio intelektual klasikoa hautsi egiten du. Unibertsoa ulertzeko modu desberdina da, pentsaera forma berria, irudiaren eta zappingaren alaba. Idazketa bezala irakurketa aldatu egiten du teknologia hipertestualak.

Irakurketa sakonaren heriotza, eta horrekin batera pentsaera sakonarena omen dakar Internetek. Ez dakit lehen baino gehiago edo gutxiago irakurtzen den, baina diferente egiten dela hori bai: testu laburrak, esaldi motzak, dena segidan ez baina saltoka, saguak gidatzen du batetik bestera.

Aldaketa kulturala teknologikoa baino ere handiago omen da, errotikoa, eta ez arrisku gabea. Arriskua da, irakurketaren metamorfosia medio, agian inteligentzia deitzen duguna argaldu egiten dela eta gureak inteligentzia artifizialaren geroz eta antz handiagoa duela.

Orain baino lehen ere aldaketak izan direla gogoratzea komeniko litzateke.

Jarrera apokaliptikoen artean dago Sokratesena. Sokratesek ez zion ongiatorri abegitsurik egin eskritura alfabetikoari, era horretara informazioa gorde eta transmititzea mehatxu garbia baitzen grekoen memoria kulturala gordetzeko moduentzat, euskarri berri horren ardatz ez baitziren ez memoria eta ez ahozko diskurtsoa.

Inprimategiaren sorrera ere istilutsua izan zen. Monjeek gaizki hartu zuten inprimategiaren sartzeara. Halakoak luma birjintzat zeukan eta inprimategia emagaldutzat.

Orduan bezalaxe orain, aldaketak ez dira soilki teknologikoak, kulturalak ere bai baitira.

Teknologia digitala zerekin alderatu liteke? Konparazio desberdinak ikusi ditugu: eskrituraren sorreraren pareko dela diote batzuek; inprimategiaren sorrerarekin alderatzen dute beste hainbatek, gehienek agian. Hirugarren konparaketa batek erakarri du nire arreta, agian sekula pentsatu gabe nuelako. Gaur testutik hipertestura dagoen jauziaren antza omen du erroilo edo biribilkitik kodex edo liburura egin zen bideak. Biribilkian egin zitekeen irakurketa lineala zen ezinbestez; kodexean, ostera, selektiboa. Kodexak, izan ere,

biribilkiaren ondoan abantaila handiak zituen: gaitasunean, erosotasunean, erabilgarritasunean, gainera merkeagoa zen eta baten partez bi orrialdeetan idazten zen. Zerikusi gutxi biribilkatu-desbiribilkatu behar den teknologiarekin.

Ez al dira horiek berak liburu digitalaren alde aldarrikatzen diren abantailak?

## Digitalaren inplantazio eremuak

Liburu digitala gero eta gehiago bizi da liburu analogikoaren eremu beretan. Ez du garapen homogeneoa izan alor guztietan, hori ez, baina itxura guztien arabera paperezko liburuaren esparru berak okupatuko ditu. Indar handi edo txikixeagoarekin, baina badira biblioteka digitalak, badira argitaletxe digitalak eta badira liburu denda digitalak.

Hitz erdi bat bakoitzaz.

## Biblioteka

Alexandriako liburutegiaren bokazio unibertsala ez zen bukatu hura desegin zen unean. Orduan amets utopikoa zen, baina, orain, aro digitalean, egingarri dela sinetsiz egitasmo bat baino gehiago abiatu dira. Etorkizunean biblioteka planetarioa gauzaturiko ametsa izan daiteke.

Aro modernoan aurrena Project Gutenberg izan zen, 1971n Michael Hart-ek erabaki zuenean domeinu publikoko obra literarioak doan zabalduko zituela digitalki. Irrealizatzen joa izan bazen ere hasieran, aitortu behar zaio egin duen bidea: 2006an 20.000 titulutik gora zuen, eta egunero milaka deskarga ditu. Aurreikusita daukate 2015ean milioi bat liburu izango dutela katalogoan eta ehun hizkuntza desberdinetara automatikoki konbertitzea egikarituko duela.

Biblioteka planetarioaren bila doaz beste asko ere. Horien artean aipatuena, eztabaidatuena, indartsuena, Google da. 2004an hasi zen Google Printekin, editoreekin izandako istiluak medio hurrengo urtean itxi bazuen ere. Baina 2006an

indar berriz abiatu zen Google Books Search bezala. Autore eskubidez kanpoko liburuen testu osoa kontsulta daiteke pantailan, eta kopiatu eta inprimatu ere egin daiteke. Aurreko aldiko istiluak ez dira isildu, ordea, Googlek jarraitu egiten baitu copyright daukaten liburuak ere eskaneatzen webgunean zatiak aurkezteko eskubidea daukala eta. Euskal liburuak ere tartean dira Renoko liburutegia digitalizatu zutenetik edo. Oraintxe bertan, baimenik gabe eskaneatu dituen liburuen indemnizazioaren ordainketa itundu behar izan du AEBetako autore eskubideen elkarte batekin. Eta Espainiako Estatu mailako CEDROk (Centro Español de Derechos Reprográficos) bere esku du 8.000 autore eta 600 argitaletxeren enkargua Googlerekin autore eskubideen ordaina negoziatzeko. Irabaztekotan, ordea, ia erdia abokatuak jango dute, ez autore edo editoreek.

Aipaturiko horiek ez dira liburutegi bakarrak. Beste asko ere badaude eremu berean lanean. Microsoftek ere berea du: Live Search Books izenekoa, 2006an hasia. Berea du baita ere Yahoook.

Herrialdeka ere badira: Frantzia Gallica, Espainian Miguel de Cervantes, Europar Batasuna, estatubatuarren hegemonia gainera kentzeko asmoz eratua.

Helburu mugatuagoekin eta monografikoekin sortu dira beste hainbat. Eta ez da ahaztekoa biblioteka tradizionalak, zeinek gehiago zeinek gutxiago, badutela liburu birtualaren eremua.

### **Argitaletxea**

Mende zaharraren bukaera aldera, argitaletxe tradizional batzuk lerro digitala lantzen hasi ziren, inprimatuaz gainera. Aldi berean, argitaletxe guztiz digitalak sortzen dira, edizio elektronikoaren abantailez baliatuz. Eremu jakin eta mugatuetan abiatzen dira aurrenekoak, arlo ez komertzialetan. Edizio komertzialean aurrenak Frantzia, nahiz eta gerora biak desagertu, CyLibris (1996) eta 00h00 argitaletxeak dira.

Liburu literarioa barik zientziaren arloko liburugintza lan-tzen dutenek egonkortasun handiagoa izan dute agian. Iker-kuntzako eta unibertsitateko editore zenbaitek webgunea hobesten dute beren artikulua eta tituluen zabalkunderako. Aitzindariak izan dira NEF (Net des études françaises), PloS (Public Library of Science) edo MIT (Massachusetts Institute of Technology).

Azken urteotan indarra hartuz doa beste fenomeno editorial bat: plataformak, erdia teknologia, erdia editoriala.

Badira modu alternatiboan aurkezten direnak, sistema editorial zaharkituari erreleboa ematera. Helburuetan ere diferente: komertzialtasunaren aurretik, literatura eta autorearen obra ezagutzera ematea lehenesten dituzte.

Badira soilki autoedizioan kokatzen direnak, zerbitzu editorialak-edo eskainiz.

Eta badira, azkenik, aliantza bidez editoriala eta teknologia berria uztartu nahi dituztenak. Edizio digitaleko plataforma horiek zerbitzu guztiak bete ditzakete, behar izanez gero: editorial peto-petoak dira, zerbitzu editorialak eskaintzen dituzte, banaketa eta salmenta eta, behar denean, inprimaketa zerbitzua ere eskaintzen dute.

## **Liburu denda**

Nork ez du entzun inoiz Amazon.com liburu denda? Ez da liburu denda birtual bakarra, noski, baina bai ezagunena, eta handiena. Eta baita historikoki aurrena ere, oker ez bango.

Ukaezina da Amazonen arrakasta. Liburuez gainera, osasun produktuak, jostailuak, elektrotresnak, sukaldeko tresnak, etab. saltzen ditu, nahiz eta negozioaren erdia eta gehiago liburuari zor dion.

Amazonen arrakasta txalo beroz goratzen dute batzuek. Ez da, horratik, denen gustuko. Ez bakarrik langileen lan-baldintza txarreatatik, baizik eta bere negozio ereduagatik ere bai: liburu denda makinari lotzen dio Amazonek, Kindle



irakurgailuari, eta horren bidez merkatu gatibua sortzea du helburu.

Zazpi herrialde handitan lan egiten du (AEB, Erresuma Batua, Frantzia, Alemania, Japonia, Kanada eta Txina), eta hamargarren urteurrenean, 2005ean, 9.000 langile zituen eta 41 milioi bezero aktibo.

Amazon ez denik ere badago, hala nola, Internet Bookshop (iBS, 1997) Erresuma Batuan, edo Frantzian Alapage (1996), Chapitre.com. Txikiago batzuk ere sortu ziren garai bertsean, baina itxi egin behar izan dute, Lebertek dioenez, gehiegi baitziren zegoen eskarirako. Horien artean BOL.fr esate baterako, Berterlsmann eta Vivendi handi-mandiek sortua izanik ere.

Handi-mandien babesik gabe sortu zen 2000. urtean Numilog frantsesa, oraintsu Hachettek irentsi duena. Hiru jardun-eremu ditu Numilogek: liburu denda sarean, fabrikazio estudioa, eta banaketa. Liburuak saltzen ditu, eta liburu-kapitulua ere bai. Digitalizatu ere askotan berak egin ohi du, eta aldi berean irakurgailu desberdinetarako moldatu. Banatzeko ahaleginean gune tematikoetan eta elkarte edo komunitateetan zabaltzen du liburuaren berri. Bibliotekarako zerbitzua ere badu. Numilog da gaur liburu digitalen denda frankofono handiena. Arrakasta handia bereganatu du, ez da dudarik. Eredu interesgarria dirudi.

Interesgarria dirudi, halaber, Iruñeko Leer-e plataforma. Itxura batean ebook irakurgailuen saltzaile hutsa da, baina bere bokazioa argitaletxe digital modernoak eman ditzakeen zerbitzu guztiak eskaintzekoa da: edizioa, autoedizioa, zerbitzu editorialak, banaketa, salmenta. Banatzaile eta liburu dendekin batera sortu nahi duen ereduak gurea bezalako kultur eremuak dituen premiei erantzun egoki eta jatorra eman diezaieke, asmatuz gero.

Erro berrietatik sortu direnen ondoan betikoak daude, liburu denda tradizionalak, Fnac bat, Virgin bat, adibidez, eta horiek bietan jarraitzen dute: liburu analogikoaren salmentaren ondoan digitalarena bultzatu dute.

## Liburuaren sektorea

### Liburuaren sektorea noraezean

Liburu digitalaren inguruan agertzen diren iritzietan ikusia dugu apokaliptikoek eta integratuek elkarri mokoka bezala dihardutela. Baina, arestian esan bezala, gehienak ez dira ez alde batekoak ez bestekoak, «despistatuak» baizik. Beste modura esan, jende andana dagoela iritzi landu finkorik gabe.

Ez jendartean soilki. Profesionalen artean ere desorientazio handia dago. Kalekoa baino informatuago egon badaude, kezkatuago ere bai, urduri, baina GPSrik gabe, noraezean. Eta ez omen dago bide-orririk sektorean.

Zerk dakarren ezinegon eta norabiderik eza hori?

Esango nuke sektoretik kanpoko aktoreak indarrean sartu izana dela lehen faktorea. Liburu analogikoan ere, egia esan, aspalditxo sarturik daude sektoreaz kanpokoak, industrialak, nazioarteko enpresak, eta munduan zeharko paperezko edizioa kontzentrazio maila jakin batera eraman dute. Baina, hala eta guztiz ere, sektoreak bazuen kontrola hein handi batean. Ustez, behintzat. Eta orain, bat-batean bezala, elektronika munduko handi-mandiek jarri dituzte bilaketa motoreak martxan eta ematen du edizioaren mundua irentsi behar dutela. Marconi Galaxiakoez Gutenberg Galaxia kolonizatu behar dutela, McLuhanen terminoak erabiliz. Liburu analogikoaren mundua jasan duen astinduaren pean dago, olatutzarra gainetik pasatu zaionaren antzera. Kanpoko horiek enpresa indartsuak dira, enpresa editorialak baino askoz indartsuagoak. Eta joko arau desberdinak planteatzen dituzte.

Horien sarrera desenbarkutat, intrusismotzat, kanpotik datorren erasotzat dauka sektoreak, neurri batean bederen. Errespetu gutxirekin sartu dira sailean, inbaditzaile gisa, beren legeak inposatuz, teknologiaren izenean, modernotasunaren izenean. Kostata, baina hasia da sektorea erreakzionatzen, gogoeta osteko urratsak egiten.

Aurrera egiteko bidean gainditu behar dituzten trabak ez dira txantxetakoak. Han-hemenka irakurri ditudan batzuk laburbilduko ditut jarraian, lehentasun ordenarik gabe.

- Euskarri eta formatu digital ugari dago. Gehiegi, diote. Bakoitzaren baliabideak neurtzea eta atzean daukaten eskaintza edo biblioteka baloratzea ez da batere xamurra. Hori bateko. Eta besteko, horietatik zein nagusituko den ez dakigu. Apustua horietako baten alde egin, eta biharamunean zaharkitua egon daitekeela pentsatzeak ez du inor animatzen. Musikarako iPod den bezalako bat beharko omen litzateke libururako.
- Edizio digitala ere Internet bezala doan espero du jendeak. Teknologia berriek ematen du ez daukatela kosturik, eta hori ez da egia. Doan Internet, doan irratia, doan telebista. Eta liburua zergatik ez? Baldintza horietan nekez abiatuko dira bide horretan editoreak. Edizio komertzialak ordainduz beharko du.
- Pirateriaren beldur da sektorea. Ikusi du musikan zer gertatu den. Nola babestu liburuak? Badira teknikak, baina nork jakin hurrengo egunean pirataren batek ez ote duen altxorraren giltza aurkituko?
- Jabego intelektuala. Edizio digitalean kontratu arau finkoak falta dira. Desberdin funtzionatzen da Ipar Amerikan eta Europan, esaterako. Nola moldatu behar dira euskarri digitalean dagoen kasuistika ia infinituan? Paperezko edizioarena urteen poderioz jada biribildua zegoen, errekan behera etorri den harri biribilen antzera. Baina kontratu digitalak ertzak besterik ez ditu.
- Autore eskubideak liburu analogikoan, eztabaidak gorabehera, jada finkaturik zeuden. Bestelako eskaintzak egiten dira digitalean, etxe bakoitzak berea egiten du, gainera. Ematen du gehiago kobratu beharko lukeela autoreak, baina zenbat gehiago? Zifra oso desberdinak plazaratu dira.
- Prezioaren inguruan ere bada zer erabakirik. Iritzietan denetik irakur daiteke: digitalak analogikoak bezain ga-

resti edo garestiago behar duela, merkeago behar duela. Gehienek merkeago behar duela diote, liburu katearen prozesua txikitu egiten delako. Digitalean ez dago inprimaketarik, ez dago banaketa edo liburu dendarik. Baina proportzio berean jaitsi behar al da prezioa? Beste eta bestelako lan batzuk dauzka liburu digitalak, eta ez dira doakoak.

- Ordainketa moduak ere badu zer hobeturik. Ordainketa elektronikoen segurtasunaz ez dira denak fio, eta mesfidantza hori gainditua beharko luke editoreak.
- Profesional eskarmentatuen gabeziari aurre egin beharko dio editore profesionalak. Teknologia menderatzen duenak ez du eskarmenturik liburuaren munduan eta sektoreko jendea ez dago aski trebatua kasu askotan.
- Eremu berri eta ezegonkor batean sartzen da editorea, likidoaren munduan. Sare ekonomian, liburuaren munduko aktore nagusi guztiak elkarren lehiakide dira, eta une batean elkarren etsai bihur daitezke: autoreak lotura zuzena egin dezake irakurlearekin, editorea bezala banatzailea eta dendaria gaindituz. Editoreak zirkulua autore eta irakurlearekin egin dezake, kateko beste osagaiak baztertuz. Eta horrela.
- Merkatuan gaur dauden aukeren artean asmatzea ez da erraza beti. Zein teknologia aukeratu, hori da bat. Baina aurretiaz estrategia erabaki behar da: norbera bakarka joan, sektoreko plataforma digitaletan esku hartu edota sektoretik kanpoko kide teknologikoekin aliantzak egin, esaterako.

## Editore digitala

Ez omen da behar editorerik digitalean, diote batzuek. Sareak askatasunaren garai berria ekarri du, auzo mundiala, mundu-komunitatea; eta hor ez da behar aukeratzailerik, antolatzaailerik. Alegia, askatasunaren aro berrian editoreak ez du egitekorik. Aukeratzea hiritarrari dagokio, berorrek du

horretarako gaitasuna, eta bitartekari batek ezin du bere orde-  
dez aukera egin. Webak ez du behar editorerik, ez argitalpen  
zuzendaririk, ez bibliotekaririk, eta ez liburu dendaririk. Ez  
dut uste iritzi ildo hori nagusituko denik, baina bada izan.

Beste batzuek ez dute ikusten zertan desagertu behar duen  
editorearen irudiak. Ez dira gutxi kontrakoa diotenak, edi-  
zio analogikoan baino beharrezkoagoa dela editorea digita-  
lean, dagoen anabasa kontuan hartuta, nola eta ez den nahi  
informazio masa horretan ito.

Editore klasikoaren funtzio bat bakarra ez litzateke desa-  
gertuko digitalean, hau da, idoro, hautatu, zabaldu eta pro-  
mozionatu. Liburu digitalak sinesgarritasuna omen du jo-  
koan. Zer esan nahi du kontzeptu giltzarri bailitzan erabili  
ohi den «sinesgarritasunak»? Aro digitalean obra bat publi-  
katzea lehen baino ere errazagoa da. Edozeinek publika de-  
zake. Hesia jaisteak zera dakar, titulu gehiago agertuko dire-  
la. Paperezko edizioan gehiegi argitaratzen dela uste due-  
nak jai du orain. Kopuruz gora egin dugula, eta kalitatez?  
Kezka horiek planteatuz ibili gara sarri, eta editoreei salatu  
izan zaie bahea zulo handikoa izan dutela sarri, hau da, obra  
txar asko ere publikatu egin dutela.

Arrisku hori areagotu egiten da unibertso digitalean. Edo-  
zeinek argitara eman dezakeenean eta horrek inolako kalita-  
te-kontrolik ez daramanean, nola fidatu obra baten kalita-  
teaz? Anabasa horretan nola bereizi ona, eskasa, txarra? Oloa  
eta garia nola bereizi? Hor kokatzen da editore lanaren balio  
erantsia, erreferentzialtasuna; azken batean, sinesgarritasuna.

Editorearen rola, baina, ez da orain artekoaren kalkoa izan-  
go. Editore digitala editore berria da, edo berritua. Puntu ho-  
netan ere bada eztabaidarik: zer komeni den, editore zaha-  
rra birziklatzea edo editore guztiz berria izatea. Batek ofi-  
zioa du alde eta balizko inertzia astunak kontra. Editore be-  
rriari, aldiz, freskotasunaz gainera, teknologia berrien eza-  
gutza suposatzen zaio.

Gauza bat da segurua, edozein delarik ere edizioaz ardu-  
ratzen den hori, edizio digitalak metodo berriak eskatzen

dituela. Kate tradizionala birpentsatu eta sarearen ezaugarrietara egokitu beharko du editore digitalak. Honela zehazten ditu Lebertek egiteko horietako batzuk: eskuizkribuak modu digitalean eskuratu, erantzun-tarte txikia, mezu elektronikoz erantzun argudiatua eman, berehalako argitalpena, aldi bereko salmenta paperean eta digitalean, eta hor formatu desberdinetan, guneko estatistiken jarraipena, arkitectura interaktiboa eta hipertestuala moldatu, ekoizpen departamentua edizio digitalean baliabideen hustiaketa departamendua omen da praktikan.

Leku berrietara, publiko berriengana liburuia eramatea editore berriaren erronka berria da, imajinazio eta malgutasun handia eskatzen duena, dio Lebertek.

Lebert bera eskema tradizionaletatik aldenduriko egitura editorial guztiz berrien aldekoa litzateke.

Lorenzo Soccavo aztertzaileak, aldiz, bestera uste du: informatika ingurumariaren eskuetan ezin dela utzi merkatua eta liburuaren katea osatzen duten aktore tradizionalak hartu behar dutela eskutan etorkizuna. Aktore klasikoak, bai, baina zeregin berriak egiteko. Hala nola, ekoizpen berriak asmatu, banaketa eta salmenta eredu berriak, kontuan edukitze behar baitira aldi berean desmaterializazio fenomeno eta espektatiba berriak, ohitura berriak, irakurleen erabilera berriak.

## Kostuetatik preziora

Zein prezio jarri behar zaio liburu digitalari? Ia aho batez esan ohi da paperezkoak baino merkeago behar duela digitalak.

Zergatik merkeago? Erantzuna beti da bera: unibertso digitalean kostuak gutxitu egiten direlako; papera desagertzean, ez dago inprimategirik, ez dago banaketarik, eta ez dago liburu dendarik.

Garestiago ere izan daitekeela gogoratzen dute batzuek. Segun eta zenbat zerbitzu osagarri eskaintzen diren, hots,

hipertestua zenbat lantzen den, datu bilaketek zer suposatzen duten, oharrez nola osatzen den. Baliabide ugariz hori daiteke testu digitala, eta kalitatezko autoretza horrek bere prezioa du.

Salbuespenak albuespen, merkeago behar duela esatean adostasun handia ez eze ia erabatekoa da sektoretik kanpo. Zenbat merkeago? Zer kostatzen da inprimaketa, banaketa edo liburu-denda zerbitzua edizio analogikoan? Bada, hori gutxiago, eta kito.

Ez dut uste diferentzial bat markatzerik dagoenik, kontuan izan behar baita edizio digitalak badituela bere gastu propio eta bereziak ere: digitalizazioaz gainera, stockatzea dago, pirateriaren aurka segurtasun edo defentsa mekanismoak jartzea (DRM garestia da), eta autoreekin kontratu berriak, banaketa sistemak landu behar dira, promozio eta salmenta estrategiak diseinatu behar dira, fiskalitatea. Liburu elektronikoa bere egitura behar du, deskarga zerbitzariak, etab. Webgunea bizirik eta eguneratua mantentzea ere editorearen lana da, eta deus ez da doakoa.

«Zenbat merkeago da liburu digitala?» galdetuz jarraitzen dugu. Zifren dantza zoroa da, guztiz arina. Papera baino %50 merkeago behar duela irakurri dut; %40 merkeago behar lukeela ere bai. Gehiago dira merkatzearen marra %30ean jartzen dutenak. Sektoreko jendeak baxuago kokatzen du digitalaren marra hori: %10-20 artean. Edo ezta hori ere: Frantziako SNE edizio sindikatu nazionalak paretsu jartzen ditu bi argitalpenen kostuak. Beste estudio batek bi dolar merkeago jartzen du digitala. Frantziako argitalpenetan, gaur, prezio finkoa mantentzen denez, paretsu dabilta biak, BEZaren eraginez. Paperezkoak %5,5 du BEZa; digitalak, ordea, %19,6. Digitalaren «kanibalizazioa» saihesteko omen da.

Egiazko prezio finkoak ibilian-ibilian zehaztuko dira prezioak ezartzeko irizpideak eta mekanismoak sektoreak finitzen dituenean, eskarmentuarekin batera. Musikari gertatu zitzaiona ez dakion liburuari gerta, malgutasun handiz joka-

tzeko gomendatzen zaio edizioari. Obra bat sal liteke kolpe batean eta osorik, paperezko liburua saltzen den bezala. Baina formula askoz gehiago daude: kapitulu bat ere sal liteke, CD batean kanta bakarra izango balitz bezala. Edo aldi baterako utz liteke, bibliotekak mailegu bidez egin ohi duen legez. Aldizkarien eredura, abonamendua ere egin liteke.

Formula desberdin horietan nola jartzen dira prezioak? Nola egiten dira ordainketak? Nola kalkulaten dira autore eskubideak? Bada aipatu ez dugun modu bat, sinpleena, edizio analogikoan erreferentziazko liburuetan erabili ohi dena: «honenbesteko finko», lana jatorrian ordaindu, kopuru adostua, eta bakea. Dirudienez, hala ere, autoreek nahia-go dute proportzionala, salmentaren arabera.

Gauza bat dirudi segurua, ezingo duela doakoa izan unitertso digitaleko liburugintza profesionalak. Zeinek finantzatuko du? Lau finantziario eredu leudeke: gobernu, enpresa, mezenasen bat edo publikoa, erabiltzailea. Euskal ekoizpenaren kasuan peajea ez den beste finantziario motaren bat imajinatzea zaila gertatzen zait. Editore ez euskaldun bati irakurri nion desiratzen legokeela bera liburua doan oparitzeko kontsumitzaileari, baldin eta kostuak norbaitek ordainduko balizkio.

## Liburu denda

Paperezko liburuari lotua dago liburu denda, (ia) ehuneko ehun gaur egun. Eta liburuaren katearen azken muturra denez, kateko uztairik ahulena dela esan genezake. Batez ere auzoko liburu denda txikia.

Ez dakit zer bilakatuko den liburu denda, egia esan. Orain baino lehen ere makina bat aldaketa izan du, dendak berak editore lana egiten zuen aspaldiko garai haietara jo gabe ere. Tristura ematen du Parisko Saint Germain-eko liburu denda-tan ibiltzea gaur egun. Bat edo beste kenduta, liburu zahar eta okasiozkoak dira, marroistak, iraganekoak, bizitasun gutxikoak, garai batean zuten kultur agentearen funtziorik gabe.



Bestelakoa zen duela 35 urteko argazkia: auzo hori liburu dendaz betea zegoen, kale bazter guztietan bazenuen bat edo bi, ikasleen sartu-irtenez koloretsu, puntako autoreen obrak erakusleihoan. Haietatik gutxi batzuk gelditzen dira orain, eta ez liburu digitalak desagertuen hilerrira bidali dituelako, Fnacek eta konpainiak baizik. Horiek, eta etxe agentziak.

Halakoa ote da gaurko liburu denden atarramentua? Liburu dendak ere birtualak izango al dira, soilki birtualak?

Etorkizunari buruz kezka badago liburu denden sektorean. Eszeptizismoa ere bai. Egoera berrira egokitzeak inbertsioak eskatzen ditu, bai teknologikoak bai finantzariak. Askok ez dute dirurik aurre egiteko berez, eta ez daude horren seguru eduki digitalekin inbertsio hori errentagarri egiterik izango ote duten. Inguruan ikusten dutenak ez die digitalean fedea indartzen. Egia da oraingoz bederen literaturak, arte-liburuak edo gazte liburuak paperean jarraitzen dutela, baina irteera handia zuten beste liburu mota batzuk digitalera pasatu dira, eta liburu dendetatik aldenduz doaz: turismo liburua, esaterako, edo liburu praktikoa. Doan aurki daitezke Interneten hainbat obra «praktiko» deiturikoak, brikolajea, lorezaintza, sukaldea, kirola. Odoluste hori nola gelditu ez da ikusten. Zertan egon ez da etorkizunari begira zer gertatzen den ikusi eta ondorioak ateratzeko.

Gaurko bezeroaren premiak asebetetzean datza liburu denda modernoaren legitimitatea. Beti bezala, bestalde, salbu eta liburu denda autozerbitzu bilakatu denean. Liburu dendara datorren bezero hori gidatu, aholkatu, informazio bibliografikoaren oihanean baliozkoa bereizi edo apartatu, kalitatearen bahea bermatu eta eskaintza kualitatiboa eman, horra dendari klasikoaren bertuteak. Liburu dendak bere jatorrizko bokaziora etorri beharko du. Bezeroari eskaini beharko dio denbora, aholkuak eman eta zerbitzuak eskainiz.

Dendara ez datorren bezeroari ere arreta egin beharko dio, Internet bidez liburu dendarekin harremanetan jartzeko modua eskainiz. Bientzako kalitatezko zerbitzua behar da, hau da, Interneten bidez osatu denda fisikoak ezin duena. Inter-

neten presentzia areagotu beharko lukete dendariak, adituen ustetan. Adituen esanetan, eskaintza horren arabera bereziko omen dira lehen eta bigarren mailako liburu dendak.

Etorkizuneko liburu dendan inprimategi txiki bat egongo omen da, bezeroari liburua biblioteka birtual unibertsal horretatik jaitsi eta paperezko liburu gisa zerbitzatu ahal izateko. Ba omen daude jada indarrean. Neuri ez zait suertatu ikustea.

Liburu dendako inprimategitxo horrek, eraginkorra izatekotan, beste arazo bat jartzen du mahai gainean. Edozein liburu berehala inprimatu ahal izateko, datu-basea behar da. Eta datu-base edo biblioteka erraldoi (unibertsal!) horretara sarrera eduki behar. Utopia ematen du egun, baina nahitaezko baldintza izango da baldintza beretan jokatu nahi bada. Posible ez dena da gaur egungoa: tresnari lotua dagoela biblioteka askotan. Liburugintzako aktore guztiek beharko lukete sarrerako giltza, baldintza beretan.

### POD (Print On Demand): Eskatu ahala Inprimatu

Teknologia horrek testu elektronikoko bat paperezko testu bihurtzen du, inprimategiko edozein makinak bezala bestalde; baina, haiek ez bezala, momentuan bertan eta ale bakarrean ere bai. Bat-bateko zerbitzuan eta eskari txikiari erantzuteko gaitasunean dago aldea. Urtxintxaren arintasuna du horrek, eta inprimategiak lehoiaren gaitasuna.

Zerbitzu egokia eskain dezake kasu jakinetan: agorturiko liburua berreskuratzeke, edo okasiozko bat, errotazio gutxi-ko tituluak denda jakinetan kokatzeko. Etxepeko inprimategia izan daiteke hori. Erabilera-abantailaz gainera, baditu bestelakoak ere: ez du biltegirik behar, kostu gutxikoa da inprentaren aldean.

Zein neurritan egin diezaioke inprimategi klasikoari min horrelako batek? Paperak irauten duen bitartean behintzat, bientzako dago lekua edizioan. Orain ere hainbat inprentak eskaintzen du antzeko zerbitzurik, horren txikira heldu gabe bada ere. Ehun aletik gora ez dela errentagarri gertatzen

autoedizioa esan ohi dute. Bat-bateko inprimaketaren kasuan ez dakit non dagokeen neurtzeko marra hori. Behar-go, seguru.

Ez dago argi, bestalde, zeinek eskainiko duen zerbitzu hori. Argialetxean kokatzen dute batzuek makina. Beste batzuek, aldiz, banatzailearenean edo liburu dendan kokatzen dute aparatua. Laugarren kokagune bat ere badago, autoediziorako plataforma, eta harantz ote doan inprimaketa mota hori, nahiz eta batzuek «desbideraketatzat» jo. Ez da baztertzekoa, azkenik, zerbitzu hori emateko enpresa berriak sortzea, edota oraingo inprimategiek beren gain hartzea lan berria.

## Autore eskubideak eztabaidaren bihotzean

### Eskubide jabeak vs teknologia jabeak

Arrazoiz ohartarazten du Patinok bere txostenean ez dela kontrajarri behar eskubide jabeduna eta erabiltzailea. Bestela esan, ez direla aurrez aurre jarri behar, elkarren aurkari ez direnez, alde batean editorea edo autorea eta beste aldean irakurlea, kontsumitzailea.

Hori esatean zein du buruan Patinok? Doakotasuna lortzearren inolako mugarik onartzen ez dutenen iritzia, zailtzarik gabe.

Egiaz eta benetan interes kontrajarriak dauzkatenak eskubide jabeak eta sarrera jabeak dira. Eskubide jabeak, hots, autorea eta editorea. Eta, bestetik, sektorez kanpoko aktoreak. Azken horien artean daude bilaketa motorren nagusiak eta telekomunikazioko operatzaileak. Zertan bereizten diren batzuk eta besteak, batez ere zertan? Lehenek jabego intelektualaren eskubideak daukate. Eta bigarrenek ez. Lehenek, logikoki, jabego intelektuala indartzea nahi dute. Eta bigarrenek, aldiz, jabegoaren kontzeptua bera ere desagertzea.

Hor dago gakoa.

Barrukoek arriskutsutzat hartu ohi dituzte kanpoko operatzailetzarrak. Intrusismoa salatzen diete. Zein da arris-

kua? Daukaten indarraren handia kontuan hartuta, merkatuaren jabe egin daitezke nahikoa erraz, bere legeak inposa ditzakete, sareak kontrola ditzakete, eta azken batean aukera gabe utzi erabiltzailea. Doakotasunaren bideak mende-kotasuna eta askatasunik eza ekar dezake.

Eredu desberdinak daude. Txarrenak, eredu jabedunak dira.

Salbatu behar dena da kontsumitzaileak gorde dezala beti aukera-askatasuna, jabego intelektualean eskubiderik ez dutenek ez dezatela euren legea inposatu. Tresna horien dependentzia nahi ez bada, eta batez ere tresna horien bidez bakarrik iritsi baitzaitezke edukietara, operatzaileen eskuetan zaude harrapaturik. Sektorea ondo kokatzen ez bada, eta garaiz, eta aginte publikoak ez badu arautzen, sarrera-giltza daukaten operadoreen menpe geldituko dira edukiak. Horien eskuetan. Zirkulu itxi hori hausteko modua, gezurra badirudi ere, erabiltzaileak ordaintzea da, eta ez doakotasuna. Deskuidatuz gero, epe ertainera liburuaren munduan agindu dezaketenak ez dira editoreak, baizik eta telekomunikazioko operatzaile eta sarrera-atarietako edo banaketa digitaleko profesionalak.

Eredu beldurgarritzat Amazon har omen daiteke, bere Kindlerekin. Amazonek tresna fabrikatzen du, liburu elektronikoa komertzializatzen du eta, horretaz gainera, lan editoriala, liburu dendarena eta biltegiarena ere berak hartzen ditu bere gain.

Google bat da bestea.

Idazleak zur eta lur ikus dezake bere obra salgai, bere bai-menik gabe, ordainetan deus jaso gabe. Editoreari gauza bera gerta dakioke, eta horrek ere ez luke deus kobratuko nahiz eta berak idazleari egina dion jada ordainketa. Liburu dendak ikusiko du berak dendan daukan liburu bera han dagoela, eta merkeago edo doan ez bada.

Oihaneko legea ematen du, ezta? Konparazio bat irakurri diot norbaiti: zer irudituko litzaiguke hacker edo esku fin elektronikoko batek liburu dendatan salgai dauden obrak har-

tu eta ondoko dendara merkeago zabalduko balitu? Indarraz beste zein «baliabide» dute horiek horrela jokatzeko? Renoko biblioteka, euskal gaietakoa, Googlek digitalizatzen badu, eta jendearen eskuetan doan utzi, nahiz eta etxepeko dendan salgai izan...

Laburbilduz: egungo jokamolde horrek inolako dragarik gabe segitzen badu, mekanismo erregulatzailerik gabe alegia, kontsumitzailearen aukera-askatasuna arriskutan dago, eta ez hori bakarrik: edukia sarrera-emailearen menpeko izanik, azken batean sortzailetasuna ere arriskutan dagoke.

Irakurlearen ikuspegi soila lantzen duenak esango du irakurlearen mesederako dela doakotasuna, baina ez da gauza segurua epe ertain edo luzera horrela ote den. Nola elikatu-ko da sorkuntza, sortzailea?

## Jabego intelektuala

Autore eskubideak zirkulu barruko C batek (©) identifikatzen ditu liburu analogikoan. «Autore eskubideak» jatorri frantseseko kontzeptua da, eta bi eratako eskubideak bereizten ditu: moralak eta ondarezkoak. Eskubide moralak ez dira negoziagai, autoretza, esate baterako. Copyrigh terminoak, horrenbestez, ondarezko eskubideak babesten ditu soilki. Copyrighak kopiaren eskubidea autorearen esku gelditzen dela esan nahi du.

Bada edizioaren munduan jabegoaren ulerkuntza horrekin bat ez datorrenik. Analogikoan bezala digitalean. Are eta gehiago digitalean esango nuke, digitala bokazioz irekia, unibertsala, guztientzakoa dela eta. Erraz pizten da polemika gai horren inguruan.

Bidezkoa denez, eskubideen jabe direnek, autoreak eta editoreak, erabakitzen dute bere obra nola nahi duten komunitatearen eskuetan utzi. Hiru modu nagusi daude, bakoitzak bere baitan ñabardura ugari duelarik: copyrigh DRM teknologia bidez; copyleft GPL (*General Public License*) lizentzia bidez; eta Creative Common.

## DRM

DRM *Digital Rights Management* da, eskubide digitalen kudeaketa. DRMren helburu nagusia obraren sakabanaketa inkontrolatua ebitatzea da eta besterik gabeko kopia eragozte. Liburu analogikoa ez bezala, unibertso digitalak edukiaren eta euskarriaren arteko haustura dakar. Hori dela eta, edukia di-da batean kopia daiteke eta euskarritik euskarrira obraren izaera aise alda daiteke. Joan-etorri horietan oso erraz deformatu daiteke testua, plagiatu, autoretza bidean galdu. Hori guztiori kontrolatzea izan beharko luke DRMren egitekoa, eta ez irakurleari trabak jartzea.

Teknologia horrek sarrera atea kontrolatzen du, sartzten dena identifikatu egiten du, eta sartzeko baimena eman ala debekatu. Murriztapen gehiago ala gutxiago jar daskioke sarreari. Pirateriaren izuak babesak gehiegi gogortzea du arrisku.

Edizio komertzialaren munduan badirudi copyrightha DRM sistema bidez gauzatu nahi dela.

Etsai amorratuak ditu copyrightak oro har, eta bereziki DRMak. DRM izena bera beste modu batez interpretatzen dute: *Digital Restrictions Management*. Sistema horrek erabiltzailearen eskubideak bortxatzen omen ditu, horien artean kulturarako sarrera librea, edo intimitate eskubidea. Sistema malguagoak behar omen dira.

## Copyleft

Copyleft da sistema malgu horietako bat, 1984an Richard Stallman-ek abiatua. Aurrez aurre copyrightharen aurka sortua, izenak berak aditzera ematen duenez. (Izen periodistikoa omen da, gaizki sortua, *right* eskuin bezala ulertuta eta ez eskubide gisa.) GNU lizentziaz baliatzen da alternatiba hau. Zirkulu barruan C inbertitu bat jarrita adierazten da zein dokumentu den.

Aurrekoaren kontra copyleftek mugak eta debekuak ezabatu egiten du, eta eskubideak erabiltzaileari ematen dizkio. Erabiltzaileak testua erabili, aldatu, birmoldatu egin dezake

bere nahierara. Baldintza bakarra du, dokumentu deribatua hartu duen moduan utzi behar duela: lizentzia berarekin, copyleft bezala.

Horri ere ez zaio etsairik falta. Besterendu ezin diren esku-bide moralak ere arriskutan omen daude sistema horretan. Horren alde egonik bere obra copyleften utzi zuen bati irakurtzen nion aurrekoan, nola halako batean aurkitu zuen bere obra testuinguru desegoki batean eta bere harridurarako autorearen aitorenpenik gabe. Horra arriskua, arriskueta bat.

### **Creative Common**

Laurence Lessig Kaliforniako zuzenbide irakasleak 2004an Creative Common sortu zuenean, bi muturrak lotu nahi zituen: batetik, sortzaileen lana babestu; eta bestetik, komunitatearen eskuetan uztea bermatu. Zirkuluaren barruan bi C gordeta identifikatzen da lizentzia hau. Sarrera eta erabilera libreak dira biak, baina hainbat erabilera baldintzatuak edo mugatuak daude. Hori bai, bi baldintza ezinbesteko dira: aitortu eta aipatu egin behar da autorea, eta obra deribatua baldintza beretan utzi behar da komunitatearen eskuetan.

Mekanismo horiek filosofia desberdinei erantzunez jarri dira indarrean. Segun eta zein den dokumentua, segun eta zein baldintzatan sortu den eta zertarako, bat edo beste aukera daiteke.

### **Autore eskubideak dirutan**

Erabiltzaileak doan jaso ala ez, egileak zenbat jaso behar du?

Oker ala gaizki, paperezko liburuan autore eskubideen gaia aspaldi bideratua dago. Arruntena salmenta prezioaren hainbesteko bat da, gehienetan %10-15.

Edizio digitalean ehuneko horrek gora egin behar duela uste da, hainbat kostu gutxitu egin direla-eta: hala nola, inprimaketa, biltegia, banaketa. Bitartekariak eta kostuak gu-

txitzen dira digitalean. Hortaz, autoreak gehiago kobratu beharko luke, ehuneko handiagoa. Baina zenbat?

Liburu digitalaren prezioaren gaian bezala, autore eskubi-deetan ere zifrak gustu guztietarako daude. AEBetan %20-25 omen da. Amazonek %20 eskaintzen du. Zifra altuagoak ere irakurri ditut: Randomek 2000. urtean irabazi garbien %50 eskaini omen zuen autore handiak erakartze aldera. Hurrengo urtean Barnes & Noblek %35 eman zien autore handiei.

Zifra horiek hutsak dira askotan, ez baitakigu zer duten barruan. Ez baita berdin salmenta prezioaren %50 edo irabazi garbien %50. Salmenta prezioaren arabera eginda ere, ez baita gauza bera liburu digitalaren prezioaren %10 eta paperezko liburuaren %10, hori hura baino garestiagoa izan ohi denez.

Autoediziorako plataformek aireratzen dituzten zifrak ez daki batek marketing operazioak diren, ala egiazko eskaintzak. Ohiko eskaintza bat hau litzateke: irabazien %80 jaso-ko du autoreak; eta %20 argialetxeak.

Bi amu dauzkate plataformok: aipatu dugun %80 dela autoren-entzat, eta autore eskubideen jabegoa autorearen esku gelditzen dela.

Zifra handi horien azpian ezkututzen diren hizkitxoek zer diote?, galdetzen nion neure buruari. Horretan niharduela, José Antonio Vázquez-en artikulua batekin egin dut topo: «Lulu y Bubok: Luces y sombras de las nuevas plataformas digitales de autoedición». Vázquezek editore tradizionalaren ikuspegitik aztertzen du plataforma horien eskaintza, bi edizio moten alderaketa iradokiz.

Zein da benetan editore lana eta zein da egiazko ordaina? Hona zenbait puntu:

- eEdizio arruntean editoreak egin ohi duen hainbat lan, digitalean autorearen bizkar doaz. Gogoratze aldera, hona batzuk: maketazioa, zuzenketa, filmazioa, papera, inprimategia, galeradak, promozioa, komunikabideei aleak bidaltzea, hainbat liburu autoreei bidaltzea, autoreari diru aurrerapena, banaketa eta logistika. Egiteko horieta-



ko batzuk desagertu dira, bai, baina ez guztiak. Argitalpen-hautu batzuk bere kontura doaz, eta hainbat gestio berdin.

Plataformak edizio formulak aukeran ematen dizkio idazleari, eta horren kontua da erabakitzea, hala nola, neurriak, formatuak, kontratu mota, prezioa, eta beste.

- Zeregin batzuk ere ez dira falta tartean. Hona bat, ISBN (liburua komertzializatu nahi bada): norberak egin dezake eskaria edo plataformari enkargatu dakioko (90-120 euro artean balio du gestioak). Horra bestea, Lege Gordailua: gestioa egin behar da, eta bost ale bidali. Autorearen kontura, omen. Hirugarren bat ere bada, liburuaren banaketa: norberak egin dezake ala Luluri enkargatu (100 euro balio du enkarguak). Eta bada gehiago.

Horren guztiaren ondoren zertan gelditzen da aipatutako %80 hori? Jakin behar baita kostu guztiak (ekoizpena, bidalketa eta beste) deskontatu eta geroko irabazien gain kalkulatu dela %80 hori. Kontuan hartu behar baita, gainera, liburuaren prezioa autoreak jartzen duela eta gehienetan merketik jotzen duela salmenta edo irakurketa areagotzeko, bueltan-bueltan datorkeen irabazia txikiagoa dela kontuan hartu gabe.

Vázquezen ondorioa da ekoizpen kostuak antzekoak direla paperezko liburuan eta plataformen eskaintzan. Eta autorearen irabazi eskaintzak? Horiek ere halatsu, modu desberdinean kalkulatu, hori bai.

## Pirateriari nola aurre egin

Nola egin dakioko aurre pirateriari? Bi proposamen kontrajarri aurki daitezke: produktuak sarean doan ematea bezalakorik ez dago horretarako, diote batzuek. Eta besteek espero dute sarrailaz atea itxita lortu ahal izango dela jabegoaren defentsa bermatua.

Editore analogikoari, digitalaren itsasoan sartzeko orduan, izua eta bi ematen dio piratak. Somalian baino segu-

rantzia gutxiago du editore profesionalak unibertso digitalan, inork ez baitio ehuneko ehun bermatzen bere lana koptiatuko ez denik. Ikusi du urte gutxitan musikaren negozioa nola joan den pikutara. Egia ala gezurra, irakurtzen du Italian musikan baino are deskarga ilegal gehiago dagoela liburutan: 350 milioi euro 261 milioi euroren kontra. Eta beldurtu egiten da, zer besterik.

Eta DRM lizentziak eskaintzen duen babesean ezkututzen da, DRM hori ahalik eta gehien itxiz, berme perfektuaren bila. Adituek diote edizio digitala mende hasieran aurreikusi baino motelago badoa, segurtasun falta horregatik dela, horren erruz ez baitira editoreak itsaso horretan murgiltzen. Software librearen zaleek, bere aldetik, DRM salatzen dute digitalaren garapena mugatzen duela eta.

Pirateriari aurre egiteko modu burutsua zein da? Doan banatu eta kito? Sarrailaz atea itxi, eta bakea? Patinok dio ezetz, ez bata, ez bestea.

Askok gustatu zait Patinok bere txostenean nola askatzen duen korapiloa. Doakotasuna ez da edizioaren sektorearentzat irtenbidea. Baina DRM itxi bat ere ez, dio berak. Non dagoke soluzioa? Eskaintza legala egitean, aberatsa, merkatuak onar dezakeen prezioan eta blokeo tekniko gehiegi gabe. Piratei lehia irabaztean, ez borroka. Txostenean zehar luze tratatzen du ikuspegi hori, eta emankorra da. Hona bere pasartetxo bat:

La colocación de bloqueos técnicos demasiados importantes puede volverse en contra de quienes hacen uso de ellos, estimulando la piratería o permitiendo a actores ubicarse en posición dominante. Por eso a veces se oye decir en los sectores que han conocido la digitalización de su contenido que los DRM son «una solución en búsqueda de un problema».

Parece preferible dar prioridad a una oferta legal que sea a la vez suficientemente abundante, a un precio aceptable por el mercado y sin bloqueos técnicos excesivos. *El objetivo que se debe privilegiar no es tanto luchar contra los piratas, que en un momento dado siempre sabrán desactivar un sistema de protección, sino competir con ellos proponiendo una experiencia de pago pero cómoda, interesante y fiable jurídicamente.*

## Geroari buruz

### Patinoren ondorioa

Bruno Patino Télérama eta Monde Interactif-eko presidenteak batzorde baten buru gisa sinatutako txostena Frantziako Kultura eta Komunikazio Ministerioak eskatua zen; 2008ko ekainean entregatu zuen Patinok. Txosten bera paperezko liburu bezala 11 eurotan eros daiteke, edota bertsio digitalean kontsultatu edo jaitsi doan: «Le devenir numérique de l'édition. Du livre objet au livre droit». Sareko testuak beste izen hau du: «Rapport sur le livre numérique». Testu bera da, eranskinik gabe.

Hemen jasotzen dugun pasarte hau konklusio gisa ematen da txostenean. Sintetikoa eta mamitsua izaki, gaztelaniazko bertsiotik bere horretan transkribatzea pentsatu dut, biziki egoki laburbiltzen baititu txosteneko tesi nagusiak.

La entrada en la era digital parece que se produce más tardíamente para el libro que para las demás industrias culturales. En ciertos sectores de la edición, como el de los libros profesionales, prácticos o de referencia, hace tiempo que se digitaliza; sin embargo, esta evolución por el momento no ha cuestionado ni el modelo comercial, ni la relación con los autores, ni los usos de los lectores.

Una brusca inclinación de la edición hacia lo digital, hipótesis que no puede excluirse, podría, sin embargo, ejercer efectos muy importantes en la industria del libro, pues los equilibrios son frágiles.

Debe llevarse a cabo un control especial sobre la nueva competencia que podría surgir entre los poseedores de los derechos (autores y editores) —pues la remuneración de la creación debe ser protegida y valorada— y los poseedores de los accesos y las redes, que no tienen necesariamente interés en la valoración de los derechos de la propiedad intelectual.

En este contexto, dos elementos son esenciales: la propiedad intelectual (como clave de la edición) y el papel central de los editores en la determinación de los precios.

La comisión aboga en consecuencia por una serie de medidas organizadas en el seno de cuatro acciones:

1. *La promoción de una oferta legal atractiva* debe sostenerse, por una parte, en la interoperabilidad más amplia posible de los contenidos digitalizados, y, por otra parte, en la

estructuración de los metadatos que describan dichos contenidos, condición esencial de su visibilidad en el universo digital, y, finalmente, sobre la búsqueda del apoyo a la digitalización de los contenidos sometidos a derechos.

2. *La protección de la propiedad intelectual* no exige modificar el Código de la Propiedad intelectual, pues las disposiciones actuales pueden acomodarse al paso a la digitalización, pero debería ser apoyado por una reflexión interprofesional sobre los derechos de autor.

3. *La puesta en práctica de mecanismos que permitan a los poseedores de derechos desempeñar un papel central en la determinación de los precios* es una condición esencial de equilibrio en el universo digital. [...]

4. *La realización de una política activa ante las instituciones comunitarias* es indispensable, así como «un lobby de la propiedad intelectual» que defienda ante dichas instancias la aplicación de un tipo de TAV reducido sobre los bienes culturales digitales.

## Patinoren gomendioen ildotik

Adierazi dugu arestian Patinoren ustetan piratak desanimatzeko modurik hoberena ez dela obra doan eskaintzea (bidegabekeria autoreen eskubideentzat), baizik eta modu egoki batean obra bera kontsumitzailearen eskura jartzeko modua egitea. Eskuragarritasunaren kalitatea ahalbidetzeko bi gomendio egiten dizkie editore eta agintariei: bat, interoperatibitatea lagundu; eta bi: metadatuak egituratu. Helburua zein da? Jabego intelektualarena bermatzea bai, baina, aldi berean, kontsumitzaileak modurik erosoenean izan dezala edukietara sarrera. Horixe da gorago aipatu dugun «legezko eskaintza erakargarria».

Bi gomendio garbi ematen ditu, beraz, horretarako: interoperatibitatea eta metadatuaren egituraketa.

## Interoperatibitatea

Hona guztiok egin dugun konstatazioa: formatu eta euskarrietan aniztasun handia (handiegia?) dago merkatuan. Eta kezka bikoitza: tresna edo programa batetik bestera pa-

sabidea libre al da? Hori bat. Eta bestea: tresna guztiek eskaintzen al dute eduki guztietarako pasabidea?

Formatu eta softwaretan nahi adina akronimo ditugu. Ezaunenen artean hona batzuk: PDF (Portable Document Format, 1993); OeB (Open eBook, 2000); LIT (Literature)/Microsoft Reader; PRC (Palm Resource, 2000); PDB (Palm Database)/Palm Reader (2001), DAISY (Digital Audio Information System, gero Digital Accessible Information System).

Dosierrean ageri denez, hiru irakur-formatu dira nagusi (Frantzian bederen) fitxategiak deskargatu eta liburu digitalak irakurtzeko.

- Adobe PDF egokitzen da hobekien ordenagailuko liburu-erretara, ezaugarriak ondo gordetzen dituelako.
- Mobipocket PRC irakurgailu mugikorretara egokitzen da ondo. Formatu hori, gainera, tinta elektronikoa darabilten irakurgailu askorekin bateragarria da.
- Adobe ePub etorri berria ere ondo egokitzen da tresna nomadetara, *reflowing* edo berrorrialdekatze dinamikoari esker, edozein tamainatan irakur baitaiteke. Adobere-na izatea ere aldekotzat jotzen da.

Euskarri kontutan ere aniztasuna da nagusi. Irakur formatuen aniztasunaz dugun ikuspegi bertsua izan dezakegu euskarriaz ere. Irakurgailuak 20tik gora omen dira hasieratik hona. Tresna saltzaileen guneetara jo eta oraintxe bertan dozentatik gorako eskaintza dago. Zein dira gaur egun presentzia handiena dutenak? Lebertek hiru seinalatzen ditu 2007an: iLiad (iRex Technologies), Sony Reader (Sony) eta Hanlin eReader (Jinke), hirurak E-Ink teknologiaren erabiltzaile.

Patinoren arabera, gaur egun biblioteka handiena daukatenak bi dira: Amazonen Kindle eta Sony PRS505.

Baina auskalo urte bete barru!

Sektorearen kezkaekin bat egiten du Patinoren batzordeak: edukia, katalogoa, liburua, ez dadila teknologia jakin bati lotua egon. Hori da Amazonen kasua bere Kindlerekin, eta horixe da hain zuzen ere batzordearentzat antierdua, gordintasun horrekin txostenean azaltzen ez bada ere.

Helburua zera litzateke, edozein tresna edo aparatutik eduki guztietara iritsi ahal izatea. Esan nahi baita, eduki berak irakurgailu guztietan irakurri beharko lirateke.

Gauza guztien gainera, esaten die editoreei, formatu jabe-dunak saihestu behar dira, bestela editorea bera geldituko baita kide teknologikoaren menpe. Aktore teknologikoak leku dominatzaileak ez dezala hartu.

Interoperatiboak izan daitezela DRMko babes sistemak ere, formatuz aldatzean, edo euskarri berrira ekartzean, arazorik ez dadin sortu. Edukien interoperatibitateak, halaber, maila interprofesionalean gogoeta eskatzen du: zein forma eman, gero irakurgailu eta programa guztietan irakur daitezzen.

Azken ukitu bat puntu hau itxi aurretik. Aniztasuna, ugaritasuna ukazina da. Eta mesedegarri? Desiragarri litzateke agian frantsesek esan ohi duten «l'embarras du choix» arintzea, alegia, aukera gehiegiak dakarren ezin aukeratua arintzea. «Gutxiago, gehiago da», esan ohi da, hots, aukerak gutxituz mesede egiten zaiola agian erabiltzaileari.

Gai honen inguruko literatura irakurrita, nire inpresioa da askotan hemen jokoan dagoena ez dela edukia, teknologia baizik. Irudipena dut katalogoa amua dela, amua soilki. Sal-tzen dena tresna da, eta liburuaren sektorearentzat benetan inportantea den hori, hots, edukia, katalogoa, liburua, hori bigarren mailako dela. Ez dakit hala denetz, baina ez litzateke harritzekoa, liburu digitaleko liderrak kide teknologikoak direnez eta ez argitaletxeak. Liburugintzari berari lehentasuna ematea nahi bada, mundu editorialak hartu beharko du protagonismoa, oraingo tendentzia azpikoz gora jarriz.

### **Metadatuak egituratu**

Eskaintza erakargarriaren baldintza nagusietakoa da hori ere.

Metadatuak beharrezko dira obra identifikatzeko, deskribatzeko, nortasuna emateko, zirkulazioan jartzeko. Liburuari ikusgarritasuna emateko: baldin eta liburua ez badago ber-

din izendatua, berdin deskribatua, berdin aipatua, nola jakin zertaz ari garen unibertso digitalean dagoen guztiaren oiha-nean?

Zer dira metadatuak? Liburu analogikoan fitxa bibliografikoa den bezala, e-liburua deskribatzen duen informazio-multzoz osatzen dira metadatuak. Hiru mailatan: a) edukiari dagozkionak: titulua, gaia, deskribapena...; b) jabego intelektualari dagozkionak: autorea, editorea, eskubide jabeak, erabilera baldintzak...; c) osagai materialak: formatua, data...

Noren esku edo ardurapean dago egun egiteko hori? Datu base desberdinak ari dira antolatzen, irizpide desberdinen arabera. Fitxa irizpideak dira diferente, eta halaber diferente dira datu basearen formatuak. Patinoren batzordeak gomen-dio zehatzak egiten dizkie frantziar agintariei: egitura batek, eta berak bakarrik, egin dezala datu bibliografikoen fitxaketa, ahal den neurrian posible gerta dadila datu base bat eta bakarra eratzea gaur ez bada bihar, eta Onix izan dadila datu base horren formatua. Datu base bakar horretaz baliatu beharko lukete sektoreko aktore guztiek, bilaketa motorrak eta liburuaren katearen azken muturrean dauden liburu dendak. Horrela, arma beraiez baliatuko lirateke denak.

Batzordeak egiten duen azken gogoeta bat biziki interesatu zait, aspaldiko nire kezken harira. Hona batzordearen hitzak:

Esta necesidad [datu base bakarraren premia] es hoy en día la única obligación que recae sobre los actores franceses de la edición, la única que garantiza su existencia a nivel mundial. Las obras digitales desconocen fronteras, los contenidos franceses y francófonos no pueden estar presentes en el universo digital si no son identificados, localizados y valorizados en el seno de una red mundial. Por lo tanto, es importante reflexionar no sólo acerca de la mutualización eficaz de los metadatos, llegado el caso de una base de datos unificada, sino también un modelo económico de acceso a esta base.

Unibertso digitalean, existitzekotan, inork ikustea nahi bada, identifikatua behar du egon, lokalizatzeko moduan. Baldin eta frantsesek kezka badute, kezkaz gainera zer besterik ez ote genuke behar guk euskal liburuaren inguruan?¶

**Bibliografia**

Marie Lebertek, ohiko bibliografia eman orde, gaia jorratzen duten gune garrantzitsuenak ematen ditu. Ez bat edo bi, 882 baizik!

Gauza bertsua egin nezakeen, kontsultatu ditudan gune guztiak jarriz (ez dira Lebertenak bezainbeste, hala ere). Baina ez, hobe deritzot niri neuri baliagarrien gertatu zaizkidan oinarritzko dossier gutxi batzuk aipatzeari:

ALIRE-SLF: «Accueillir le numérique. Une mutation pour la librairie et le commerce du livre», 2008ko maiatza ([www.accueillirlenumerique.com](http://www.accueillirlenumerique.com)).

Ganascia, Jean-Gabriel: «Le livre électronique. Rapport de synthèse rédigé par Jean-Gabriel Ganascia», 2007ko iraila ([www.apa.lip6/GIS.COGNITION](http://www.apa.lip6/GIS.COGNITION)).

Lebert, Marie: «Les mutations du livre à l'heure de l'internet», 2007ko iraila ([www.etudes-françaises.net](http://www.etudes-françaises.net)).

Patino, Bruno: «Rapport sur le livre numérique», 2008-06-30 ([www.culture.gouv.fr](http://www.culture.gouv.fr)).

Rapport Cordier: «Rapport de la Commission de réflexion sur Le livre numérique», 1999ko maiatza ([www.culture.gouv.fr](http://www.culture.gouv.fr)).



# Liburu digitalen irakurgailuak eta haietarako argitalpenak

**ANDONI SAGARNA**

Industri ingeniaria eta Letretan doktorea

## Zer dira ebook edo liburu elektronikoak?

Liburu elektronikoak (ingelesez ebooks) paperezko euskarrian egon ordez euskarri digitalean dauden liburuak dira.

Bada denbora bat zenbait liburu euskarri digitalean zabaldu izan dela, gehienetan irakurleria mugatuegia zen kasuetan inprentaratzea bideragarria ez zelako; esate baterako, eskuliburu teknikoak eta argitaletxerik aurkitu ezin zuten egileen obrak zabaldu izan dira horrela.

Desberdintasun nabarmenak dituzte paperezko liburuek eta liburu elektronikoek. Azken horietan:

- Testuaren barruan bilaketak egin daitezke eta hipertesuak era daitezke estekak erabiliz.
- Ez dute ia leku fisikorik behar. Tresna batean ehunka eta are milaka liburu eduki daitezke.
- Ez dira agortzen eta ez dira deskatalogatzen.
- Ikusmen txarreko pertsonak ikus ditzakete testuak, komeni zaien tamainan eta letra-tipoan.
- Testutik hizketarako software bidez entzun liteke edukia.
- Kopiatzeak ez du kosturik.

- Banaketak ez du logistikarik behar.
- Baliabide naturalik ez dute xahutzen.
- Tiradarik egin behar ez izatea eta beraz finantziazio-erraztasuna.
- Bestela zabalkunderik izango ez luketen obrak plazaratu ahal izatea.

Aipatu ditugun abantaila horien ondoan desabantaila batzuk ere baditu liburu elektronikoak:

- Ordenagailu baten edo irakurgailu berezi baten beharra.
- Jende askorentzat, paperaren eta tintaren esperientzia sensorial atseginaren falta.
- Ohiko ordenagailu-pantailak erabiliz gero, begibistaren nekea.
- Kopia- eta egile-eskubideak zaintzeko zailtasuna.
- Gaur egungo zenbait formatu etorkizunean erabili ahal izango den ez jakitea.
- Tresneriak izan ditzakeen matxuretan edukia galtzeko arriskua.

## Zer da paper elektronikoa eta zer da E-Ink?

Paper elektronikoa, ingelesez *e-paper* ere esaten zaiona, pantaila bidez informazioa erakusteko teknologia bat da, paperez eta tintaz egindako testuen antzeko inpresioa sortzen duena begibistarentzat. Izpi katodikoetako pantailak eta kristal likidoetakoak ez bezala, teknologia horrek ez du erakusten edukia argitzen diren pixelen bidez. Paper elektronikoak, ohiko paperak bezala, kanpoko argia islatzen du, eta ez du elektrizitatearen beharrik informazioa, aldatzen ez den bitartean, ikusgai mantentzeko, eta edukia nahi adina bider aldatzea ahalbidetzen du. Pantaila horiek atseginagoak dira ohiko pantailak baino, batez ere informazioa erakusteko ez delako beharrezkoa etengabe berritzea, baina baita motela-goak ere, informazioa aldatzeko garaian.

Badira zenbait teknologia desberdin paper elektronikoa egiteko. Horien arteko bat da E-Ink teknologia.

E-Ink Corporation izeneko enpresa batek fabrikatzen duen paper elektronikoa da. Film baten egitura du eta liburu elektronikoa irakurtzeko tresnetan, sakelako telefonoetan eta beste tresna batzuetan integratzen da.

Tinta elektronikoa horren osagai nagusiak milioika mikrokapsula esferiko dira, ile baten diametrokoak gutxi gorabehera. Mikrokapsula horietako bakoitzak barruan zatiki batzuk ditu, likido garden baten barruan esekiak. Zatikien erdiak zuriak dira eta karga elektriko positiboa dute, eta beste erdiak beltzak dira eta karga elektriko negatiboa dute. Ere elektrikoa negatiboa aplikatzen denean, zatiki zuriak gora joaten dira eta zuriak behera. Puntu hori begibistarentzat zuria da. Alderantziz jokatzen bada, puntua beltza izango da begibistarentzat.

Horixe da gaur egun merkatuan aurkitzen diren irakurgailuetan erabiltzen den teknologia.

## Beste pantaila-teknologia batzuetan oinarrituriko irakurgailuak

Esan bezala, tinta elektronikoa baditu abantaila batzuk: begibistarentzat atsegina izatea eta bateria gutxi kontsumitzea. Alabaina, gaur-gaurkoz, baditu desabantailak ere: kolorerik, animaziorik eta bideorik ez onartzea bereziki.

Beste teknologia batzuek, aldiz, abantaila horiek ez dituzte, baina ezta desabantaila horiek ere. Esate baterako, ordenagailu eramangarrietan arruntak diren kristal likidozko pantailak ez dute arazorik kolorea eta mugimendua erabiltzeko, baina eguzki bizitan nekez ikusten da haietan edukia, luzaro irakurtzen aritzeko nekagarriak dira eta bateria asko kontsumitzen dute.

Bai batzuk eta bai besteak hobetzeko ikerketan badabilten eta hemen. Eta badira bi pantaila motak konbinatzen ari direnak ere. Esate baterako, Pixel Qi izeneko etxe batek agindua du 2009 urtearen bukaera alderako pantaila hibrido horietako bat.

## Liburu elektronikoen formatuak

Hauek dira formatu ohikoenetako batzuk:

- *.txt*: testu soilezkoa da. Oso fitxategi arinak dira, baina oso itxura pobrekoak.
- *.html*: web orrien formatua da. Aurrekoa baino aberatsagoa da, astunxeagoa ere bai, baina ez du paperezko liburuen aberastasuna ezta gutxiagorik ere.
- *.pdf*: Adobe etxea da formatu honen jabea. Aurrekoak baino askoz aberatsagoa da. Neurri batean *de facto* estandarra bihurtu da dokumentu aberatsak euskarri digitalean emateko, eta baita inprimategira originalak bidaltzeko ere. Ez da ondo egokitzen tamaina desberdinetako pantailetara. Irakurtzeko softwarea dohainekoa da. PDF/A deritzon formatua etorkizunean erabili ahal izatea bermatzeko sortu da. Ebook irakurgailu askok onartzen dute formatu hau.
- *.prc* edo *.mobi*: formatu honen izena Mobipocket da. Hainbat tresna mobiletan erabiltzeko baligarria da, baita Windows ordenagailuetan ere. Irakurtzeko softwarea doakoa da. Eskubideak babesteko (DRM) sistema bat ere badu. Beste formatu batzuetatik Mobipoketara inportazioak egin daitezke. Oraingoz ez du aukerarik ematen inprimatzeko edo beste formatu batzuetara esportatzeko.
- *.azw* eta *Topaz* (*.azw1* eta *.tpz*): Amazonek Kindle irakurgailuan erabiltzeko sorturiko formatuak dira, Mobipocketen oinarrituak. Gaur egun bada aplikazio bat formatu horretako liburuak iPhone telefonoetan irakurtzeko ere.
- *BbeB*: Sony etxearen formatu propioa da. Bi aldaera ditu: liburu-formatua eta hiztegi-formatua. Liburu-formatuak berriz bi aldaera ditu: *.lrx* (enkriptatua) eta *.lrf* (enkriptatu gabea).
- *EPUB*: Adobek bultzatzen duen formatu bat, PDFk pantaila desberdinetara egokitzeko duen ezintasuna gainditzeko duena.

- *tr2* eta *tr3*: eskuko hainbat tresnatan erabilgarriak dira. Ingeleseztiko Wikipedia osoa telefono batean eramatea ahalbidetzen dute.
- *FB2*: FictionBook formatua, Errusian oso erabilia.
- *PRC* eta *MOBI*: Mobipocket etxearen formatuak dira biak. PRC PalmOS sistema eragilerako da eta .mobi fitxategiak Mobipocket Reader softwarearentzat dira.
- *STK*: STAreBOOK irakurgailuaren formatua.
- *OEB-XHTML* edo *.opf*: XMLn oinarritua, .jar fitxategi bat da funtsean eta barruan XHTML, CSS eta Dublin Core edukitzen ditu.
- *eReader*: Palm Digital Media motako liburuen formatua. Badaude hainbat sistema eragiletarako bertsioak.
- *Wolf*: Jinke etxearen formatua da, berak fabrikatzen dituen HanLin eBook irakurgailuek erabiltzen dutena.
- *DjVu*: DJVU Lizardtech etxearen formatu bat da, argitalpen zientifikoetan gero eta gehiago erabiltzen dena. DjVu (frantsesezko «déjà vu») irudi digitalentzako oso formatu konprimitua da. Horregatik oso bereizmen handiko irudiak banatzeko erabiltzen da, direla eskaneaturiko dokumentuak, dokumentu jatorriz digitalak edo argazkiak. Kalitate bereko PDF dokumentu bat baino 10 bider konprimituagoa da DjVu dokumentu bat.

Bistan da horietako batzuk baztertuta geratuko direla etorkizunean.

## Liburu elektronikoen irakurgailuak

Liburu digitalak irakurtzeko tresnak dira. Batzuk tresna dedikatuak dira, hau da, liburuak irakurtzeko soilik diren tresnak, eta beste batzuek, aldiz, beste gauza batzuetarako ere balio dute, alegia, agenda elektronikoak, telefonoak, ordenagailu txikiak (netbook) dira.

Gaur egun merkatuan salgai aurkitzen diren tresna dedikatu batzuk eta beren ezaugarriak ondoko taula honetan bildurik ikus ditzakegu. DRM dioen zutabeak eskubideak

babesteko tresna bakoitzak erabiltzen duen sistema erakusten du. Eskubideen babesari buruzko xehetasun gehiago aurrerago aipatzen dira artikulu honetan.

| <i>Irakurgailua</i>  | <i>Formatuak</i>  | <i>DRM</i>                            |
|--|---|---------------------------------------|
| SONY Reader<br>Pocket Edition,<br>Touch Edition eta<br>Daily Edition | BBeB (LRF/LRX)<br>PDF<br>EPUB<br>TXT<br>RTF<br>JPG (irudiak)<br>BMP (irudiak)<br>GIF (irudiak)<br>PNG (irudiak)<br>MP3 (musika)<br>AAC (musika)           | Marlin DRM (BBeB)<br>Adobe (EPUB/PDF) |
| HanLin eBook<br>V3 eta V5  | PDF<br>TXT<br>RTF<br>EPUB<br>LIT<br>PPT<br>WOLF<br>DOC<br>CHM<br>FB2<br>PRC/MOBI<br>HTML<br>DJVU<br>MP3<br>TIFF<br>JPG<br>GIF<br>BMP<br>PNG<br>RAR<br>ZIP | Wolf<br>Adobe (EPUB/PDF)              |
| iRex Iliad eta<br>iRex Digital Reader 1000                           | PDF<br>HTML<br>TXT<br>JPG<br>BMP<br>PNG<br>PRC/MOBI<br>DJVU   | Mobipocket                            |

|                               |   |               |
|-------------------------------|---|---------------|
| Kindle 2 eta<br>Kindle DX     | AZW<br>Topaz (.tpz/.azw1)<br>PRC/MOBI (DRM gabe)<br>TXT<br>MP3  | AZW eta Topaz |
| Bookeen<br>Cybook Opus, Gen 3 | OEB-XHTML<br>TXT<br>HTML<br>PDF (DRM gabe)<br>PRC/MOBI<br>JPG (irudiak)<br>GIF (irudiak)<br>PNG (irudiak)<br>MP3 (musika) | Mobipocket    |

## Liburu elektronikoak irakurtzeko softwarea

### 1) *Wolf formaturako softwarea*

Wolf fitxategiak Wolf Printer softwareaz sor daitezke. Hori Windowserako inprimatzeko driver bat da. Word, Excel eta PowerPointen menuetan agertzen da. Hor klik egiten denean Wolf formatuko dokumentua sortzen da.

Inprimagailuen zerrendan ere agertzen da Wolf Printer, beraz hainbat formatutako fitxategiak bihur daitezke Wolf formatuko.

Bada beste software bat Wolf Maker izenekoa Wolf formatuko fitxategiak sortzeko eta beste bat Wolf Browser izenekoa fitxategiak irakurtzeko, biak Windowserako.

Wolf Makerrek bihur ditzake TXT, HTML, BMP, JPG, chm, eml formatuetako fitxategiak, besteak beste.

Jinkek bere irakurgailu guztietan sartzen du Wolf Reader softwarea eta badu bertsio bat Windowserako. Gainera beste software batzuk badira Wolf formatuarekin lan egiten dutenak, hala nola Cool Reader 3 Windows eta Linuxerako.

Dokumentuak Wolf formatura aldatzeko softwareen artean honako hauek daude:

- *JAP*: PDF/DjVu fitxategiak zuzenean Wolferara aldatzen ditu.

- *LBookPrinter* eta *LBookMaker*.
- *FB2GrWol*: FB2 formatuko fitxategia Wolf formatuko bihurtzeko.
- *Cool Reader 3*.

## 2) *eBook*

Sony irakurgailuetarako softwarea. Windowsen erabiltzekoa da. Lehen Connect Reader zeritzon. Sonyk eBook Library Software erabiltzea gomendatzen du bere irakurgailuetara fitxategiak inportatzeko eta transferitzeko. Wordeko fitxategiak inporta ditzake prozesuan RTF formatuko bihurtuz. Edukiak PCan irakurtzeko ere balio du eta irakurgailua emula dezake, sortzen diren dokumentuak irakurgailuan nola ikusiko diren probatzeko.

## 3) *Adobe Digital Editions*

Adobe etxearen software hau Adobe Flashen oinarritua da. Liburu elektronikoak, egunkari digitalak eta beste argitalpen digital batzuk eskuratu, kudeatu eta irakurtzeko erabiltzen da. PDF, XHTML eta Flash formatuko edukiak onartzen ditu, DRMz babestuak barne. XHTML formatuaren barruan .epub formatukoak onartzen ditu. DRM berea du eta onartzen du hainbat ordenagailutan edo tresna eramangarritan edukiak ikustea, baimentze-prozesu sinple batez Adobe ID bat lortu ondoren.

Adobe ID bat lortu ahal izateko, aski da [www.adobe.com/cfusion/membership/index.cfm? orrira](http://www.adobe.com/cfusion/membership/index.cfm? orrira) joan eta han izena ematea. Normalean posta elektronikoko helbide bat izango da.

Edukiak tresna batetik bestera eraman ahal izateko zerbait gauza kontuan izan behar da:

Digital Editions instalatzen denean, hura lehenik eta behin Adoberen zerbitzari seguru batekin konektatzen da, zure liburuak zure makinan segurtatzeko. Alabaina, baduzu aukera zure makinari Adobe ID bat sartzea baimentzeko. Digital Editionsek ID hori edukia jaisten den zerbitzarian



gordetzen du edukiarekin batera. Zure edukia beste makina batera kopiatu nahi baduzu, aski duzu beste makina horretan ere Digital Editions instalatzea eta Adobe ID berbera sartzea. Orduan Digital Editionsek badaki beste makina hori ere zurea dela, eta batean zurea den liburua bestean ere hala dela. Horrela nahi hainbat bider pasa ditzakezu edukiak makina batetik bestera.

Eramangarritasun hori ahalbidetzeko, oso garrantzitsua da zure ordenagailuei baimena ematea. Ordenagailuei baimenik ematen ez bazaie, edukia lehenbizi jaisten duen ordenagailuan bakarrik ikusi ahal izango da.

Beti ere iritziz aldatzea posible da eta hasieran baimenik eman ez bazaio makinari, alda daiteke hori eta alderantziz. Horretarako Digital Editions-en Library menuko Authorize computer itema dago.

Gehienez sei makinari eman dakieke baimena. Halere, argitaratzaile batzuek ez dute onartzen edukia makinaz aldatzea.

#### 4) *iLiad Companion Software*

iRex Iliad tresnaren softwarea. Windows XP sistema eragilean bakarrik funtzionatzen du. Software honen bidez irakurgailua PCari konektatzen zaio, edukiak sartzeko edo hauen segurtasun-kopiak PCan egiteko.

#### 5) *Mobipocket Reader*

Mobipocket software-paketea dohainekoa da eta baditu argitaratzeko eta irakurtzeko baliabideak hainbat motatako tresnatarako: PDA, sakelako eta liburu elektronikoen irakurgailuetarako, alegia.

#### 6) *FBReader*

Liburu elektronikoa irakurtzeko softwarea da, dohainekoa eta kode irekikoa Linux sistema eragilea erabiltzen duten hainbat tresnatarako, besteak beste Google Android sistema erabiltzen duten sakelakoetarako.

### 7) *Microsoft Reader*

Microsoftek 2005ean bertan behera utzi zuen software hori.

## Eskubideak babesteko sistemak

Paperezko liburuen kasuan, eskubideen babesa ondo finkatuta dago eta euskarriak berak ere ezartzen ditu hesi batzuk eskubideak urratzea oztopatzen dutenak. Adibidez, norbaitek liburu bat erosten badu, jakina, utz diezaioke beste norbaiti irakur dezan, eta hark ez du erosiko, baina utzita daukan bitartean jabeak ere ezin du erabili. Fotokopiatzen hasten badira, berriz, alderdi batetik legearekin egingo dute topo eta bestetik erostea adinakoa edo handiagoa izango den kostu batekin. Egia da gaur egun liburu bat eskaneatzea eta OCRatzea edonoren esku dagoela, eta hori eginez gero Internet bidez zabaltzea ere guztiz erraza dela, esate baterako, musika bezala, P2P sistemen bidez.

Euskarri digitalean, ordea, kopiatzea eta pirateatzea edonoren eskutan egon daiteke, neurri bereziak hartu ezean.

Izan badira sistemak eskubideak urratzea eragozteko, eskubide digitalen kudeaketarako sistema deritzenak (DRM, ingelesezko Digital Rights Management-etik).

Izan badira eta hainbat ere badira, eta horrek konplikatu egiten ditu gauzak. Gainera hainbat babes-mota ere badira.

DRM guztien helburua eduki edo tresna digitalen erabile-ra mugatzea da, baina mugatzeko moduak hainbat dira. Adibidez, kopiatzearen aurkako babesak edukia kopiatzea eragozten du, baina DRM batek xeheki muga ditzake hainbat gauza: zenbat bider ikus daitekeen eduki jakin bat, zenbat bider kopia daitekeen, zer tresnatan erabil daitekeen, etab.

Hainbat eztabaida ere sortzen dira gai honen inguruan. Aldekoek diote kopiatzeko eragozpenak jartzea beharrezkoa dela, egileek, argitaletxeek, etab. bestela erreka joko luketelako.

Liburu elektronikoaren kasuan zehazki, merkatu normalizatu baten bila dabilzan batzuek DRMak erabiltzen dituzte, kopiatzea, inprimatzea eta partekatzea mugatzen dutenak. Gehienetan ebook bat tresna jakin batzuetan bakarrik erabiltzeko mugatzen da. Ez tresna-mota jakin batzuetan (bakarrik), baizik eta halako makina konkretu batzuetan, eta, sarri, kopiatzeak eta inprimatzeak ere mugak izaten dituzte.

DRM-en kontra daudenek hainbat argudio azaltzen dituzte:

- Liburua paperean eta formatu elektronikoan argitaratzen bada, elektronikoaren babesak ez du askotarako balio, gaur egun liburu bat eskaneatzea baino gauza errazagorik ez dagoelako. Harry Potterren eleberriak, adibidez, badabilza formatu elektronikoan sarean.
- DRM guztiak krakeatzen dira lehentxeago ala geroxeago. Adibidez Interneten aurki daitezke Microsoft Reader, Mobipocket eta abar «irekitzeko» krakak.
- Produktua babestu duen enpresa desagertzen bada, erosleak produktua erabiltzeko aukera gal dezake.
- Badira liburu elektronikoak DRMrik gabe saltzen dituztenak eta ez dirudi horregatik diru-sarrerak gutxitzen zaizkienik.
- Paperezko liburuak irakurleen eskuetan jartzeak kostu handia du. Teknologiarik esker liburu elektronikoak egiteak oso kostu txikia du. Liburuen industria tradizionalaren negozioa sistema tradizionalaren inefizientzietan oinarrituta dago. Ehuneko zenbat kargatu beharko litzateke liburu elektroniko baten kostua, paperezko liburuari ateratzen zaion etekina ateratzeko?
- Paperezko liburuak erosten duenak hura beste bati uzteko edo saltzeko eskubidea ere erosten du, baina DRMz babesturiko liburu elektronikoaren kasuan ez du horrelako eskubiderik eskuratzen.
- Internetetik doan liburu bat jaisten duenak ez du paperezko liburuaren erosiko kasu gehienetan, baina hori egiten duten gehienek Interneten jarriko ez balitz ere ez lukete paperezko liburuaren erosiko. Hala ere, Internetetik liburuak

jaisten duten gutxi batzuek, behinik behin, paperezko liburua erosi egingo dute. Galtzen diren salmentak irabazten direnak baino gutxiago diren bitartean irabazia dago. Nolanahi ere, egileak irakurle asko irabazten ditu.

- Irakurleak gutxi dira biztanleria osoari begira, baina gutxiengo horrek irakurtzen jarraituko du eta horietako gehienek paperean irakurtzen jarraituko dute.
- Liburu elektronikoen balio erantsi nagusia testua modu askotan eta gauza askotarako erabili ahal izatea da (pasarteak kopiatu aipuak egiteko, beste eduki askorekin batera indexatu bilaketa aberatsak egiteko, bila daitzkeen oharrek eta markak egin bertan, etab.). DRMek balio erantsi hori kendu egiten diote eta paperezko liburuarekiko abantailak deusezten dituzte.

Merkatuan zenbait DRM sistema daude:

### 1) *Mobipocket*

Mobipocket SA enpresa frantses bat da, Mobipocket Reader deritzon liburu elektronikoak irakurtzeko softwarearen sortzailea dena. Software-paketea dohainikakoa da eta liburu elektronikoak hainbat irakurgailutarako (telefonoak, PDAk, irakurgailu bereziak, etab.) argitaratzeko eta irakurtzeko tresnek osatzen dute. Horien artean DRM bat dago.

Argitaratzaile batek DRM horretaz babesturiko liburu elektronikoak saldu nahi baditu, bi aukera ditu: Mobipocketek berak duen eBookBase izeneko biltegi baten bidez hainbat saltokitan salgai jartzea edo bere webgune propioan salgai jartzea.

Lehenbiziko aukeran argitaratzaileak biltegiara igotzen ditu eduki enkriptatuak eta hark salmenten estatistikak eta royaltiak ematen dizkio. Bigarrenean, berriz, bere webgunean jartzen ditu edukiak, baina eBookBaseren DRM zerbitzariak eta bere webgunean jartzen duen eBookBase DRM Client programaz baliatzen da edukiak bezeroei entregatzeko garaian.

Argitaratzaileak erabakitzen du liburuaren prezioa, eta doan erabiltzen du eBookBase. Horrek saltoki afiliatuei ba-

natzen dizkie tituluak. Horiek egiten dituzte salmentak eta eBookBasek eramaten ditu salmenten kontuak. Saltokiek eBookBaseri entregatzen diote salmenten dirua eta eBookBase erabiltzeagatik ordaindu behar dutena. eBookBasek saltoki guztiek entregatu dioten salmenten dirua ordaintzen dio argitaratzaileari. Saltokiek euskarri fisiko segurutan ere sal ditzakete edukiak.

150 argitaratzailetik gora ari dira sistema hau erabiltzen: McGraw-Hill, Random House, Vivendi Universal Publishing, Elsevier Science, Oxford University Press, St Martin's Press, Time Warner / AOL, Merriam Webster, Pons, MediMedia, Larousse, Assimil, Franklin Electronics Publishers, besteak beste.

Erabiltzaileak bere tresn(et)an Mobipocket Reader instalatzen du. Interesatzen zaion liburu bat aurkitzen duenean online erosten du. Lehenbiziko aldiz liburu bat erosten duenean, kontua sortu behar du, erabiltzaile-izenarekin eta pasahitzarekin. Gero kreditu-txartelaz ordaindu eta jaitsi egiten du liburua. Erosten dituen liburu guztiak bere kontuan edukiko ditu beti, nahi baldin badu, berriz jaisteko. Irakurgailu jakin bakoitzak duen PID «matrikula»rentzat baimentzen zaio liburuaren irakurketa erabiltzaileari, eta gehienez lau irakurgailu desberdinetan erabil dezake.

## 2) *Marlin*

Erabiltzaileak, bere irakurgailuan nabigatzailea eta Merlin Client DRM Engine dituela, Interneteko denda batean liburu bat aukeratzen du.

Lizentzia bat sortzen du zerbitzariak erabiltzailearentzat eta honek edukia jasotzen du. Erabiltzaileak irakurtzen has-teko eskaria egiten duenean, lizentziari esker, desenkriptatu egiten zaio edukia.

Hainbat motatako negozio-ereduak onartzen ditu sistema honek: erosketa, harpidetza (denbora baterako, publizitatea onartzearen truke, erabiltzaile jakin batentzat, etab.), alokairua, mailegua, oparia, eta beste hainbat.

Marlin DRM sisteman erabiltzaileak, tresnak eta tresna-multzoak (adibidez etxe batean izan daitezkeenak: DVD, bideojokoen kontsola, etab.) eta erabilera-lizentziak kudeatzen dira. Marlin erabiltzeko gai diren Interneteko dendek estekak sortzen dituzte horien artean. Marlinen lehen egiaz-tapen modua erabiltzailearena da. Tresna bat erabiltzaile baten bitartez lizentzia bati lotzen bazaio, tresnak eskubidea du lizentziak gobernatzeko duen edukia erabiltzeko.

Erabiltzaile batek Marlin DRM erabiltzeko gai den tresna batez eskubideak baliaitu nahi dituenean, programa batek egiaztatzen du ea tresna horrek erabiltzaile horri atxikitako eskubiderik baduen. Beste gauza batzuk ere egiazta ditzake, adibidez zenbat bider erabili duen edukia erabiltzaile horrek, lizentziak erabileren kopurua mugatzen duen kasuetan. Dena ondo baldin badago, edukia desencriptatzen da eta erabiltzaileak erabil dezake.

Sonyk PlayStationetan erabiltzen du eta Telefonicak mobiletara edukiak (ordaintzekoak, publizitatea, etab.) bidaltzeko. Philips, Panasonic eta Samsung ere sistema honen atzean daude.

### *3) Adobe ADEPT (Adobe Digital Experience Protection Technology)*

Adobe Digital Editions irakurketa-softwarearentzako PDF eta EPUB formatuko edukiak babesteko sistema da.

Saltzaileak ipin ditzake edukiak banaketarako zerbitzari batzuetan edo erabil dezake bere zerbitzari propioa Adobe Content Server 4 softwarearekin.

Adobe InDesign softwarea erabiliz, zuzenean sortzen dira Adobe Digital Editions irakurketa-softwareaz irakur litezkeen PDF eta EPUB formatuetako edukiak.

Orduan, argitalpen digital horiek igo ditzake argitaratzaileak ADEPTera, baimenak esleitu eta bere webgunean esteka seguruak jarri eduki horietara, bezeroek jaits ditzaten.

Argitaratzaileak ADEPTen webgunean kontu bat du, katalogoa, lizentziak, etab. kudeatzeko. Baimenek muga dezake-

te kopiatzea, inprimatzea eta iraungitze-data, besteak beste. Edukia igotzen denean ADEPTek babestu egiten du. Eta ADEPTek onartzen ditu bai edukiak salerosteko bai mailegatzeko lizentziak.

#### 4) *Axmedis*

Egileen, argitaratzaileen eta erabiltzaileen interes sarritan kontrajarriak bateragarri bihurtzeko eta teknologia aldetik gauzak errazteko asmoz, Europako hainbat enpresa eta erakundek partzuergo bat sortu eta Axmedis izeneko egitasmo bat garatu dute Europako Batzordearen babespean. Horien artean badira eduki digitalen ekoizleak, artxibategiak, banatzaileak eta ikertzaileak, hala nola: BBC, Fraunhofer, Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatea, Hewlett Packard, Espainiako Sociedad Digital de Autores y Editores, Telecom Italia, Leeds-eko Unibertsitatea eta Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa, besteak beste.

Axmedisek sorturiko tresnen bidez eduki multimediak ekoizteko, banatzeko eta babesteko prozesu guztiak kudeatzen dira. Horien artean dago Axmedis DRM.

Axmedis hainbat produktu-mota eta kanaletan eduki multimediak jartzeko eta kudeatzeko erabil daiteke:

- Interneten, dela bezero/zerbitzari sisteman, dela P2P sareetan.
- Satellite bidezko nahiz lurreko irrati-telebista sistemetan.
- *Video on demand* edo eskatu ahalako bideo-sistemetan.
- Mobil eta PDA bidezko banaketan.
- Telebista interaktiboko sistemetan eta hezkuntzako edukien banaketan.
- Euskarri fisikoetan: CD, DVD, USB, etab.
- B2B eta B2C banaketetan.

Axmedis DRMaren bidez:

- Edozein eduki-mota babesten da: bideo, audio, dokumentu, joko, etab. Horien guztien konbinazioak ere bai.
- Eskubideen ustiaketa kontrolatzen da.

- Erabileraren informazioa biltzen da.
- Hainbat negozio-eredu kudeatzen dira.

Kudeaketa hori guztia Axmedis zerbitzarien bidez egiten da. Eduki bati DRM ezartzeko, edukia argitaratu nahi duenak Axmedis Editor izeneko tresna erabiltzen du eta edukiaren kontsumitzaileak Axmedis Player izeneko tresna.

### 5) AZW

Amazonen Kindle irakurgailuak erabiltzen duen formatua da. Edonork bidal ditzake dokumentuak Amazonera, AZW formatuan jartzeko, eta posta elektronikoz jasoko ditu bihurtuta. Halere, dokumentu horiek ez dira babestuta egongo. Babestu gabeko fitxategi horiei alda dakieke luzapena eta .prc edo .mobi jarri. Orduan Mobipocket Reader bidez irakur daitezke. DRMz babesturiko fitxategiak ez daitezke irakur, ordea, Mobipocket Reader bidez.

Kindleren DRM hori irakurgailuaren IDari atxikita gelditzen da eta Amazoneko kontu batean erregistratua tresna erosten denean. Zenbait tresna egon daitezke kontu berari atxikita, beraz liburu elektroniko bat erosten denean, irakur daiteke tresna horietako edozeinetan. Familia batek, esate baterako, sei tresna eduki ditzake erregistraturik, liburu bera partekatuz. Tresna bat galtzen bada edo lapurtzen edo saltzen badute, baja eman dakioke web bidez. Oparitarako tresna bat erosten bada ere baja eman dakioke.

## Edukien merkatua

Ikus ditzagun lehenik zein ziren merkatu honen zertzelada nagusiak 2008. urtearen bukaeran.

Amazonen Kindle, Sony Reader eta iPhone sakelakorako Stanza softwarearen zabalkundeaz ezagutzen ziren datuetan oinarriturik, pentsa liteke milioi bat pertsonak zituztela munduan liburu elektronikoak irakurtzeko tresnak.

Kopuru horren azpian dauden datu batzuk hauek dira:



- 2008an 378.000 Kindle saldu ziren.
- Amazonentzat eta Sonyrentzat pantailak fabrikatzen dituen Prime View enpresak 120.000 pantaila ekoitzi zituen hileko, horietatik %60 Kindleetarako, eta Stanza softwarea 500.000 bider jaitsi zen.

Edukien aldetik, kontsumitzailearen ikuspegitik begiratu-ta, bi motatakoak daude: erosi beharrekoak eta doan jaitz daitezkeenak. Eskubideak iraungiak dituzten liburu asko aurki daitezke sarean. Gutenberg Proiektuak, adibidez, horrelako 27.000 titulu eskaintzen ditu doan. Gune horretatik 3.000.000 liburu jaisten dira hilero.

Saltzen diren liburu elektronikoei dagokienez, esaten dute 2008an gehienez ere 700.000.000 euroko salmentak izango zirela. Salmenta-kopurua, berriz, 2008. urtean %55 igo dela diote eta azkeneko hilabeteetako hazkundearen errit-moa urteko %77koa izan dela.

## Liburu elektronikoen banaketa eta salmenta

Eredu bat baino gehiago daude liburu elektronikoa banatzeko eta saltzeko:

1) Dohaineko banaketa. Gutenberg egitasmoa da eredu honen adibide bat. 1971n abiatu zen eta gaur egun boluntario multzo handi batek mantentzen du. Une honetan 100.000 titulutik gora eskaintzen dituzte, lankidetzan diharduten webgune guztien artean. Eskubideak iraungiak dituzten tituluak dira, jakina.

2) Autobanaketa. Tituluak sortzen dituenak berak bere webgune batean saltzen ditu.

3) Egileari bere liburuak banatzeko aukera ematen dioten webguneak. Era honetakoak dira, esate baterako, lulu.com eta bubock.com.

4) Banaketa-plataformak. Argitaletxe askoren banatzaileak dira.

Hona hemen liburu elektronikoen saltoki garrantzitsuetako batzuk:

- *Amazon.com* ([www.amazon.com](http://www.amazon.com))

Amazon.com, Inc. AEBetako Washington estatuko Seattle-ko enpresa da. Merkataritza elektronikoan dihardu eta arlo horretan munduko handiena da. Informatikaren mundutik zetorren Jeff Bezos-ek fundatu zuen 1994an. Hasieran liburu-denda izan zen, baina laster hasi zen bideoak, musika, softwarea, bideojokoak, tresna elektronikoak, altzariak, jostailuak, etab. saltzen. AEBetatik kanpora webguneak ditu Kanadan, Erresuma Batuan, Alemanian, Frantzian, Txinan eta Japonian.

2007ko azaroan, Amazonek liburu elektronikoen Kindle irakurgailua kaleratu zuen. Tresna horrek bere formatua (AZW) eta babestu gabeko Mobipocket formatuak irakurzen ditu (prc, mobi).

Amazonek ez du saltzen Kindle AEBetatik kanpora (2009-01-12), zeren eta liburuak kargatzeko erabiltzen duen sakelako telefonoen Whispernet sareak AEBetan bakarrik funtzionatzen du. Erresuma Batura eta Europako beste herrialde batzuetara tresna horren erabilera zabaltzeko saioek huts egin dute, telefono-konpainiekin ados jartzeko zailtasunengatik.

Amazonek posta elektronikoan oinarrituriko zerbitzu bat eskaintzen du HTML, DOC, PDF, JPEG, GIF, PNG, eta BMP dokumentuak AZW formatuko bihurtzeko. MP3 formatuko soinuak eta audioliburuak entzuteko aukera ere ematen du tresna horrek. AZW formatukoak ez diren fitxategi horiek sartzeko USB portua edo SD txartelak erabili behar dira.

Liburuak erosteaz aparte (221.724 titulu), egunkari (29), aldizkari (21) eta blogetarako (1.192) harpidetzak ere eros daitezke.

- *Fictionwise, Inc.* ([www.fictionwise.com](http://www.fictionwise.com))

Liburu elektronikoen saltzaile independenterik handienetakoa AEBetan. 2008. urtean guztira 1,5 milioi ale saldu dituela kalkulatu dute. Zenbait formatu desberdinetako liburu elektronikoak saltzen dituzte, bai enkriptatuak eta baita enkriptatu gabeak ere.

Fictionwise.com webgunea 2000. urteko ekainaren 5ean jarri zuten.

Enpresa-burua Steve Pendergrast informatikaria da eta ibilbide luzea egina dauka lanbide horretan enpresa garrantzitsutan (ATT, Novell). Webguneak garatzen zituen Mindwise Media izeneko enpresa baten barruan sortu zen proiektua, baina arrakasta izan zuenean, aparteko enpresa gisa eratu zuten Fictionwise. Jabeak Steve eta Scott Pendergrast anaiak dira.

2008. urteko urtarrilaren 1ean, Fictionwisek Motricity, Inc. enpresaren eReader izeneko negozio-unitatea erosi zuen. eReader liburu elektronikoen saltzaile zaharrenetakoa zen. Hasieran Peanut Press zuen izena, eta gero Palm, Inc. enpresak eskuratu zuenean, Palm Reader izenaz berrizendatu zuten. Fictionwise ia bikoiztu egin zen tamainaz eReader erosi zuenean.

Hori egin ostean, Fictionwise berehala hasi zen eReader etxearen eBook formatua beste plataforma batzuetarako prestatzen (Symbian, Mac OS X, iPhone eta iPod Touch-entzat). eReader softwarearen Pro bertsioa dohainikako bihurtu zuten eta eReader.com denda birtuala mobiletarako egokitu zuten. 2008ko abenduan Fictionwisek eReader formatuaren lizentzia eman zion Lexcycleri, iPhonerako Stanza irakurketa-softwarean integratzeko. Gero BlackBerryrako prestatu zuen bere formatua. Android, Linux eta E-Ink-etarako ere ari da moldatzen eReader.

Fictionwise.com-ek liburu elektronikoa saltzen dituzten beste webgune batzuk ere kudeatzen ditu, hala nola LCD pantaila duen eBookwise-1150 irakurgailurako liburu elektronikoa saltzen dituen eta liburutegietarako soluzio bat (eBooks for Libraries) saltzen duen Libwise.com.

- *CyberRead, Inc.* ([www.cyberread.com](http://www.cyberread.com))

1999an sorturiko enpresa eta 2008an beste jabe batek erositakoa. Kaliforniako Marina del Rey-n du egoitza. Liburu elektronikoa saltzen eta argitaratzen ditu. Hainbat forma-

tutako liburu elektronikoak saltzen ditu, besteak beste Mobipocket, Microsoft Reader, Adobe Acrobat eta Microsoft Word formatuetakoak (13 formatu guztira). 55.000 titulu baino gehiago dituzte, hasi eleberrietatik eta liburu teknikoetarainokoak.

- *Numilog* ([www.numilog.com](http://www.numilog.com))

1999an sorturiko enpresa frantsesa. Liburu elektronikoe-tan eta audioliburuetan espezializatua. 60.000 titulu inguru dituzte. Liburu elektronikoak saldu ez ezik alokatu ere egi-ten dituzte ordubeterako, egun baterako, etab.

Pdf, epub eta prc formatuetako liburuak dituzte. Argitale-txe askoren liburuak saltzen dituzte (185). Horien artean frantsesezko argitaletxe handienak daude: Dunod, Galli-mard, Eyrolles, Fayard, Flammarion, Hachette, Masson, PUF, etab. Ingelesezko argitaletxe batzuenak ere badituzte: Springer, Oxford University Press, etab.

- *Franklin Electronic Publishers* ([www.franklin.com](http://www.franklin.com))

AEBetako New Jersey estatuko Burlingtongo enpresa, 1981ean sortua.

Garai batean Franklin Computer Corporation zuen izena eta ordenagailuak fabrikatzen zituen (Appleren klonak eta beste batzuk), eta gero eskuko tresna informatikoak (hiztegi elektronikoak, itzultzeko tresnak, bibliak, etab.). Rex mar-kako PDAk ere egiten zituen, baina produktu hori Xircom etxeari saldu zion.

Hizkuntzak ikasteko tresna elektronikoetarako baliabideak sortzen, argitaratzen eta banatzen dago espezializatua. Ehun-ka tituluko katalogo propioa du: hiztegi elebakarrak, elebidu-nak, entziklopediak, hezkuntzarako beste argitalpen batzuk...

Gainera berak zuzenean edo partaideen bidez 52.000 titu-lutik gora saltzen ditu formatu elektronikoan. Partaide ho-rien artekoak dira besteak beste: Merriam-Webster, Oxford University Press, Bertelsmann, Encyclopedia Britannica, Har-perCollins, Larousse, Langenscheidt, The Princeton Review eta Zondervan.

- *Kreutzfeldt Electronic Publishing* ([www.med4mobile.de](http://www.med4mobile.de))

Franklin Electronic Publishing da enpresa honen jabea. Denda hau medikuntzako liburuetan dago espezializatua. Ingeleseko eta alemanezko tituluak dituzte salgai. Liburu konbentzionalak liburu elektroniko bihurtzen dituzte.

Hamarkada bat baino gehiago daramate lan hori egiten Alemania, AEB, Erresuma Batua, Frantzia eta Herbehereetako argitaletxe handientzat.

EPUB eta Mobipocket formatuetan daude espezializaturik.

- *eBook.nl* ([www.eBook.nl](http://www.eBook.nl))

Herbehereetako liburu elektronikoen denda nagusia, 2000. urtean sortua. Niderlanderazko liburuak saltzen ditu nagusiki eta ingelesezko batzuk ere bai.

- *beam-eBooks.de* ([www.beam-ebooks.de](http://www.beam-ebooks.de))

Alemanezko liburu elektronikoak saltzen dituzte. Mobipocket Reader irakurgailuarentzako formatuetakoak dira liburuok.

- *Bookeen* ([www.ubibooks.com](http://www.ubibooks.com))

23.717 titulu dituzte salgai, 6 hizkuntzatan, 75 argitaletxe-takoak (2009-01-09). Editorial horietako zazpirenak dira titulu horien guztien %66. Hona jarraian editorialen izenak, horietako bakoitzak salgai duen titulu-kopurua aldamenean parentesi artean duela: Taylor & Francis (2.855), Simon & Schuster (2.500), Random House (2.798), Harper Collins (1.479), Fictionwise (2.131), EbooksLib (1.994) eta Digireads (1.964).

Real Academia Española de la Lengua titulu bat du hor (eta beste zenbait lekutan) salgai: *Diccionario de la Lengua Española*.

- *eBookMall.com* ([www.ebookmall.com](http://www.ebookmall.com))

Liburu elektronikoak argitaratzen eta saltzen dituzte 2000. urteko uztailaren 4az geroztik. Gaur egun 210.000 titulu dituzte.

Autoreei hainbat zerbitzu eskaintzen dizkiete, tituluak liburu elektronikoaren formatuan jartzeko, azalak diseinatze-ko, sustatzeko, etab.

Hainbat formatu desberdinetan eskaintzen dituzte liburu elektronikoak: Mobipocket, Microsoft Reader, Palm Reader, html, txt, MSWord, etab.

- *ElectricStory.com* ([www.electricstory.com](http://www.electricstory.com))

2000ko otsailean sorturiko enpresa, liburu elektronikoaren teknologian espezializatua, eta, batez ere, zientzia-fikzioz-ko, fantasiako eta beldurrezko obrak saltzen dituena. Euren argitaratuak nahiz besterenak saltzen dituzte. Liburu elektronikoak sortzeko softwarea ere egiten dute.

- *EONS productions* ([www.eons.fr](http://www.eons.fr))

Frantziako Nord-Pas-de-Calais departamenduko Caëstre herrian dagoen editoriala. Paperezko liburuak nahiz digitalak argitaratzen ditu eta Interneten saltzen ditu, bere webgunean eta beste batzuenetan (Fnac, etab.). Katalogoko titulu guztiak eskura daitezke euskarri elektronikoan, pdf eta Mobipocket formatuetan.

- *Seattle Book Company* ([www.seattlebook.com](http://www.seattlebook.com))

1996. urtean hasi zen Seattle Book Company paperezko liburuak eta liburu elektronikoak argitaratzen eta saltzen. 7.000 titulu editatu dituzte eta 50.000 titulutik gora hainbat formatu digitaletan jarri dituzte. Edizio-zerbitzuak eskaintzen dituzte.

- *Tradebit.com* ([www.tradebit.com/ebooks.php](http://www.tradebit.com/ebooks.php))

Eduki digitalak (soinuak, argazkiak, softwarea, liburu elektronikoak, audioliburuak, musika) saltzeko plataforma bat da eta ez argitaletxe bat. Hau da, bestek ekoiztako edukiak saltzen dituzte.

Edonork jar ditzake salgai norberak sorturiko eduki digitalak (eskuliburuak, apunteak eta abar) plataforma horren bidez.

Bi egoitza dituzte: bata AEBetako Delaware estatuko Wilmingtonen eta bestea Alemaniako Frankfurtan.

Tradebit Inc. enpresa 2004an sortu zen, eta Alemaniako Tradebit AG 2006an.

- *Libri.de* ([www.libri.de](http://www.libri.de))

Libri GmbH Alemaniako handizkako liburu-saltzailea da. Alemaniako eta inguruko herrialdeetako 4.000 liburu-dendaren hornitzailea da eta alemanezko liburuak mundu guztira esportatzen ditu. Guztira 2 milioi tituluko katalogoa du eta biltegi horietako 400.000 ditu. Liburu elektronikoen 40.000 titulu ditu salgai.

Sonyren eReader eta Iliad irakurgailuak saltzen ditu. Alemanezko liburu elektronikoez gain, frantsesezko, espainierazko (espainierazko eta espainierara itzultitako klasikoak), italiarazko, nederlandarazko eta poloniarazkoak ere saltzen ditu.

- *Diesel eBooks & eBook Eros* ([www.diesel-ebooks.com](http://www.diesel-ebooks.com); [www.ebook-eros.com](http://www.ebook-eros.com))

AEBetako Virginia estatuko Richmondeko enpresa. 175.000 titulu ehunka argitaletxerenak dituzte salgai, besteak beste honako hauenak: Harper Collins, Simon & Schuster, John Wiley & Sons, McGraw-Hill, Harlequin eta Random House. Formatu hauek dituzte liburu elektronikoak: Microsoft Reader, Mobipocket, Adobe Reader eta Palm/eReader.

- *Laurie J Books* ([www.lauriejbooks.com](http://www.lauriejbooks.com))

1999an sorturiko enpresa, liburu berriak, bigarren eskuak eta audioliburuak webean saltzeko. Duela urte batzuk paperezko liburuak eta audioliburuak beste webgune batean saltzea erabaki zuten. Orain liburu elektronikoak saltzen dituzte webgune honetan. 100.000 titulu inguru dituzte salgai Mobipocket formatuan.

- *MobileMosaic eBookStore* ([www.mobilemosaic.co.za](http://www.mobilemosaic.co.za))

Mobipocket formatuko liburuak saltzen dituen Hegoafrikako enpresa.

- *EBooksAboutEverything* ([www.eBooksAboutEverything.com](http://www.eBooksAboutEverything.com))

PDF, Microsoft LIT, Palm PDB, eta Mobipocket PRC formatuetako liburu elektronikoak saltzen dituzte.

- *ebooks.com* ([www.ebooks.com](http://www.ebooks.com))

130.000 titulu hainbat argitaletxerenak (McGraw-Hill, Harper Collins, Penguin, etab.).

Microsoft Reader, Adobe Digital Editions eta Mobipocket formatuetako liburuak saltzen dituzte.

- *Leer-e* (<http://tienda.leer-e.es>)

Iruñeko enpresa. Hainbat irakurgailu ([www.apoloxxi.com](http://www.apoloxxi.com) webgunean) eta hainbat argitaletxetako liburuak saltzen dituzte.

- *Books On Board* ([www.booksonboard.com](http://www.booksonboard.com))


280.000 titulutik gora eskaintzen dituzte hainbat argitaletxetakoak, Adobe Digital Editions formatuan eta Adobe EPUB formatuan. Adobe Digital Editions softwareaz irakurtzeko, eta Mobipocket, Microsoft Reader eta Palm/eReader formatuetan. Audioliburuak ere saltzen dituzte.

Liburu elektronikoak saltzen dituen beste zenbait webgune:

- *eBook Crescent* ([www.ebookcrescent.com](http://www.ebookcrescent.com))
- *BookCode, Corp.* ([www.BookCode.net](http://www.BookCode.net))
- *Elittera AS* ([www.digitalbok.no](http://www.digitalbok.no))
- *eReader Outfitters* ([www.eReaderOutfitters.com](http://www.eReaderOutfitters.com))
- *Libresco* ([www.iliadreader.co.uk](http://www.iliadreader.co.uk))
- *America First Books* ([www.americafirstbooks.com](http://www.americafirstbooks.com))
- *eBook Shop CC* ([www.ebookshop.co.za](http://www.ebookshop.co.za))
- *Les Echos* ([www.lesechos.fr](http://www.lesechos.fr))
- *Unlock A Book Publishers, LLC* ([www.unlockabook.com](http://www.unlockabook.com))
- *selexyz* ([www.selexyz.nl](http://www.selexyz.nl))
- *21 Editions Retail* ([www.m21editions.com](http://www.m21editions.com))
- *eBook Fascination* ([www.ebookfascination.com](http://www.ebookfascination.com))
- *NovaLibris* ([www.novalibris.com](http://www.novalibris.com))



- *ThoBooks* ([www.books.tho-server.de](http://www.books.tho-server.de))
- *Apetonic* ([www.apetonic.com](http://www.apetonic.com))
- *Infomedia UK Ltd* ([www.adultebookshop.com](http://www.adultebookshop.com))
- *A&R Medien* ([www.ebook-deutsch.com](http://www.ebook-deutsch.com))
- *Importantia Books & Media* ([www.boekhandel.org](http://www.boekhandel.org))
- *chapitre.com* ([www.chapitre.com](http://www.chapitre.com))
- *Astak Inc.* ([www.mobiebook.com](http://www.mobiebook.com))
- *The-Plot-Thickens* ([www.the-plot-thickens.com](http://www.the-plot-thickens.com))
- *Higashimura Japan* ([www.east-village.biz](http://www.east-village.biz))
- *Prelum Uitgevers* ([www.prelum.nl](http://www.prelum.nl))
- *HixBooks* ([www.hixbooks.at](http://www.hixbooks.at))
- *Hard Shell Word Factory* ([www.hardshell.com](http://www.hardshell.com))
- *Baen Book* ([www.baen.com](http://www.baen.com))
- *Grupo Edaf* ([www.edaf.net/todoebook.htm](http://www.edaf.net/todoebook.htm))



# Liburuaren munduko sektoreak aldaketaren aurrean

Liburua, Gutenbergek XV. mendean inprenta asmatu zue-  
netik paperezko euskarri inprimatuan ezagutu duguna, uni-  
bertso digitalera ari da sartzen XXI. mende honen hasieran.  
Liburu elektronikoak gure artean zabaltzeko beharko duen  
abiadura gorabehera, badirudi aditu guztiak gauza batean  
ados daudela: liburu elektronikoaren agerpen eta hedapenak  
ez du atzera egingo. Berrikuntza teknologikoen, oraingoan  
ere, gizarte eta kultura alorreko aldaketa orokorragoak eragin-  
go dituzte liburuaren munduan ere. Baina zer aldatuko da be-  
netan liburuaren inguruan? Nork pairatuko du gehien eredu  
aldaketa? Nola antolatuko dira hemendik aurrera liburugin-  
tzaren alorrean lanean diharduten sektoreak? Euskarazko li-  
buruak zer etorkizun izango du oihan digitalean?

Zenbaki honetako lehen bi artikuluen bitartez sarrera oro-  
kor eta gainbegiratzailea eskaini diogu liburu elektronikoaren  
gaiari. Sarrera orokor horrekin batera, dena den, liburugin-  
tzaren esparruan lan egiten dutenei hitza ematea ezinbesteko-  
tzat jo dugu. Ondoren, gaiari buruzko ikuspuntu ezberdinak  
jaso eta biltze aldera, honako iritzi bilketa hau osatu dugu.


Asmo horrekin, ohiko liburuaren munduan jarduten duten  
sektore klasikoengana jo dugu iritzi eske, esparrua barrutik

ezagutzen dutenek aurrerantzean gertatuko diren aldaketei buruz egiten dituzten aurreikuspen eta balorazioak ezagutu nahian.

Galdeketa liburuaren esparruko lau sektore garrantzitsuri bidali diegu: argitaletxeak, liburu dendak, idazleak eta banatzaileak. Argi dezagun, batetik, iritzia eskatzera sektore horiek ordezkatzan dituzten elkarteengana jo dugula:

- Editoreen aldetik: Euskal Editoreen Elkarte eta Gremio de Editores de Euskadi - Euskadiko Editoreen Elkarte.
- Liburu denden aldetik: Gipuzkoako Liburu Denden Elkarte.
- Idazleen aldetik: Euskal Idazleen Elkarte.
- Banatzaileen aldetik: Cámara del Libro de Euskadi - Euskadiko Liburu Ganbara.

Bestalde, sektore bakoitzak berezko ezaugarriak dituela aintzat hartuta, ez dugu galdeketa bakarra prestatu guztientzat; aitzitik, sektore bakoitzari galdeketa egokitua prestatu diogu, bakoitzak bizi eta ezagutzen duen errealitatetik zuzenago erantzun ahal izan dezan, eta, horrela, irakurlea problematikaren ñabardura nagusietara hurbildu ahal izan dadin.¶



## EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA

Enpresa teknologikoak indar handiz ari dira sartzen liburugintzaren esparruan. Zer ondorio dakar horrek orain arte liburu ekoizpenaz arduratu diren argitaletxeentzat?

Zalantzarik gabe, liburuaren digitalizazioari buruzkoa da argitaletxeok hartu beharko dugun erabaki estrategikoetariko bat. Nolanahi ere, eta aurrera baino lehen, bada alde zehatzetik argi uztea komeni den hainbat kontu:

I. Formatu digitalak errealitate dira, honez gero, baina prozesu luze, bizkor eta konplexu baten hastapenetan baizik ez gaude, bai edukien formatuei dagokienez, baita haiek irakurtzeko erabiliko diren euskarriei dagokienez ere. Iragarle ugari dabil hor barrena, baina zehatz-mehatz zer-nolako etorkizunerantz goazen ez dago, gaurkoz, argi esaterik.

II. Bi ikuspegi edo estrategia bereiztea komeni da kontu honetan, nahiz eta, funtsean, norabide bertsuan doazen bi bide izan: alor teknologikotik datozen ekimenetatik (Google-Books, adibide ezagunena aipatzearren) planteatzen ari dena (hasiera batean Estatu Batuetan, gero Europan ere) egile eskubiderik ez duten edota haien jabetza argi zehazterik ez dagoen liburuak digitalizatu eta *on line* erabiltzailearen «eskura jartzeko» sistema bat baizik ez da —oraingoz eta publikoki aitortutakoaren arabera bederen—. Besterik da, ordea, editoreok, aurrerantzean, gure liburuak merkaturatzeko garaian euskarri digitalari emango diogun —edo ez diogun— sarbideaz egin beharreko gogoeta estrategikoa, argitaletxearen negozio eredua zeharo baldintzatuko duena.

III. Digitalizazio prozesuaren gidaritzaren ardura liburugintzaren sektoreari eta, nagusiki, editoreoi dagokigu, bidean beharrezko —seguruenera ezinbesteko— gerta daitezkeen

lankidetza eta loturak kontuan izanik beti ere. Funtsezkoa da, beraz, liburugintzaren sektoreak prozesu horretan jarrera aktiboa erakustea, erabaki estrategikoak liburugintzaren sektorean dihardutenek har ditzaten, eta ez sektore horretatik kanpo (eta, nahita edo nahi gabe, aurka) dauden bestelako sektore teknologiko-komertzialak. Bide horretan, hiru zutabe nagusi ikusten ditugu, arreta osoz indartu beharrekoak:

- a. Edizio digitalean, paperezkoan bezala, jabetza intelektualaren zaintzak izan behar du oinarri nagusia, berau baita liburugintzaren balio-katearen euskarri nagusia. Hein berean, liburuaren sorkuntzan eta edizioan parte hartzen duten eragile guztien jabetza zehatzak zaindu behar dira.
- b. Liburu elektronikoaren prezioen politika zehazteak editoreen eginkizuna izan behar du, paperezko libururako Espainiako Estatuan indarrean dagoen prezio finkoaren irizpidearen arabera.
- c. Liburuaren balio-kate osoaren trinkotasuna aro digitalean ere bermatze aldera, edizioarekin guztiz lotuta dagoen liburugintzaren sare komertzialak (liburu-dendak, banatzaileak...) leku nahikorik izan behar du datozen prozesu berrietan.

IV. Liburugintzaren baitako nahiz kanpoko ahotsetan, adostasun zabala dago, gurean zein nazioarteko foroetan, liburuaren euskarri ezberdinen arteko bizikidetzaz. Hori horrela izan dadin, ordea, bada ezinbesteko baldintza bat, hasiera-hasieratik kontuan hartu beharrekoa: liburuaren balio-katearen baitan, eta ez kanpoan, kokatu behar dira erabakigune estrategiko nagusiak, eta, horretarako, bi baldintza bete beharko ditu, gure ustez, aro digitalera eramango gaituen prozesuak, liburugintzari dagokionez:

- a. Lege-araudi nahikoez babestea, alor digitalean ere, liburugintzaren balio-katean parte hartzen duten sortzaile eta eragileen jabetza intelektualaren eskubideak eta lehia-kortasun industrial zein komertzialaren leialtasuna.

- b. Sektoreak, oro har, aitzindaritzza bereganatu behar du, ez soilik —eta ez nagusiki— lege-araudien babesari esker, baizik eta indarrak batuz, lankidetzaz sistema eraginkorrak mamituz eta kultur industria den aldetik dagozkion helburu eta estrategiak finkatuz.

Liburu elektronikoaren agerpenak zertan aldatzen ditu editorearen funtzio klasikoak (hau da, liburuak aurkitu, hautatu, zabaldu eta sustatzea)? Nola eragiten die produktuaren kalitateari eta sinesgarritasunari?

Digitalizazio prozesuak aldaketa sakonak ekarriko ditu argitalpen prozesuan. Liburu digitalak edukien kontzepzio berria dakar, kasu askotan, eta horrek ekoizpen prozesuan ere aldaketak eragiten ditu. Lehenik eta behin, editoreak mundu digitala ondo ezagutu eta ulertu beharko du, eta horretarako funtsezkoak izango dira etengabeko prestakuntza eta birgaitzea, sakoneko —eta, hemendik aurrera, amaierarik gabeko— berrikuntza baten ikuspegian.

Funtzio batzuek, berez, nahiko gertutik jarraituko diote paperezko edizioak finkaturiko moldeari (testuen aukeraketa eta zaintzari dagozkienak, batez ere), beste batzuk, ordea, ekoizpen digitalaren ikuspegiak osatu edota sortu beharko dira (liburuaren itxurari dagozkionak, bereziki). Zabalakunde eta sustapenari dagokienez, berriz, logika guztiz berezkoa duen unibertso baten aurrean gaude; beraz, zeharo indartu beharko da logika horren baitako bideen erabilera (web guneak, sare sozialak, web 2.0 baliabideak...), baina ez soilik liburu digitalari begira, edozein euskarritako liburu eta edukiei begira baizik.

Kalitateari eta, beraz, sinesgarritasunari dagokienez, paperezko liburugintzan gertatzen denaren bidetik etorriko dira urak aurrerantzean ere: kalitate eta sinesgarritasunaren giltza sortzailearen eta editorearen konpromisoaren baitako balio bat da, eta konpromiso horren eragingarritasunaren araberakoak izango dira emaitzak, unibertso digitalean ere.

## Nola antolatu beharko da argitalgintza paperezko edizioaren eta edizio digitalaren artean? Nola integra daitezke bi edizio motak?

Bizikidetzeta hori gauzatzen den kasuetan (euskarrien arteko bizikidetzan tinkoen sinisten dugunok ere ez baitugu automatiko eta ezinbestekotzat jotzen bizikidetzeta hori kasu guztietan), bi estrategia aurreikus daitezke, gaur gauden puntu honetatik (futuurologia arriskutsuetan erori gabe): al-dibereko edizioa edota ondoz ondokoa (kasu honetan, suposatzekoa da paperezkoa izango litzatekeela lehendabizikoa, eta elektronikoa hurrengoa). Bide baten edo bestearen aldeko apustua erabakitzeke unean, aldagai konplexu ugari haztatu beharko ditu editoreak (obra mota, bataren zein bestearen sare komertzialen egokitasuna, unea, obra zehatz bakoitzaren balizko eroslearen kontsumo-ohiturak...). Ondoz ondoko edizioaren hipotesian, era berean, bataren eta bestearen arteko tartea zehaztu beharko du editoreak, gorago aipaturikoen tankerako irizpideen arabera. Ugari dira aukerak: mutur batean, tarte laburra uztea (paperezko liburuari lehen aukera eskaintzea aste batzuetan zehar, eta, paperezko liburuak bizirik dirauelarik, edizio elektronikoa merkaturatzea); beste muturrean, tarte luzea uztea (paperezko liburuaren ibilaldia amaitutzat jo daitekeenean edizio elektronikoa merkaturatzea, erabateko deskatalogazioa saihesteko).

Bi edizioen arteko integrazioari dagokionez, berriz, eta POD (*print on demand*) sistemak oraingoz alde batera utzita (ez baitugu uste galdera integrazio mota horri buruzkoa denik), teknologiaren esparrutik etorri beharko duten aukerak etengabeaz aztertu beharko ditu editoreak, ekoizpen prozesuan baliabideak eta sistemak optimizatze aldera. Oraingoz, eta ekoizpenaren ikuspegitik begiratuta beti ere, digitalizazioak prozesu osagarri bat erantsi du, baldar xamarra, oraindik ere, hipotesirik onenean (paperezko liburuaren maketa digitaletik abiatutako digitalizazioa), eta oso baldarra hipotesirik txarrean (liburua eskannerretik pasatu beharra baldin badago).

Era berean, liburu elektronikoaren segurtasunaz gaur egun eskaintzen zaizkigun sistemak hobetu eta, seguru asko, merkeagotuko dira etorkizunean, eta beste hainbeste gerta liteke edizio digitalen zabalkunderako eraturiko plata-forma edo sareei dagokienez, eta aldagai horiek ere izango dute zerikusirik editoreak alor hauetan hartu beharko dituen erabakietan.

Zer gerta daiteke liburuaren prezioarekin? Zer, liburugintzaren finantziazioarekin? Zer, negozio ereduarekin? Liburu digitalaren alorrari dagokionez, bertako enpresa editoreek asoziatzera joko dute, kanpokoekin asoziatuko dira, sozio teknologikoren batekin bat egingo dute...?

- *Liburuaren prezioaz*: gorago esan dugunaren arabera, gure ustez editorea da, nagusiki, edizio elektronikoaren prezioa erabaki beharko duena. Hala ere, eta arinegi eta funts zehatzik gabe azken garai honetan plazaratu diren hainbat iritziren aurka, liburu digitalaren prezioa ez da, inondik inora, hor barrena barreiatu nahi izan den operazio matematiko xinpletik ateratzen: liburu digitalaren prezioa = paperezko liburuaren prezioa – inprimatze eta banakuntza kostuak. Izan ere, edizio elektronikoak izango ditu ekoizpen eta banakuntza koste berriak, eta ez, hain zuzen ere, txikiak, mundu mailako informazio eta komunikazio sareetarako mamitu beharreko egokitzapenen kosteak ez aipatzeagatik.

Prezioari dagokionez, beraz, bi kontu azpimarratuko genituzke, gaur egungo ikuspegitik: a) paperezko liburuaren prezioetik abiatzen ez den logika berezkoa erabili beharko du editoreak edizio digitalaren prezioa finkatzerakoan; b) prezio finkoa helburu delarik, guztiz onuragarria izango litzaiteke aginte publikoen eta sektorearen arteko (eta sektorearen baitako) adostasunez jokatzea, bai liburuaren balio-kate osoaren bideragarritasunaren defentsan, baita lehiakortasun leialarenean ere.

- *Liburugintzaren finantziazioaz*: aurreko puntuan aipatutakoaren bidetik, liburugintzaren sektoreak estrategia ausart



eragingarriak mamitu beharko ditu (besteak beste —baina agian nagusiki—, errentagarritasun ratioak birdefinituz: hau da, kultur industria eraberritu bat eraikiz), liburuaren balio-kate osoaren iraunkortasuna bermatze aldera. Horri ekiteko garaian, begien aurrean zabaltzen ari zaigun paisaia berriaren bi ezaugarri garrantzitsu hartu beharko dira kontuan: a) bi edizio moten arteko bizikidetzak ekoizpen, zabalkunde eta sustapen sistema ugariren arteko bizikidetzak dakar; sektorearen —eta, bereziki, editoreen— esku geratuko da ugaritasun horren kudeaketa eragingarria; b) izugarri ugalduko da, sare eta sistema guztietan, eragileen kopurua (eta, jakina, nolakotasuna) eta informazioa (honetatik uholdea ere aurreikus daiteke liburuaren kosmosean ere); sektorearen baitako adostasunez eta aginte publikoekiko lankidetzan saihestu beharko da berez aukera diren horien mehatxuzko ifrentzua.

- *Negozio ereduaz*: dakigunetik (eta gauden tokitik ikusten dugunetik) harago arinki ez joatearren, zera esan dezagun: liburuaren balio-kate osoak, norik bere neurrian, egokitu beharko du negozio eredu, baina argitaletxei dagokienez, seguruenera, edukien kudeaketarantz aldarazi beharko da, pixkanaka, beren ardatz industrialak, produktu fisikoaren ekoizpena bizikidetzazko (eta ez eskusibazko) neurriari egokituz.

- *Editoreen arteko asoziazioez*: galderak aipatzen dituen guztiak dira, jakina, posible planteamendu teoriko soil batean. Euskarazko liburugintzaren ikuspegitik zer den posible eta zer desiragarria, ordea, gogoeta sakon baten bidetik etorriko da. Gogoeta hori sektorearen baitan gauzatu beharko da, nola ez, baina garrantzitsua litzateke, era berean, Kulturaren Euskal Planaren baitako egituretan ere mamitzea, ez baitugu ahaztu behar aginte publikoek babesturiko argitalgintza batez ari garela euskarazko liburugintzaz ari garenean.

**Zertan eragingo dio liburu elektronikoak euskarazko liburuaren argitalgintzari?**

Euskarazko liburugintzak «abentura» gutxitarako tartea du. Paperean argitaratzen diren liburuaren kopurua 1.500en

inguruan egonkortu bada ere (beherakako joeraz) azken urteotan, batez besteko tiradak oso murrizak dira, eta, krisiari eragotz dakizkiokeenak alde batera utzita ere, gero eta zailagoa da euskarazko liburuarentzat harrera egokia lortzea merkatuan. Azken ondorioa: oso errentagarritasun tarte urri batez ari da lanean euskarazko liburugintzaren sektorea. Beraz, eta edizio digitalak paperezko edizioaren tirada murriztuko balu bihar edo etzi, aurreikustekoa litzateke berez meharra den errentagarritasun tarte hori meharragotzea, akaso sektorearen —edo sektorearen zati handi baten— bideragarritasuna kolokan jartzeraino. Zuhur jokatu beharko du sektoreak, beraz, eta garaiz heldu beharko die egituren eta prozesuen doitzete eta egokitzeari, negozio eredu berrien bidean.

Alor honetan, eta euskal liburugintzaren esparruan esku-  
menik duten aginte publikoekiko lankidetzari dagokionez,  
tentu handiz neurtu beharko da aro digitalaren eragina gu-  
re kultur industriaren eremuan, laguntza publikoak ere erre-  
alitate berriei arian-arian egokitze aldera.¶



## GREMIO DE EDITORES DE EUSKADI EUSKADIKO EDITOREEN ELKARTEA

Enpresa teknologikoak indar handiz ari dira sartzen liburugin-tzaren esparruan. Zer ondorio dakar horrek orain arte liburu ekoizpenaz arduratu diren argitaletxeentzat?

Argitaletxeok hamabost urte baino gehiago daramatzagu sistema digitalak erabiliz paper euskarriko liburuak ekoizte-ko; horrenbestez, teknologia berriak erabiltzera ohituak gau-de. Bestalde, kontuan hartu behar dugu argitaletxe batzuek —esate baterako, zuzenbide liburuak, lege katalogoak, epaiak, entziklopediak, enpresa kudeaketa eta abarri buruzko libu-ruak argitaratzen dituztenak— negozioaren %80 Interneten bidez egiten dutela. Gainera, ANELEk (Asociación Nacional de Editores de libros y material de enseñanza) Espainiako Estatuan 2008-09 ikasturtean egin berri duen ikerketa baten arabera, testuliburuaren %30ek inprimaketa digitala izan zuen. Zuzenbide, lege, hezkuntza... alorreko edukia duten liburuak argitaratzen ez dituzten beste argitaletxe batzuk ere ari dira beren literatur liburuak euskarri digitalean eskaintzen, nahiz eta oraindik ere «tentu handiz» egin, liburu mota horren irakurleek ez baitute oraindik euskarri digitala eskatzen. Eskari hori areagotuz doan heinean, argitaletxeok merkatuaren premiak zainduko ditugu. Nahiz eta liburu elektronikoari egokitu beharko gatzazkion, egokitzapen horrek sarritan enpresa teknologikoekin bat eginda izan beharko du, baina beti ere argitaratzaileek edukien kontrolari eutsiz.

Liburu elektronikoaren agerpenak zertan aldatzen ditu editorea-ren funtzio klasikoak (hau da, liburuak aurkitu, hautatu, zabaldu eta sustatzea)? Nola eragiten die produktuaren kalitateari eta sinesgarritasunari?

Ez dugu uste editorearen funtzioak —originalak aurkitzea, egileekin harremanak edukitzea...— asko aldatuko direnik.

*Argitaletxeen* funtzioek, «liburu onen» sorkuntza, hautaketa eta sustapenari dagokienez, funtsezko izaten jarraituko dute egileen ikuspuntutik, beren liburuak argitaratu eta irakurleengana eramaten laguntzeko gai izango diren profesionalak bilatzen baitituzte. Eta gauza bera gertatuko da *liburu elektronikoetan espezializatutako liburu denda* eta *liburutegi digitalekin*; izan ere, edukien eskuragarritasuna gero eta harriarriagoa den une honetan, are premiazkoagoa da horiek antolatu eta merkaturatuko dituen sarbide-puntu bakarretik hautatu eta aurkezteko eta irakurleei aholkuak emateko gai izatea. Azkenik, *datu base bibliografikoak* beti izango dira beharrezkoak liburuaren kate osoari eta azken erabiltzaileari liburu elektronikoen katalogo zehatz eta neutralak eskaini ahal izateko, metadatu esanguratsu guztiekin.

Azter dezagun, ondoren, *liburu elektronikoaren katea*, eta bertan agertzen diren funtzio nagusiak.

*Digitalizazioak funtzio berrien agerpena dakar. Funtzio horiek, azken buruan, liburu inprimatuaren katetik liburu digitalaren katera lekualdatzen diren ohiko funtzioen egokitzapena dira.*

Bitartekariak desagertzen ez diren arren, idazlanen digitalizazioak eginkizun berriak eskatzen ditu: azken buruan, ohiko liburuaren katean dagoeneko badauden funtzioak sektore digitalera lekualdatzen direla esan nahi du horrek.

- *Bihurketa eta digitalizazio zerbitzuen hornitzaileak* behar dira liburu elektronikoen artxiboak landu ditzaten, bai pape-retik (eskaneatzea eta OCR) bai DTP artxiboetatik abiatuta.

- *E-handizkariak* beharrezkoak dira, liburu inprimatuaren kateko handizkariak bezalaxe, argitaletxeen izenean negozioia dezaten horien katalogo zabaletatik saltzeko eta sustatzeko liburu elektronikoak hautatu dituzten liburu dendekin.

- *E-banatzailak* ere beharrezkoak dira, liburu elektronikoen artxibo eta metadatu biltegi digital zerbitzuak eskaintzeko, txikizkako kanalei eta liburu denda digitalei me-

tadatuak eskaintzeko eta azken erabiltzaileei egile eskubideen babesa bermatuko duten eskubide digitalak kudeatzeko sistema teknikoei (DRM) lotutako liburu digitalen artxiboak emateko. Horixe da, agian, kate honetako funtzio berri eta teknologikoena. Kate inprimatuko banatzaileen funtzioaren baliokidea da, baina kasu honetan liburuak zuzenean igarotzen dira biltegi digitaletik irakurlearengana.

- *Eragile teknologikoek* ere funtsezko zeregina beteko dute, irakurketa-software, DRM teknologia eta irakurgailu digitalen hornitzaile modura.

Eragile bakar batek hainbat funtzio bete ditzake liburu digitalaren katean, eta badira funtzioak eragile ohikoek zein berriek bete ditzaketenak.

- E-banatzailearen eta e-handizkariaren funtzioak eragile berean bat datoz sarritan: horixe da merkatu estatubatuarrean *aggregator* (agregadore) izenez ezagutzen dena. E-banatzaileek, maiz, bihurketa digital zerbitzua eskaintzen dute. Agregadore batzuek ere liburu elektronikoak zuzenean saltzen dituzte, ohiko liburu denden saltokietan ez ezik, baita beren berezko liburu dendan ere.

- Editoreek edo editore taldeek e-banatzaile eta e-handizkari gisa ere jardun dezakete, eta argitalpen digitalak zuzenean saltzeko webgunea ere eduki dezakete.

- Ohiko inprimategiak ere ari zaizkie eskaintzen editore eta e-banatzaileei edukiak egituratzeko (XMLn) eta liburu elektronikoak hainbat formatutan sortzeko bihurketa zerbitzuak.

- Ohiko liburu dendeak liburu elektronikoak salduko dituzte beren webguneetatik liburu inprimatuekin batera, eta handienek beren berezko agregazio zerbitzu bilakatu ahal izango dute —edo bilakatzen saiatuko dira, bederen—.

Banaketa katean, gainera, eragile berriak agertzen ari dira, azken erabiltzaileari begira betetzen duten zeregin garrantzitsuari esker:

- Atari bilatzaileak (Google batik bat): «barne bilaketarako» teknologien bitartez liburuak hautatzeko lanabes berriak eskaintzen dituzte.

- Interneteko eragile soilak (Amazon batez ere, baina baita beste online denda mota batzuk ere): liburu elektronikoen berezko liburu dendak garatzen ari dira.

- Sakelakoen operadoreak edo Interneterako sarbide hornitzaileak.

Eragile berri horiek guztiak liburu digitalaren katean pixkanaka gora egiten saiatuko dira, eta baita zeharkako zerbitzu edo produktu teknologikoak eskaintzen ere, liburu elektronikoen irakurgailuak edo irakurketa-softwarea kasu.

**Nola antolatu beharko da argitalgintza paperezko edizioaren eta edizio digitalaren artean? Nola integra daitezke bi edizio motak?**

Argitaratzaileon aburuz, paperezko edizioa eta edizio digitala oraindik urte dezentetan egongo dira elkarrekin merkatuan. Horrelaxe ari da gertatzen AEBetan, alor honetan aurreratuen den herrialdean: Estatu Batuetako argitaratzaileen elkarteak argitaratutako datuen arabera, 2008an liburu digitalen salmentak ez zuen merkatu osoaren %20 gainditu; eta egindako aurreikuspenen arabera, 2020an %40-50era iritsiko da.

**Zer gerta daiteke liburuaren prezioarekin? Zer, liburugintzaren finantziazioarekin? Zer, negozio ereduarekin? Liburu digitalaren alorrari dagokionez, bertako enpresa editoreek asoziatzera joko dute, kanpokoekin asoziatuko dira, sozio teknologikoren batekin bat egingo dute...?**

Hasiera batean, liburu digitalaren salneurria merkeagoa da paperezkoarena baino. Hala ere, badu eragozpen bat, irakurleak irakurgailua erosi behar baitu; egia da, orobat, tresna horren prezioa ziur aski jaitsi egingo dela denboraren poderioz. Irakurgailuen hornitzaileek «inposatuko» liguketen hori, dena den, argitaratzaileoi eragiten digun arazo bilakatzen da. Argitaratzaileen arteko asoziazioei buruz, urte asko dira «baterako argitalpenak» egiten direla, eta jarraituko dira egiten, hornitzaile teknologikoekin lankidetzan hartzarmen zabalak egingo diren bezalaxe.

Jakina, enpresa teknologiko handiek «eduki hornitzaileak» xurgatzeko arriskuak hor daude. «Negozio ereduan» aldatetako datozenean, une honetan gertatzen den bezala, enpresa argitaratzaileak eta bestelako batzuk ez dira egokituko eta desagertzeko arriskuan egongo dira. Baina konfiantza osoa dugu egoera berrira egokitzen asmatuko duten argitaratzaile onen lan profesional txukunean.

Argitaratzaileok datorkigun aro berrira egokitzen ari garela frogatzen duen proba bat honako hau da: gure Federación de Gremios de Editores elkarteak (FGEE) Espainiako Biblioteka Nazionalarekin sinatu duen hitzarmena. Industria Ministerioak partzialki diruz lagundutako egitasmo hori 2008ko azaroan sinatu eta 2009ko maiatzean berretsi zen. Hau da helburu: liburutegi digitalen testuinguruan, egile eskubideei lotutako eduki digitalen integrazio eredu baten analisi, definizio, abian jartze eta hedapenari helduko dion ezagutza zentro egonkor bat sortzea. Egitasmoa dagoeneko abian da, eta lehen hilabete gutxi hauetan 50 argitaletxe baino gehiago bertakotu ditu...

### Zertan eragingo dio liburu elektronikoak euskarazko liburuen argitalgintzari?

Hasiera batean, ez dugu uste arazoa ekoizpen gaitasuna izango denik, ezta teknologikoa edo edukien ingurukoa ere; izan ere, teknologiaren aurrerapenak gero eta eskuragarriagoak bihurtuko dira erronka berriak bide onetik eramanez ahal ditzaketan argitaletxe egiturentzat, egile eta diseinatzaileen kalitate hoberekin batera. Baina bada, egia esan, kontuan hartzeko moduko mehatxu bat: sarean norbait izatea garrantzitsua da oso, euskaraz argitaratzen duten argitaletxeen edukiak identifikatu ahal izan daitezela, horietaraino iritsi ahal izan dadila. Egungo ohiko liburugintzan, hau da, paperezkoan, liburu denden bitartez egiten den eskaintza mugatua da eta, gainera, liburu dendan zer lekutan kokatuta dagoen oso garrantzitsua izatera iritsi daiteke. Esparru digitalean, al-diz, eskaintza itzela izango da, hasiera batean liburu digitalak

amaierarik ez duen bizitza izango du, ebooka esportatu ahal izango da edo *print on demand* sistemaren bidez inprimatu ahal izango da. Horregatik guztiagatik, euskarazko liburua galdu egin liteke oihan horretan. Horrenbestez, euskarazko liburuari datorkiona ez da hainbeste argitalpen modu berri batera egokitzea, baizik eta euskarazko edukiak ongi identifikatuko dituzten agregadoreak garatzea eta eduki horiek erraz eskuratzeko ahalmena edukitzea bilatzaileen, webgune espezializatuen, bilatzailetan egindako sustapenaren eta abarren bitartez.

Gure ustez, euskarazko liburuak bi euskarritan —paperezkoan zein digitalean— biziko dira elkarrekin. Baina, une honetan tiradari dagokionez kopuru kritikotan gaudela aintzat hartuz, bizikidetza horren ondorioz paperezko liburuen kopurua jaitsi egingo da, eta liburu elektronikoarekin bezero berriak erakartzea lortzen ez bada, euskarazko liburuaren lekua jaitsi egingo da merkatuan eta zenbait kasutan ezin irauneko egoerara iritsiko da.¶

[Xabier Eizagirrek euskaratua]





## GIPUZKOAKO LIBURU DENDEN ELKARTEA

Liburu denda birtualak ugaltzen ari dira Interneten. Nola eragiten die horrek ohiko liburu dendei?

Liburu denda birtualen fenomenoak ez da berria, urte batzuk daramatzate ugaritzen Interneten eta beraien zerbitzuak eskaintzen. Liburu saltzaileak ohituta gaude merkatuak jasaten dituen aldaketetara egokitzen eta asko dira Internetek eskaintzen dituen aukerez baliatzen diren liburu dendak.

Orokorrean, Internetek ekonomia, gizarte eta kultur arlo guztietan izan du eragina, eta nola ez, liburu dendak ez dira eragin horretatik kanpo gelditu. Halere, liburu saltzaileok ez dugu Internet arrisku bat bezala ikusi behar, alde batera utzi ezin dugun aukera bezala baizik. Merkatu berriak irekitzeko aukera, jende gehiagorengana iristeko aukera. Internetek eskaintzen digun aukera horrek arlo ezberdinetan baldintzatuko du liburu denden egoera.

Alde batetik, eragin ekonomikoa ukazina da. Saretik kanpo gelditzen diren liburu dendek merkatuaren zati bat gal dezakete. Teknologia berrien erabiltzaile nagusiak gazteak dira, eta, beraz, etorkizuna neurri handi batean Interneten izango da, baina ez osotasunean. Betiko liburu dendak ez dira desagertuko. Liburu dendek integratu egin behar dugu gure baitan denda birtuala eta horrela bi erantzun eman, hurbiltasunezkoa (momentu honetan ematen ari garena jandak) eta mundu zabalean sarearen bidez.

Internet, liburu denda birtualak eta sortzen ari diren sare guztiak, orokorrean, bai liburu dendentzat eta baita irakurleentzat ere mundu berri bat ireki edo, hobeki esanda, gerturatzeko dute. Momentu honetan, Interneti esker, ia mundu

osoko edozein liburu eskuragarri dugu. Liburu dendek, gure kontaktuei esker, katalogoz kanpo, bigarren eskuko edota ahaztuta zeuden liburu arraroak eskuratzeko aukera dugu. Bezeroei eskain diezaiekegun zerbitzua askoz handiagoa da. Momentu honetan gure esku dagoen liburu katalogoa eta informazio kopurua pentsaezina zen orain dela urte batzuk. Eta horretaz guztiaz baliatu behar dugu liburu dendok.

Zer zerbitzu eskain dezake herriko edo auzoko liburu dendak, bezeroaren arreta gorde edo pizteko? Nola egin diezaiekete aurre erabat birtualak diren liburu dendei?

Auzoko liburu dendek beraien potentzialtasunak landu behar dituzte, bere alderdi onak garatu. Liburu-denda kate handiak eta batez ere superfizie handiak nahiko inpersonalak dira jadanik, baina auzoko liburu dendak edo ohiko liburu dendak ez. Liburu denda horiek eskaintzen duten hurbiltasuna, giza harremanak, liburu saltzaile eta irakurlearen arteko elkarrizketak eta galdera eta gomendioak, ezin dira galdu. Ez bakarrik liburu saltzaileen ikuspegitik, baizik eta gizarte baten ikuspegitik ere ezin diogu Interneti gure harremanen motor bakarra izaten utzi. Esan bezala, Internetetik gauza onak hartu behar ditugu eta hain onak ez direnak baztertzen saiatu.

Gure bezeroa ondo ezagutzea oso garrantzitsua da, eta hori harreman pertsonal batekin lortzen da soilik. Gure inguruko bezeroak ezagututa, jakin izango dugu zer eskaini, zein liburu izan gure dendetan, bezeroari, «bere liburu dendan» dagoenaren sentimendua suspertuz, eroso sentiarazi. Gure bezeroak zeren bila dabiltzan jakin behar dugu. Bezeroa fidelizatu egin behar dugu. Horrek, era batean, liburu dendaren espezializazio bat suposatuko luke, ez materia batean edo batzuetan, bezero mailan baizik, horien nahi eta beharrak aintzat hartuz. Azken finean, Interneten ez dira bakarrik liburuak saltzen, denetarik saltzen da, eta gertutasun hori, bezeroaren beharrak ezagutzea eta era berdinean zerbitzu orokorrako bat eskaintzea, komertzio guztien zere-

gina izango da hurrengo urteetan. Internetetik bidaiak, aldizkariak, arropa, tresna elektronikoak eta abar eskaintzen dira aspalditik, eta gauza horiek guztiak eskaintzen dituzten dendak edo aldizkariak ez dira desagertu, baina bai beraien negozioak egokitu.

Horretaz gain, liburu denda baten espezializazioa (kasu honetan zenbait materiatan) gero eta garrantzi handiagoa izaten hasi da. Gure hirietan materia batean erreferente bihurtzearen garrantzia gero eta handiagoa da. Liburu dendaren izena erreferente izatea medikuntza liburuetan, haur eta gazte literaturan, edo ekonomia liburuetan.

Bukatzeko, ohiko liburu dendek agian beste zerbait eskaini behar izango dute etorkizunean, negozioari plus bat emango diona. Jendea erakartzeko formula berriak eta agian iraganean funtzionatu zuten formula zaharrak ere. Jendeak literaturari buruz hitz egiteko guneak sortuz, liburuaren inguruan haurrentzat jarduerak prestatuz..., beti ere, lehen esandako bezeroekiko gertutasun hori landuz eta potentziatuz. Eta, nola ez, teknologia berrien inguruan azpiegitura on bat eraikiz: bezeroek erabil ditzaketen terminalak jarritz, foroak sortuz eta landuz...

Esan bezala, teknologia berriek ez digute beldurra sortu behar, jakin-nahia eta hobetzeko nahia baizik.

**Nola integratu dezake ohiko liburu dendak liburu digitalen eskaintza (*print on demand*, datu-base handi baterako sarrera...)?**

Edozein berrikuntzak lehenbiziko urteetan jakin-nahia sortzen du bezeroen artean. Bigarren fase batean eskaintza horren garapen bat gertatzen da, baina gero merkatuaren orekatze bat etortzen da. Zaila da jakitea nolako harrera izango duten liburu digitalek irakurleen artean, baina argitaletxeek egin dituzten azterketen arabera eta gaur egungo bezeroek teknologia berrien aurrean duten jarrera ikusita, badirudi ildo horretatik joango dela liburu digitalen joera.

Argitaletxeak beraien fondoak jadanik digitalizatzen ari dira eta udazken honetatik aurrera espero da kalera atera-

tzea. Liburuen digitalizazioak eta komertzializazioak zenbait beldur dakarte beraiekin. Alde batetik, pirateriaren beldurra. Musikarekin gertatzen ari dena saihesteko, argitaletxeak beraien edukietan neurri berriak jartzen saiatzen ari dira. Baina argitaletxeek ere beste arazo bat dute: liburu berri bat merkatura ateratzean, zaila izango da jakiten zenbat ale atera behar dituzten paperezko formatuan ; hots, zenbaterainoko eragina izango du liburu digitalen eskaerak paperezko liburuen merkaturatua? Beraiek ere ez dakite, nahiz eta izankidetasun bat izango dutela pentsatzen duten.

Galdera horiek pista bat ematen digute. Bi formatuentzat merkaturatua izango da, bai paperezko liburuentzat baita liburu digitalentzat ere. Eta ohiko liburu dende bi merkaturatuetan lan egin beharko dute, liburuak bi formatuetan eskaini. Horretarako, liburu dende beraien egitura egokitu beharko dute. Liburu digitalen euskarria —hau da, liburu elektronikoa bera— saltzeaz gain, edukiak ere saldu nahi badituzte, liburu denden itxura bera aldatu beharko dute. Lehen esan dudana bezala, liburu denden bezeroek eskuragarri izango dituzten terminallak jarritz, Interneten dauden datu base handietan sartzeko, nobedadeen informazioa jasotzeko, eta, nola ez, horretaz guztiaz aholkatuko digun ondo prestaturiko pertsonala.

Hala ere, papera ez da desagertuko. Asko gara paperezko formatuan irakurtzen ohituta gaudenak eta plazer horri uko egin ezingo diogunak. Orain dela gutxi egindako zenbait azterketaren arabera, gainera, paperaren aurrean lortzen den kontzentrazioa ez da pantaila baten aurrean lortzen. Dena dela, esan bezala, liburu dende bezeroen bi eskaerei aurre egin beharko diete. Eta horretarako beharrezkoa izango da liburu denden egokitze hori, baina baita ere liburu saltzaileen prestakuntza egoki bat. Teknologia berrietan intzidituz.

**Nola eragingo dio liburu elektronikoa euskarazko liburuek liburu denden presentzia eta lekuari?**

Denok dakigu zein den gaur egun euskal literaturaren eta liburgintzaren egoera. Ziur aski, gaur egun inoiz ez bezala

publikatu eta idazten da euskaraz, baina euskara eta euskal literatura maitatzen dugunontzat egoera horrek ez du gure nahia asetzen. Euskal literaturaren merkatua oso finkatuta dago eta oso zaila da hortik kanpo zabaltzea. Merkatua horrela izanda, liburu dendek euskarazko liburuei eskaintzen dieten lekua oso mugatua izaten da.

Euskarazko liburuentzat aukera ezin hobea irekitzen da momentu honetan. Egia esanda, edozein edukirentzat irekitzen den garaia da ezin hobea. Ez bakarrik liburu elektronikoei esker, baizik eta sareak eskaintzen dituen erraztasunei esker. Liburu elektronikoa paperezko formatuaren osagarria izango da. Baina euskal liburuaren arazoa identifikazio arazoa izango da. Mundu erraldoi baten barnean sartuko gara eta mundu horretan euskal liburua ikustea izango da arazoa. Hau da, erosleak nola iritsiko diren produktu horietara, sare infinitu horretan euskal liburuetaraino iristea izango da erronka. Edo beste era batera esanda, bezeroei liburuetaraino iriste lan hori nolabait erraztu egin beharko diegu, sarearen itsaso zabalean gal ez daitezten.

Hori guztia horrela izanda, liburu denda bakoitzak zenbat leku eskaintzen dien euskarazko liburuei, azken finean, dendaren jabearen edo kudeatzailearen erabakia besterik ez da izango. Baina argi dagoena zera da: liburu elektronikoak liburu dendak handitu egingo ditu, edukiak ugaltu, eskaintza biderkatu.¶



## EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Liburu elektronikoaren agerpenak zerbaitetan aldatzen al du egileak obrarekiko duen erlazioa? Zertan eragiten dio, bereziki, sorkuntza prozesuari, idazkerari?

Idazlearen ikuspuntutik liburuaren ardatza testua bada ere, orain arteko kodize-liburuari buruz argitaldariak esango luke liburu bera dela zabaltzen dena eta, ondorioz, idazleaz gain, editorea, maketatzailea, diseinatzailea, inprimategi lanak egiten dituen edota sustapenerako ekintzez arduratzen dena ere liburuaren osagarriak (egileak, nolabait esanda...) badirela.

Liburu elektronikoarekin batera ohiko euskarria aldatzean, beraz, aurreko guztia birmoldatuko da ezinbestean, eta egiletza, funtsean, idazlearengan geratuko da nabarmen. Garai batean kopistak desagertu ziren moduan, adibidez, Goetheren idazkerari maisuaren idazle ospetsuaren izaeratik zerbait zor bazitzaion ere, inprimategiaren hedakuntzak hori guztia errotik aldatu zuen bezala, datorren liburu elektronikoak egileak obrarekiko izango duen harremana aldaraziko du zeharo. Hortaz, edukiak irabaziko duen garrantziaz, orain kontrakoa iruditzen arren, idazlearen jabego intelektuala azpimarratuagoa egongo delakoan gaude.

Digitalizazio prozesuaren eraginez, jabego intelektualaren inguruko eztabaida areagotu da. Zer gerta daiteke egile eskubideekin? Zer jarrera hartu beharko lukete egileek egoera berriaren aurrean?

Dagoeneko digitalizazio prozesuak abian daude mundu mailan (Google Books, Arrow, Europeana...) eta gure artean ere. Hortaz arduratzen diren nazioarteko elkarteak bada (Tilman Lüderrek zuzentzen duen Europar Batzordea,

Michael Healy-k kudeatutako Book Rights Registry, James Gleicken ardurapean dagoen Authors Guild...); eta gurea, Euskal Idazleen Elkarte, CEDROren bidez, horri buruz saiatzen da egoera behar bezala aztertzen, jarraitzen eta idazleen eskubideak bermatzen, jakina.

Tamalez, egun martxan dauden digitalizazio prozesu denek idazleen eskubideak bermatzeko indarrean dagoen Bernako hitzarmenari muzin egiten diote.

Legaren egokitzapena behar-beharrezkoa da, beraz. Bitartean, *de facto*, prozesuak aurrera doazen neurrian, sor daitzkeen helegiteei bidea eman ahal izateko besterik ez bada ere, EIEk bere bazkidezari balizko eskubideak babesteko hitzarmen bat sinatzea gomendatu dio. Hori egin ezean, inposizioaren bitartez, digitalizazioak jabetza intelektuala desjabetu dezake eta obra ezagunak interes ezezagunen menpe utzi. Izan ere, ezaguera gizarteratzearen aitzakiaz, ezagutza bildumen monopolioa eta haren kudeaketa ultraliberal bezain merkantilista ari dira gailentzen jakintza arlo honetan.

**Zertan eragingo die liburu elektronikoak euskal idazleei eta euskal liburuari?**

Hala eta guztiz ere, digitalizazioaz ezin da, berez, ezkorra izan, nahiz eta Google Books bezalako egitasmoak susmargarriak diren. Baikorrak izatera behartuta gaude, zeren, honekin guztiarekin, egilearen, hau da, idazlearen irudiak gero eta garrantzi handiagoa eskuratuko du eta, hizkuntza gutxituen esparruan gainera, aukera berri asko irekiko dira. Digitalizazioaren erabilera maltzurak ez ditu, bada, teknologia horrek zabaltzen dituen bide berriak ilundu behar.¶



## CAMARA DEL LIBRO DE EUSKADI EUSKADIKO LIBURU GANBARA (Banaketaz)

Liburu elektronikoaren agerpenak nola eragiten dio banaketari eta banaketara dedikatzen diren enpresei? Nola antolatuko da paperezko liburuen eta liburu digitalen banaketa? Irauterik izango al du ohiko banaketa-ereduak eraldaketarik egin gabe? Nolako aldaketak egin beharko ditu: azpiegitura mailakoak, zerbitzu berriak eskainiz...?

Euskal Herrian, oraingoz esan daiteke liburu elektronikoak orokorrean ez duela eragin apartekorik izan. Gai horretaz asko hitz egiten den arren, oraindik gutxi dira irakurgailua erosi dutenak eta bertan irakur daitezkeen obrak ere mugatuak dira, bai kopuru aldetik bai obra horien gaurkotasun aldetik. Arrazoi horietaz gain, gaiari buruz ez jakiteak eta ohitura ezak zerikusirik handia izan dute liburu elektronikoak liburuen komertzializazioaren barruan eragin nabarmenik ez izatean. Orain hiruzpalau urte lehen zurrumurruak zabaldu ziren liburu elektronikoaren inguruan; hala ere, iazko negu arte ez ziren irakurgailu horiek ezagutzera eman, eta esan daiteke ez dutela halako arrakastarik izan jendartean. Zalantzarik gabe, irakurgailu horiek pixkanaka beren lekua hartu eta beteko dute, enpresa garrantzitsu zenbaitek apustu handiak egin dituztenez berandu baino lehen ezarriko baitituzte.

Paperezko liburuen eta liburu digitalen banaketa aurreikusteak zaila gertatzen da, ez da batere erraza etorkizunean horren antolaketa nolakoa izango den jakitea. Urte askotan ezarrita egon den sistemak jarraituko du, eta, ziurrenik, egun sektorean dauden interes eta ikuspuntu desberdinak aintzat hartuz, eztabaidatu eta bideratzen hasteko lehen urratsak ematen hasi beharko da.



Aurrez aipatu bi euskarri horietan (papera eta elektronikoa), bi dira inoiz aldatzen eta aldatuko ez diren aktoreak, idazlea eta irakurlea. Horietaz gain, egun paperezko liburuen unibertsoan mugitzen diren beste aktore batzuk daude, lehen urte hauetan egoera asko aldatuko ez dela usate dutenak: argitaletxeak, banatzaileak eta liburu dendak. Epe motz-ertainera garbi dute bi euskarri horiek, paperezkoa zein digitala, normaltasun osoz elkarrekin biziko direla, eta bide horretan banatzaile eta liburu denden egiturak mantentzea ezinbestekoa eta beharrezkoa izango da.

Banatzaileek funtzio garrantzitsua betetzen dute paperezko liburuen banaketan; azken finean, bestela burutu ezingo litzatekeen argitaletxe eta liburu denden arteko zubi-lana egiten dute. Liburu digitalarekin funtzio bera bete beharko lukete.

Espainiako Estatuan 2008 urtean 80.000 titulu berri argitaratu zirela aintzat hartuz gero, horietatik %20 bakarrik bideratu ziren zuzenean argitaletxeetatik liburu dendetara, eta ehuneko txikiagoa da liburu denden kopurura mugatuz gero. Aldiz, banatzaileak askoz ere titulu gehiago eta liburu denda gehiagotara heldu dira.

Autore batzuen lanak argitaratu bezain azkar saldu egiten dira, baina horiek gutxi dira, obra gehienak liburu dendan ikusmiran dagoen irakurle/erosleak ikusi eta irakurtzeko/erosteko gogoia pizten zaionean saltzen dira. Argitaletxeek eta komunikabideek liburuak promozionatzeko ahalegin handiak egiten badituzte ere, titulu gehienak anonimatuaz geratzen dira eta salmentak eskasagoak izango lirateke liburu dendengatik ez balitz. Titulu horiek guztiak banatzaileak bideratzen ditu kulturaren zabaltasuna eta aniztasuna bermatzeko asmoz.

Azkenaldi honetan entzun izan da liburu digitalak zuzeneko bidea egingo duela, hau da, autoreak irakurle/eroslearen-gana zuzenean bitartekari guztiak saihestuz beteko duela. Hipotesi hori baztertu gabe, ez dugu uste hori bideragarria denik. Baliteke puntako idazle batzuek tankera horretako apustu baten alde egitea, baina hala izanda ere, salmentak gutxitu

gingo lirateke, oso eskaintza mugatua litzateke gaur egungo inplantazio erraldioen aurrean. Beste idazle askori zailagoa gertatuko litzaioke bide hori jarraitzea eta gehienei ezinezkoa. Egungo merkatuan, paperezko liburuaren unibertsoan alegia, idazle askok zailtasunak dituzte irakurle/eroslearengana iristeko, beraien obrak publiko zabalari ezagutzera emateko; beraz, liburu digitalarekin zailtasun horiek areagotu egingo lirateke. Unibertsoetik galaxia batera pasatzean, identifikazio arazoa gaindiezina litzateke, eta maiz entzun edota irakurri dugun moduan, ikusten ez dena ez da existitzen. Euskarazko produkzioan arazoa areagotuko litzateke.

Ikuspuntu berari eutsiz, argitaletxeek ere titulu puntualak zuzenean eskaintzeko aukerak sor ditzakete, baina ez du erraztasunik izango katalogoa bere osotasunean eskaintzeko, erosleri ezinezkoa gertatuko baitzaio argitaletxez argitaletxe berak gura duen obra bilatzea. Argitalpen guztiak edota gehienak izango dituen gune bakarra beharko litzateke, baina hori kasik ezinezkoa da, bakoitzak bere interesak baititu, kompetentzia handia da. Beraz, burutu ezinezkoa izango da.

Funtzio hori banatzaileek bete beharko lukete. Erreferentia izango den webgune bat «agregadore» indartsuekin sortu eta, gaur egun paperezko liburuekin egiten den moduan, argitaletxeei erosi eta liburu dendei salduko liekeena, liburu dendek bere salmenta puntuan linkatuz erosle/irakurleei saltzeko.

Bestalde, normala litzateke denboraldi batean, liburu irakurle/erosle zenbaitek bietatik kontsumitzea, digitalaren kontsumitzaile berria izatea, baina aldi berean, paperezkoa erosten jarraitzea. Beraz, irakurle/erosle tipo hori liburu dendan sartzean bietakoak aurkituko ditu, batzuetan paperezkoa erosiko du eta bestetan digitala. Horregatik, epe motz-ertainera liburu dendek beti bete duten funtzioa betetzen jarraituko lukete, sektorean eman dezakeen eskaintzarik zabalena eman, modu ordenatu batean eta banatzailearen laguntzaz.

Aurreikuspenak horiek izan arren, esan daiteke epe ertain batera aldaketak handiak eta nabarmenak gerta daitezkeela.

Liburuaren sektorearekin gaur arte zerikusirik izan ez duten enpresa handi eta indartsuak hasiak dira merkatua «usaintzen», eta bestelako formulak eta sistema berriak inposatzera irits daitezke. Badago beste faktore garrantzitsu bat aipatzea merezi duena, paperezkoa kontsumitzen ez duen eta sareko (Internet...) kontsumitzailea den belaunaldi berri horrengana nola heldu asmatzea. Erronka itzela!¶



**ARTEA 113**

Artearen borroka-zelaiak

**XABIER GANTZARAIN**

**TEKNOZIENTZIA 119**

Bi ohar

Hiri bi

Bi hondakin

Amets bi

Datu bat

**INAKI IRAZABALBEITIA**

**SOZIOLINGUISTIKA 124**

Eratibismo linguistikoa: hizkuntza eta kosmobisioa

Definizioa

Hiztuna eta kosmobisioa

Hausnartu sariak

Euskara eta Eliza

**LIONEL JOLY**

**GLOKALIA 132**

Zazpi etxe Afrikan

Zazpi lotsa Iztietan

Zazpi legoatako bidaiak

**JOSU LARRINAGA**

## Artearen borroka-zelaiak

Asteazkena zen, autopista berrian barrena joan nintzen Gasteizera. Artium azpian utzi nuen autoa. Erakusketa ikus-tera nindoan, baina urduri nengoen, eta pozarren, gaiztake-ria bat egin behar bainuen aspaldiko partez. Euskarazko bisita gidatuak asteazken goizetan izaten direla irakurri nuen Interneten. Izena eman behar nuen, eta ondo entzun, museoak berak gidariaren bitartez ikusleari esateko zeukana. Sarrera eskatu nuen. Borondatea, xentimo batetik gora nahi duzuna bota potera. Hori ez da borondatea esatekotan egon nintzen, baina ez, ixo, entzutera etorri haiz. Noiz da euskarazko bisita gidatua? Hamaiketan. Primeran. Baneukan kafe bat har-  
tzeko astia.

Zintzo-zintzo azaldu nintzen hamaiketarako. Ingurura begiratu nuen laguntza eske: bakarra nintzen. Neska gajoa, bakarra azaldu eta berdin-berdin egin behar bere lana. Ton-  
to plantak egin eta hanka egitea ere pentsatu nuen, baina berandu zen gelditzeko. Antzeman egin zidan. Zu al zara euskarazko bisita gidaturako izena eman duena? Mozolo aurpegi honekin, alferrik zen ezetz esatea.

Ez du ematen begiratu batera, baina ez da batere erraza gi-  
dariaren lana: azalpenak garbi eman behar ditu, daturen bat edo besterekin jantzi jarduna, interesa erakutsi, pedagogia landu, ikuslearen arreta erakarri, behar denean denbora eman lan bati begira gera daitezen, erritmoa ezarri bisital-  
diari, eta okerrera: ikuslearen galderei erantzun. Eta ez naiz niregatik ari. Gaiztakegia egiteko asmoz joana nintzen, bai-  
na ezin nuen, errukitu egin nintzen, ni bezalako azkar uste-  
koa jasatea fortunatu zitzaion neska harekin. Gustura nen-

bilen gainera, museoak lan bakoitzari buruz eskaintzen zizkidan irakurketak entzuten.

Gezurra dirudi, baina irakurketa kontua da dena. Lan bati bati buruzko bi irakurketa ezberdin eta are kontrako eskain daitezke, irakurlearen arabera. Badira irakurle onberak eta badira irakurle gaiztoak. Txarrak eta onak. Obra geratzen da, ordea, esan dezake norbaitek. Eta bai, obra geratzen da, obra horrek irakurketak (onak) ukan baditu. Obra horri zukua atera bazaio, bueltaka-bueltaka tradizio batean txertatu bada, obra geratzen da. Baina zer da obra bat, inork irakurriko ez badu, inork horren gainean gogoeta egingo ez badu? Ikusgarri bat, beste edozein bezalakoa. Gaur museo-  
ra, bihar estadiora.

Ohitura bihurtu da, estadio zein museoetan, partida eta erakusketa bakoitzak izan duen ikusle kopurua zehatz jaso, eta zenbaki hotz horren arabera neurtzea partidaren eta erakusketa bakoitzaren arrakasta. Futbol partida baten interesa neurtzeko balio duen irizpide berak balio al du erakusketa baten arrakasta neurtzeko? Akaso bai, balio du arrakasta neurtzeko; erakusketa batekin zer bilatzen du ordea museoak, arrakasta? Ikusle kopuru handia? Hori da bilatu behar duena?

Joko horretan sartuta gainera, beti daukate galtzekoa museoek. Guggenheim Bilbao Museoak beti izango du askoz bisitari eta ikusle gehiago beste edozein museo baino. Eta kopurua irizpide bakartzat hartuta, jai dute beste guztiek. Zenbat ikusle izango zituen Antony Gormleyren erakusketak Artiumen? Eta hala ere, merezi zuen. Horixe merezi zuela.

Artiumen batetik bestera eramanez ninduen gidariak azkeneko utzi zuen onena, eta beste lan batzuekin ez bezalako interesa erakutsi zuen Antony Gormleyren erakusketarekin. Izenburuak beti izan dira nire debilidadea, asko esaten dute artistaren asmoei buruz, mundua hitzetara ekartzean hartzen duten jarreraz. Erakusketa honen izenburua *Between you and me* zen ingelesez, euskaraz Zu eta bion artean. Eta halaxe ekin genion erakusketari, gidariak eta biok.

Gidariaren arabera, Antony Gormleyren lanak gizakia du ardatz, gorputzaren eta espazioaren arteko harremana. Bere ibilbidean behin eta berriz landu duen gaia da hori. Gizakia, gizakien arteko harremanak, bere fisikotasuna, bere lekua espazioan, bere lekua munduan.

Niri, bakardadeaz eta beldurraz ari dela iruditzen zait.

Bistan da gizakiaz ari dela, giza gorputzaren irudikapenetik abiatzen baita bere lanik gehientsuenetan. Ez da ordea irudikapen errealista, eta are gutxiago naturalista. Giza gorputzaren irudikapenak metaforak dira, kasurik gehienetan. Batean, untxientzako kaiolak egiteko erabiltzen den metalezko sare egindako espazio hertsu baten barruan dagoen hutsuneak irudikatzen du gizakia. Beste batean, giza gorputz biribil eta ertzik gabeko batetik hodi bat ateratzen da, zoruan buelta batzuk eman ostean beregana itzultzeko. Beste batzuk, metalezko giza gorputz ilun eta hotzak, sabaitik zintzilik daude, jarrera deserosoan.

Lan hauek ikusita, burura datorkizuna gizaki bakoitzaren bakardadea da. Deseroso, ingurune hotz eta arrotz batean, espazioaren menara formatuak eta forma hartuak; norbere pentsamendu, sentimendu eta desioak adierazi ezinda, bizitzak eskaintzen dizkion une gozo eta garratzak nork bere baitan egostera kondenatua, inkomunikazio sakonenaren gatibu.

Ez nuen entzun, ez nintzen konturatu gidariak beste gela baterantz eramane nahi ninduela. Ikusteko falta zaigun haxe da niri gehien gustatzen zaidana, esan zidan. Kontu inozoa da, topikoa agian, baina ez da beti faltsua euskaldunen artean sortzen den konfiantzarena. Niri behintzat gertatzen zait. Seguruago sentitzen naiz, erosoago, errazago lortzen dut konplizitate minimo bat. Konturatzerako, gidariaren atzetik nindoan, berari gehiena gustatzen zitzaion lana ikustera.

Bere lan kuttuna *European Field* zen, Zelai europarra. Beste lanekin alderatuta, itxuraz zein egituraz erabat bestelakoa da hau.

Aurretik ikusitako eskulturarik gehienak banaka zeuden, metalezkoak ziren, eta eskala naturala zuten neurri. Beste lan

honetan, aldiz, gizakiak orkatilera iristen zaizkio ikusleari, buztinezkoak dira, eta milaka daude gela berean batera. Badu beste berezitasun bat lan honek: ezin duzu gelara sartu. Kanpotik ikusi behar duzu, sarrerako atearen paretik. Handik ikusten duzu buztinezko gizakiño aldra honek zorua erabat estaltzen duela, gela erabat betetzen. Eta buztinak kolore eta tonu desberdinak hartzen dituenek, lainoek sortutako itzala ikusi uste duzu ilun dagoen leku batzuetan, eta eguzki indartsu baten argia besteetan. Hortik lanaren izena: zelaia.

Antony Gormley 1990ean hasi zen Field izeneko serie honekin. Lehendabizikoa Mexikon egin zuen, hango familia buztinagile batekin. Lurrarekin lan egin nahi zuen, ordura arteko bere lan hotzagoak alde batera utzita. Sinpleak ziren arauak: hartu buztin zati bat esku artean, eman giza gorputzaren itxura ahal duzuen azkarrena, hankarik eta besorik gabeko soina eginez, eta burua soinaren proportzioan egin. Behin hori egindakoan, arkatz baten muturrarekin, bi zulo egin begien parean. Kitto. Lehortzen utzi, eta labera. Milaka egin zituzten. Denak antzekoak, eta denak desberdinak.

Harrezkero beste hainbat lekutan egin du ariketa bera: Txinan, Suedian, Erresuma Batuan, Amazonian. Lekua aukeratu, hara joan, hango jendeekin hitz egin, lanean hasi, buztinezko milaka eta milaka gizakiño egin, eta bukatutakoan, erakusketarako paratu tokian tokiko aretoen batean, besteak beste, nork berak egindako gizakiñoak ikusteko aukera izan dezan. Lan honegatik Turner Saria jaso zuen 1994an. Gasteizko Artiumera ekarri zutena Suedian egindakoa da, Malmon.

Antony Gormleyk, lan honen zergatia galdetzen zaionean, humanitate bat eta bakarra dagoela erakusteko egin zuela lan hau erantzuten du, eta humanitate horrek etorkizunarekiko duen ardura ere jarri nahi zuela agerian, gaur egungo bizimoduak planeta bera arriskuan jartzen duenean.

Ikusgarria da lana, hitzaren zentzurik onenean. Zirrara eragiten du. 40.000 buztinezko gizakiño, gela berean, bata bestearen ondoan, zuri begira. Ez dira batere modu naturalistan eginak, baina batzuetan bizirik daudela iruditzen zaio



bati. Geldirik daudela zu han zaudelako, baina gauez, museoa itxitakoan, paseoan ibiliko direla museoan barrena, batera eta bestera, denbora baterako bizileku izango dutena aztertzen. Hainbeste dira, eta hain daude geldirik eta mutu, begira-begira geratzen bazara, azkenerako egonezina sartzen zaizu, eta beldurra.

Beldurra gainera uxatzeko, eta bisita gidatua hantxe bukatzen zelako ere bai, umore printza bat atera nahi izan nuen, eta ahal bezain inozo, ahal bezain xalo, gozo-gozo galdetu nion gidariari: eraman dezaket bat etxera? Ez, erantzun zidan, serio eta beltz. Ez nuen, antza, nahikoa nabarmendu ironia tonua.

Bisita gidatua bukatuta, Field lanari beste begirada bat ematera itzuli nintzen. Denbora luzez egon nintzen gizakiño aldra hari so. Zerk egiten zuen buztin puska haiek gizakiaren irudikapena izatea, guk halakotzat hartzea? Ez zuten hankarik, ez zuten besorik, soina eta burua besterik ez ziren. Artistaren arau sinpleekin gogoratu nintzen: bi zulo egin begien parean. Ikusteko ahalmenak bihurtzen ditu gizaki, inguruaren kontzientzia hartzeak. Eta 40.000 gizakiño guri begira daudela ikusteak, beldurra emateaz gain, geu bihurtzen gaitu objektu. Geu gara begiratuak eta aztertuak, geuri begiratzen digu lurrak, 40.000 gizakiñoaren bitartez.

Hala ere, zer pentsa ematen du, gizakiaren irudikapen honetan, ikusteko ahalmena bai, baina hitz egitekorik ez daukatela ohartzeak. Eta bat-batean, lanaren bi aldeetan gaude la konturatzen zara. Eta ahotsik gabeko giza masa bat garella etortzen zaizu, nahi gabe ere.

Hartu daiteke gure demokrazien metaforatzat ere: ahotsik gabeko giza masa bat, gora begira: zeruaren beldur, gripearren beldur, lapurren beldur, beldurraren beldur. Beti gora begira: sateliteen menpe, estaldura bila (uler bedi nahi den gisan), telebistaren mandoa aginte makila bakar.

Norbanakoa ezdeus eta kolektiboak indarge dauden garaio-tan, arteak gero eta gehiago bilatzen du, ze erremedio, bere esparru autonomotik irten eta gutako bakoitzaren izaera po-

litikoa aktibatzea. Eta ahotsik gabeko gizakiak irudikatu dituen artista berberak, Antony Gormleyk, jendearen parte hartzea bultzatu nahi izan du udara honetan, zeresan ugari eman duen ekintza batekin.

Baina horri buruzko irakurketa, hurrengoan ekarriko dizuet.

Bitartean, ez izan beldur.¶

## Bi ohar

Hasteko, aurreko alean komentatu nituen bi gairi lotuko natzaio.

Garoiako zentralaren kasuan nire kezka errealitate bihurtu dira. Espainiako Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak zentrala irekita jarraitzearen alde egitea espero izatekoa zen. Zapateroren nortasuna eta jarduera politikoa ezagututa Madrildo gobernuak hartu duen erabaki salomonikoa ez da harritzekoa izan. Erabakiaren inguruan sortutako kalapita horretatik gauza batekin gelditzen naiz, Garoia inguruko emakume bati telebistan entzundakoa (jarduera ekonomiko alternatiboak bilatzeko Zapaterok hartutako konpromisoaz ziharduen): «Orain dela hamar urte bazekiten zentrala itxi egin behar zela, zeren zain egon dira orain arte?». Inprobisazioaren politikaren kritika gordina.

Txerrien gripea, gripe berria edo A gripea deritzon hori ere hizpide izan nuen. Udan zehar berri nagusietako bat izan ditugu ustezko pandemia horren ondorioak eta borrokatzeko hartu beharreko neurriak. Kanpotik begiratuta behintzat eta ikusle neutral baten papera hartu nahian, ondorio batera iritsi naiz: auzia neurri egokitik atera dela eta egiazko pandemia-arriskua esaten zaigunetik urrun dagoela. Iruditzen zait interes ekonomikoak egon badaudela, gaiak komunikabideetan tokia izan dezan, arrisku-sentsazioa zabal dadin eta bultzatza dadin gizarateak eska ditzala neurriak hartzea. Konpainia farmazeutiko batzuei histeria-egoerak komeni zaizkie beren botikak saltzeko giro egokia sor dadin. Gogoan dut oraindik hegaztien gripearen aitzakian mendebaldeko gobernuak erositako milioika dosi tamiflu (IUPACen nomenklatura sistematikoaren araberrako izena: etil (3R,4R,5S)-5-amino-4-aze-

tamido-3-(pentan-3-iloxi)ziklohex-1-ene-1-karboxilato), gerora biltegietan gelditu direnak. Erdipurdiko politikariei ere ez zaie gaizki etortzen auziaren ikusgarritasuna krisi ekonomikoa bezain gai inportanteei toki pixka bat kentzeko eta, bidenabar, zerbait egiten ari direla plantak egiteko neurri xelebre eta zentzugabeak hartzeko; adibidez, Nafarroako Gobernuak agindu duen eskolaratze mailakatua. Eusko Jaurlaritzak iragarri izana herritarren tramiteen bidea ez dela eten-go ziurtatzeko neurriak hartu dituela, zentzugabekeria lotsagarri horien kategorian sartzen da ere.

Otsoaren etorrera iragartzen duen alegia gogorazten dit goerak. Pandemia gogor benetakoa datorrenean inork ez sinistea elikatzen ari dira.

## Hiri bi

Espalazio bidezko neutroi-iturria eta Bilboko hautagaitza hizpide izan ditut bi biderrez atzen urteotan *Jakinen* orrialdeetan. Irakurleak gogoan izango du instalazio zientifiko itzel hori Euskal Herrira ekartzearen alde ez nengoela. Arrazoiak eman nituen bere garaian. Ekainaren hasieran azpiegitura europar hori Suediako Lund hirira joanen dela jakin genuen eta Bilbon azpiegoitza modukoa izango duela. Artean, inork ez du aditzera eman azpiegoitza delako hori zer izango ote den. Ohiko kalapita sortu zen egitasmoa sustengatzen zuten politikarien artean Bilboko hautagaitza babesteko egindako lanaren inguruan, baina horrek ez dit asko inporta. Iritzi guztien artean batekin geldituko naiz, hain justu, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailaren Ikerketa Zuzendari izandako Unai Ugalderi Euskadi Irratian entzun niona. Berak zioenez, ulertzekoa da guztiz Lund aukeratu izana kontuan hartzen badugu Suediak barne produktu gordinaren %3,7tik gora inbertitzen duela I+G ekimenetan eta EAEn 1,8ren bueltan gabiltzala. Inork Lundgo hautagaitza gertutik ezagutu nahi balu, bere webgune ofizialera jo leza ke (<http://ess-scandinavia.eu>).

Euskal Zientzia eta Teknologia sistemari erabakiak mesede egin diola uste dut zintzoki. Jakina, zentroa eraikitzeak erai-kuntza-enpresei, osagai- eta ekipo-hornitzaileei eta ingeniaritzei ekarriko lizkiekeen onura ekonomikoak baino apalagoak ekarriko dizkie balizko azpiegoitza horrek (eta Ogasunari bidenabar); baina epe luzera onuragarria izango zaio gure zientzia- eta teknologia-sistemari, oinarri sendotan eta urratsez urrats hazteko modua izango duelako, eta horrek gure ekonomia jasangarriago eta sendoago egingo ditu.

## Bi hondakin

*Scientific American* aldizkarian harritu nauen datu batekin egin dut topo. AEBetako abioietan biltzen den hondakin-kopurua Miamiren tamainako (360.000 biztanle) hiri batek produzitzen duenaren parekoa da; besteak beste, 4.250 tona aluminio eta 72.250 tona paper. Itxura batean AEBetako aire-konpainiek ez dituzte bereizten abioietako zaborrak, eta dena batera, berdin jan-hondar, paper edo plastiko, aireportuetako zabor-biltegiatara joaten da. Aireportu gehienetan ere ez dago zaborra bereizteko kulturarik. Sobra ere, konpainia batzuek abioian bertan gaika biltzen dituzte zaborrak, baina lurreratzen direnean dena toki berean bota behar dute. Europan ez dakit zein den praktika eta antzekorik gertatzen ote den.

Gaikako zabor bilketaren alorrean atzen 10-15 urteotan egin den aurrerapauso itzela kontuan hartuta, sinesgaitza da abioia bezain toki kontrolatu eta kudeatzeko errazean duela 15 urte legez segitzea. Zein da gertaera horren arrazoia? Ezin dakioker gainera AEBetako nortasun berezi bati leporatu, gaikako bilketaren tasa %31tik gora baitago bertan. Litekeena da aire-garraioaren baitako beste bitxikerietako bat izatea, oraindik eserleku-ilaren arteko tartea duela 30 urteko pertsonen tamainaren arabera ezartzea legez. Txantxak aparte, iruditzen zait gizakiok trabatzeko eta katramilatzekeo dugun berezko joera baten ondorio dela. Bestelako beste

zenbat kasutan jazotzen da, gehientzat bistakoa eta beharrezkoa den zerbait ez dagoela bideratzerik?

Zaborraren alorretik mugitu gabe, ez al da horietako kasu bat supermerkatuetako kutxetan erosketak biltzeko ematen dizkiguten plastikozko zorroena? Guztiok jakitun gara praktika hori desereduzkoa dela, lehengai bat alferrik xahutzen ari garela eta gainera zabor-kantitate itzela sortzen ari garela. Hitz eta pitz ibili gara horri buruz, baina neurririk ez. Udazken honetatik aurrera Hego Euskal Herrian gauzak aldatzen hasiko direla ematen du. Supermerkatu-kate handietako batzuek plastikozko zorroak banatzeari utziko diote eta beste batzuk kobratzen hasiko omen dira. Neurria erraza eta eragin handikoa, baina orain arte inor ez da ausartu gu bultzatzen gure amen eta amonen ohitura berreskuratze-  
ra, hots, zorroa, poltsa edo dena delakoa etxetik eramatea eta beti bera, ez egunero berria. Bazen garaia!

Ba, enfin! Giza kondizioa nonbait!

## Amets bi

1990eko hamarkadan gizartearen begirada erakarri eta ametsetan jartzeko indarra izan zuen gene-terapiak. Gaixotasun genetikokoak sendatzeko bidea emango zuela uste izan zen eta, gainera, nahikoa azkar lortuko zela iradokitzen zuten prentsan eta komunikabideetan zebiltzan berriek. Gene-terapia bidezko saio klinikoek urrezko aroa bizi izan zuten. Hamarkada honetan eta bereziki bigarren zati honetan, ordea, zelula amek hartu dute gizartearen iruditerian eta ametsetan geneek izan zuten lekua. Gene-terapiak eten mingarri bat izan zuen 1999ko irailaren 17an, amets asko apurtu zituen eta ez du egun duela hamar urteko xarma eta oihartzuna.

Egun hartan, 1990eko irailaren 14an hasitako gene-terapia bidezko saio klinikoek lehen biktima eragin zuten. Jesse Gelsinger 18 urteko gazte arizonarra hil egin zen gene-terapiako saio kliniko baten erdian gorputzeko organoek huts egin ziotelako. Itxura batean, saio kliniko hartan ez zen pro-

tokolo egokirik jarraitu, besteak beste, Jessek ez zituelako betetzen saioak eskatzen zituen osasun-egoera baldintza egoziak (ikus [http://en.wikipedia.org/wiki/Jesse\\_Gelsinger](http://en.wikipedia.org/wiki/Jesse_Gelsinger)). Gaienetik, saioa zuzendu zuen ikerlariak interes ekonomiko zuzenak zituen terapiaren garapenean, horren ustiaketa ekonomikoa egiteko enpresa bat baitzuen sortuta. AEBetako administrazioak *Penn's Institute for Human Gene Therapy* delakoa, non saioa egin baitzen, itxi egin zuen eta saioaren zuzendari James W. Wilson doktoreari gene-terapiatzko saio klinikoak egitea debekatu zion.

Gene-terapiaren alorreko ikerketak ez zituen gertakari latz hark eten, baina publikotik ezkutatzear aparte, garai zailtara eraman zuen, bereziki finantziazioa ez delako aurreko hamarkadan bezain erraz eta ugari bideratzen. Gora-go esan dudak bezala, ama zelulen inguruko ikerketak hartu du gene-terapiak galdutako xarma. Ez da asterik pasatzen komunikabideetan alor horretako berririk ikusi gabe.

Lezio asko erakar daitezke gertaera horietatik, baina behinena italiar atsotitz ezagun horrek ematen diguna: *Chi va piano, va lontano* (beste modu batean emana ere aurkitu izan dut atsotitz hau eta kasu honetan soberan ez litzateke izanen, apika: *chi va piano, va sano e va lontano*; eranskin bat ere izaten du, gurean ez aplikatzekoa: *e spende poco*; gutxi gastatuta ez ginateke oso *lontano* joanen). Bai gene-terapiak baita ama zelulek ere gizakion osasun-egoera hobetzeko eta gaixotasun asko borrokatzeko bide eraginkorrak izango direla ez dut dudarik. Alta bada, denbora beharko da bi teknika horiek aplikazio zabal eta unibertsala izateko. Lasterbiderik ez dago. Ikerketa, saio eta huts asko egingo dira eta teknika bi horien eraikina adreiluak bata bestearen gainean egoki paratuta osatuko da, oinarriak sendo izanik.

## Datu bat

2007an zazpi lagun lizentziatu ziren zientzia zehatzetan EHUn.¶



## Erlatibismo linguistikoa: hizkuntza eta kosmobisioa

Europako nazioen eraikuntzaren prozesu historikoan bada soziolinguistikaren oinarrizko kontzeptu bat oso garrantzitsua izan dena eta Euskal Herriaren testuinguruan asko erabili dena: erlatibismo linguistikoa. Europako mentalitateetan oso sartuta dago eta egon da, eta Euskal Herrian indar handia dauka, bereziki euskaldunen artean. Orain dela 70 urte, 1939ko irailean hasi zen II. Mundu Gerra, eta urte bat lehenago egin zen *Anschluss*-aren berme ideologikoa pangermanismoa zela gogoratzea ez da txarra. Pangermanismo hark oinarri arrazistaz gain oinarri linguistikoak ere bazituela ezaguna da, bere definizioaren muinean hizkuntza baitago.

Erlatibismo linguistikoaren jatorria urrundik dator, eta berez Sapir (1884-1939) eta Whorf (1897-1941) maisuekin lotzen bada ere, kontzeptuaren oinarriak lehendik datoz: Herder, Humboldt eta Sapirren irakasle izandako Boas-engandik gutxienez. Kontzeptua ezaguna da: lotura bat egongo litzateke hizkuntzaren eta pentsatzeko moduaren artean, eta beraz hizkuntza eta kulturaren artean. Alegia, hizkuntza bat mintzatzeak pentsatzeko era bat ekarriko luke, hizkuntza bakoitzak kosmobisio bat eta berezkoa izango litzaiokeen kultura bat ere suposatuko luke. Erlatibismo linguistikoaren arabera, hizkuntzak determinatuko luke hizkuntza-komunitate baten kosmobisioa eta kultura. Hori da behintzat Sapir-Whorf aipatzen direnean edozeini bururatzen zaiona. Kontzeptua famatua da, baina zabaldua dagoen iritzi hori nahiko sinplifikatzailea da, eta erlatibismo linguistikoaren teoriak oso bizi agertzen badira ere mentalitateetan, ikusiko dugu zein izan den haien ibilbidea testuinguru zientifikoetan.



Erlatibismo linguistikoaren ikuspegitik, Descartesez idatzitako *Cogito ergo sum* famatuari hizkuntza gehituko litzaioke; horrela, *pentsatzen dut, beraz izan banaiz* bihurtzen da *hizkuntza batez pentsatzen dut, beraz izan banaiz, nire ezaugarri propioekin*, ezaugarri horiek oinarriz hizkuntzarekin lotuta daudela. Nire berezitasuna hizkuntza da, eta hizkuntza horrek gainera talde batekin lotzen nau, nire hizkuntza-komunitatearekin, hortik pangermanismoaren indarra.

Jolas intelektuala egiteko, besterik gabe, galde diezaiokegu gure buruari ea hizkuntza guztietan izango nukeen pentsatzera bultzatzen nauen bizi-larritasun hura, eta beraz izatera bultzatzen nauena... Izan ere, Descartesen definizioan munduaren aurrean dugun bizi-larritasunak pentsatzera bultzatzen gaitu, eta pentsatze horretan datza bizi izatearen muina. Baina hizkuntza guztien kosmobisioa ezberdina bada, galdera bat sortzen zaigu: Descartesen hizkuntzari lotutako kosmobisioak bultzatzen du filosofoa pentsatzera... *Ergo*, beharbada, hizkuntza guztietan eta kosmobisio guztietan ez dago pentsatzera bultzatzen duen bizi-larritasunik... *Ergo* hizkuntza guztietan beharbada ez dago egoterik... *Ergo* hitun batzuk agian ez dira existitzen... Sortu dugun nahasmendu horretatik atera nahian, soziolinguisten laguntzaz baliatuko gara Sapir eta Whorfen teorien mugak ikusteko.

## Definizioa

Sapir-Whorfen teorien osagai famatuena ezagunak dira beraz: hizkuntza erlatibismoa eta hizkuntza determinismoa. Hizkuntza bakoitzak bere jenio propioa du eta hizkuntzak berak determinatzen du hitun baten pentsatzeko era. Baina berez Sapir eta Whorfen teoriak ez dira hain sinplistik. Hasierako kontzeptualizazioa Sapirrek egin zuen, eta haren jarraitzaile Whorf izan zen Sapirren teoriak orokortu eta erradikalizatu zituen.

Whorfen teorizazioaren arabera, hizkuntzek kategoria sistema bat osatzen dute, partikularra eta berezitua dena. Ka-

tegoria horien artean kategoria gramatikalak edo hizkuntzen estruktura semantikoa daude, esate baterako. Sistema horiek, hizkuntzari berezkoak zaizkionak, baldintza ditza-kete hiztunaren ikuspuntu kontzeptuala eta bere interpreta-zio estetikoak.

Adibide famatuena eskimalen elurra izendatzeko modua da. Guk hitz bakarria erabiltzen dugunean, beraiek elurraren ezaugarrien arabera 10 izen baino gehiago dituzte elurra izendatzeko. Amazoniako indigenei berdina gertatzen zaie berde kolorearekin, hitz bat baino gehiago dute berde ezberdinak izendatzeko, guk hitz bakarria dugunean. Gertatzen zaie idatzi dut... edo gertatzen zaigu, pobretasuna bi kasu horietan guk baitugu: errealitatearen konplexutasuna kategorizatze modurik ez dugu guk, beraiek badutenean. Orain, galdera da: beraiek izendatzen duten errealitate hori existitzen al da guretzat, nahiz eta izendatu ez? Alegia, nahiz eta pertsona horiek ikusten eta ezberdintzen dituzten elur eta berde mota horiek izendatzen ez ditugun, fisikoki existitzen al dira guretzako (ikusten al ditugu)? Eta existitzen ez badira, ez dira existitzen izendatzen ez ditugulako? Edo kulturalki eta gure gizarte eta ingurugiroan existitzen ez direlako ez ditugu ezberdintzen?

Ikerketa batzuen arabera, errealitate fisikoaren aurrean hizkuntzak ez du eragin handiegirik. Horrela, Ipar Amerikako indigena batzuekin egindako proba batek erakusten duenez, hori eta laranja kolorea izendatzeko hitz bakarria badute ere, bi koloreak ikusten dituzte. Hau da, errealitatearen ezaugarriak ezberdintzeko ez dute arazorik: horia eta laranja ondo ezberdintzen dituzte; baina kolore horiek oroimenean gordezko guk baino arazo gehiago dituzte.

Whorfen hipotesi hertsienaren arabera, hiztun elebakar baten hizkuntzak erabat baldintzatzen du bere kosmobisioa eta munduan duen ekiteko joera. Izan ere, horren arabera, munduko hizkuntzen estrukturak oso ezberdinak dira eta estruktura horiek baldintzatzen dituzte hiztunen funtzio kognitiboak. Ikuspuntu hori zalantzan jarri da bi modutan.

Alde batetik, zientzia kognitibisten ikertzaileen kritika jasozuen 1960tik aurrera, Chomsky eta bere jarraitzaileek frogatu baitzuten munduko hizkuntzek uste zena baino e-  
struktura unibertsal gehiago konpartitzen zituztela.

Bestetik, hizkuntzak, gizarte baten kultura balioak eta orientazioak baldintzatu baino gehiago, horien isla direla frogatu zuten Fishmanek eta beste autore anitzek. Beraz, ikuspuntu horren arabera, hizkuntza, kultura eta kosmobisioaren arteko harremana ez da unilaterala, unibokoa eta norabide bakarrekoa: hizkuntzak bakarrik ez ditu baldintzatzen edo suposatzen hizkuntza-taldeko hiztunen kosmobisioa eta kultura, baizik eta bata besteari elkar eragiten diote. Hizkuntzak eragina baldin badu kosmobisioan, kosmobisioak berak hizkuntzan eragina dauka.

Whorfen hipotesia, bere modu hertsienean ulertuta behintzat, desakreditatu egin dela dirudi, baina Sapirren idatziak apur bat begiratzen badira ikusiko dugu autore horren pentsamendua ez zela hain muturrekoa. Izan ere, berak adierazten du hizkuntzak maila kontzeptuala baino behe-  
ragoko gauzak izendatzeko eta adierazteko sortuak izan zirela. Modu horretan, hizkuntza eta pentsamendua ezberdintzen ditu Sapirrek, eta argi dago pentsamendu eta hizkuntzaren arteko harremana ez dela uniboko eta hertsia. Alegia, hitz baten esanahia ahaztu ahal zaigu, edo buruan dugun kontzeptu bat izendatzeko hitza ez ezagutzea posible da.

Hizkuntza erlatibismoari buruzko eztabaida honetan ikusi dugu zein erlatiboa den hizkuntza erlatibismoa. *La pelota vasca* filmean gogoratzen dut nola ezker abertzaleko buruzagi batek esaten zuen ez zuela nahi Euskal Herri bat non euskara erabiliko litzatekeen McDonald'sen eskatzeko. Euskararen defentsa egiten zuen baina iparramerikarra ez den kultura baten defentsa ere bai, biak ezberdinduz eta beraz erlatibismo linguistikoaren mugetako bat agerian utziz.

Eztabaida honetatik zer atera... Hasteko, gauzak ez direla sinpleak eta sakondu behar direla, bai Sapir eta Whorfen teoriak hobeto ezagutuz eta bereziki Euskal Herrian oso zabal-

duta dagoen hipotesi horren modu hertsia bazterrean utziz. Gainera, hizkuntza eta hitza ezberdindu behar dira.

## Hiztuna eta kosmobisioa

Izan ere, ezberdindu behar dira hizkuntza bera eta norberak hizkuntza bat erabiltzeko duen gaitasuna eta aberastasuna. Wittgensteinen adiera, «Les limites de ma langue sont les limites de mon monde», edo Bakhtinen «Ce n'est pas tant l'expression qui s'adapte à notre monde intérieur que notre monde intérieur qui s'adapte aux possibilités de notre expression, à ses voies et orientations possibles», oso interesgarriak dira eta kontuan hartzekoak, baina horien tesuinguruak ezagutu behar dira eta beste eztabaida bat suposatzen dute. Determinismo linguistikoa hizkuntzatik hiztunak hizkuntza erabiltzeko duen gaitasunera igarotzen da. Hiztegi pobrea duenak kontzeptualizatzeko arazoak izan ditzake ikuspuntu horren arabera, baina modu berean bere kontzeptualizatzeko gaitasuna landu ez duenak *adierazle (signifiants)* batzuen existentzia ere ezingo du onartu.

Beti bezala konplexutasunarekin topatzen gara; argi dago erlatibismo linguistikoaren auzia epaitzea eta hizkuntza eta kosmobisioaren arteko harremana zein den zehaztea zaila dela. Erantzunik ematea ez da erraza, dena erlatiboa da eta normalean eraginak unibokoak ez dira baizik eta osagaiek elkar eragiten diote bata besteari: hizkuntzak eragina du kulturari eta kulturak hizkuntzan; modu berean, hiztunaren aberastasun linguistikoa ondorioa du bere kosmobisioaren zabalera, eta, alderantziz, kontzeptualizatzeko gaitasunak aberastasun linguistikoa baldintzatzen du.

Masak manipulatu nahi dituzten pertsonak eta entitateek auzi hau ondo ezagutzen dutela argi dago, nahiz eta beharbada ezagutza hori inkontzientea izan. Orwellek 1949an publikatu zuen 1984 liburuan, gobernuak sortutako hizkuntza berria (*newspeak*) deskribatzen du. Hizkuntza berri horren jendearen pentsatzeko era moldatu nahi dute gobernu-

tik, eta baita lortu ere. Noski, jendearen kosmobisioa lotzeko, hizkuntza ez ezik beste tresna batzuk sortzen dituzte.

Fikzioa dirudi, baina hitz berriak sortzen direnean argi dago kosmobisioak aldatzen direla, bereziki markatuak diren hitz batzuk ordezkatzeko, konnotazio batzuk dituztenak, beste hitz batzuk sortzen badira. Hitz berri horiek, gainera, beste konnotazio bat duten hitz batzuekin osatzen baditugu, manipulazioaren helburuak erdietsiko dira segurtasun osoz. Hori da Orwellek egiten duena: *newspeak* horretan «txarra» «ezona» bihurtzen da, dena baikorra bihurtzen da, kosmobisioa aldatzen da. 1984ko munduan bizi diren pertsonen kosmobisioan kritikarako lekurik ez dago, ez dago ezer txarra, hitza bera ere ez da existitzen. Gauza bera gertatzen zaigu gure «tabu»ekin. Kultura batzuetan, baita gurean ere, hitz batzuk esatea, edo izen batzuk aipatzea, tabu bat da, ezin dira esan, horrela tabua dena neurri batean desagerrarazi nahi da, existituko ez balitz bezala.

Ezaguna da «de propaganda» izendatzen ziren ministerio batzuk «de la información» bihurtu zirela, «propaganda» hitzak XX. mendean erdietsi zituen konnotazio txarreatatik. Manipulazio ezkor horiek txarrak direla esateko ados egongo ginateke, baina kirolari baten prestatzaile mentalak bere helburua lortuko duela azaltzen dionean bere kirolariari, hitz baikorrak bakarrik erabiltzea, txarra al da? Manipulazioa beti al da txarra? Hobeto bizitzeko bada ere?... Orwellen kasuan, gobernuak manipulatu du irauteko eta jendea ondo bizi delako sentsazioa eduki dezan; gauza bera gertatzen da sekta anitzetan.

Baina «plangintza» horri *manipulazioa* ez baizik eta *management* deitzen badiogu: hizkuntza manipulazioa ez baizik eta hizkuntza *management...*, orduan aditu bat ordainduko dugu gure enpresa hobeto kudeatzeko, hizkuntza *manager* horren aholkuak jarraituz...

Bestearen kosmobisioa hizkuntzaren bitartez (edo beste modu batez) aldatu nahi izatea beti da arriskutsua, bestearen hobe beharrez egiten bada ere. Bestearentzat egokia zer

den jakitea suposatzen baitu horrek. Hizkuntza manipulatzea arriskutsua da, beraz, baina hizkuntzaren aldaketa eguneroko gauza da, baita hitzen markak edo konnotazioak aldatzea ere. Argi dago ez dagoela geldirik egoterik, beti pentsatu behar da, hausnartu... nahiz eta beharbada bizitzaren helburua meditazioan geldirik egotea izan, Buda bezala...

## Hausnartu sariak

Baina, tira, guk hausnartzen jarraituko dugu momentuz, beste berraragiztate dezente beharko baititugu Buda bat izatera heltzeko.

Soziolinguistikaz hausnartzeko, iaz bezala, Soziolinguistika Klusterrak Hausnartu sariak antolatu ditu. Aukera ona da soziolinguista ez diren ikerlarientzako, beren ezagupenak soziolinguistikaren eta euskararen arloari aplikatzeko, bate-tik; eta soziolinguistak direnentzako, beren lanak zabaltzeko eta beste aditu batzuekin eztabaidatzeko, bestetik. Iaz bezala, proiektuaren helburua dagoeneko euskal soziolinguistikarekin harreman zuzena izan duten ikerlarien lana bultzatzea da, edota oraindik harremanik izan ez duten ikerlariak euskal soziolinguistikaren eremura biltzea. Proiektuaren helburua soziolinguistikaren inguruko ikerketen oinarri teoriakoak zabaltzea eta aberastea baita. Iaz Fermin Lazkanok irabazi zuen lehenengo saria eta saritutako lan guztien laburpena *Bat* aldizkariaren 2008ko laugarren zenbakian argitaratu zen, 69.ean hain zuzen ere. Lanak aurkezteko epea eta oinarri guztiak Soziolinguistika Klusterraren webgunean aurkituko ditu irakurleak ([www.soziolinguistika.org](http://www.soziolinguistika.org)).

## Euskara eta Eliza

Euskararen kasuan eta Euskal Herriaren garapen historiko-linguistikoaz hausnartzea, Elizari eta bereziki Eliza katolikoari buruzko hausnarketa bat egitea da. Edo gutxienez Elizari buruzko hausnarketa bat eskatzen du.

Elizaren jardungunea baita historikoki Euskal Herrian aberatsena, soziolinguistikaren ikuspuntutik. Izan ere, euskarren esparru formal bakarrenetarikoa izan da Elizaren jardungunea, eta gainera esparru horretan izan du euskarak idatzizko trataera bat. Orain dela gutxi arte, euskaldunek nolabaiteko alfabetizazio maila bat izan badute Elizari esker izan da, adibidez dotrinaren bitartez.

Artikulu honetan jorratu ditugun gaiak kontuan hartuta, Elizaren zentraltasuna begi bistakoa da. Kristautasuna kulturaren eta kosmobisioaren zentroan baitzegoen orain dela gutxi arte gizartearen zati handienarentzat, eta jarraitzen du egoten ehuneko handi batentzat. Gure kosmobisioaren zentroan erredentzioa badago, argi dago gure aukerak bizitzan eta ekiteko manerak horri egokituko dizkiogula. Askotan ahazten zaigu arloaren garrantzi bai linguistikoa eta baita psikologiko-historikoa; baina ezinbestekoa da, bereziki Euskal Herriaren kasuan, Elizaren hautu soziolinguistikoak aztertzea garai bateko gizartea ezagutzeko, batetik, eta gizarte honen ohitura soziolinguistikoak ezagutzeko, bestetik. ¶

## Zazpi etxe Afrikan

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak diru-laguntza bitxia jarri du martxan aurten. Lore-aniztasuna mantentzea omen du helburu —horrela Europatik ingurumena mantendu eta hobetzeko datozen laguntza aberatsen kutxatik diru gehiena har dezakeela—, eta funtsean zelaiak segatzeko diru mordoa bideratzen du. Egia esan, herrialde horretan penagarria da zelai eta landa askoren itxura ikustea, belar luze zahar sikuak gero eta espazio gehiago sastraka eta oteekin partekatuz. Esnetarako abeltzaintzaren hondamendiak —hori ere Europatik etorritako prozesua da— belardiak idorri ditu, erabilera ezaz. Hasieran, baserri askotan *ardi jardineruak* jarri zituzten, tropa txiki bat etxe inguruko zelaiak mantentzeko, baina eremu zabaletako landak galduz doaz etengabe. Orain Aldundiak *jardineru traktoredunak* kontratatu nahi ditu, diru-laguntza horren bidez, poetak «atzo goizean» Bizkaia maitean ikusi zuen buru orlegia horiztatu ez dadin.

Bizkaian, kasik Euskal Herri osoan bezala (Euskal Hiri osoan bezala, hobe esanda), lurra zoru bilakatu da, daukan balioa, edo jabeek edukitzea espero duten balioa, gainean zer edo zer ipintzeko, dela azpiegitura, dela ekipamendua, batez ere zirela etxebizitzak, aurreikusten den balioa da eta horren arabera gorde edo transmititzen da. Nekazaritza edota abeltzaintza erabileratarako ez da lurrik saltzen. Horretarako erosi nahian, jende gutxi dabil, egia esanda, baina daudenek ere esperantza gutxi daukate beharrezkoa duten lurra erosi ahal izateko. Dena zorua baita.

Horretan, etxean ez goaz munduko joera nagusiarekin. Gaur egungo krisia, hainbat ikerlek azpimarratu bezala, fi-



nantza krisia da, baina bada ere energia krisia eta elikadura krisia. Populazioan etengabe goraka doan planeta batean, elikagaien eskasia gero eta nabarmenagoa da eta horrek baliario altua ematen dio nekazaritzarako baliagarria den lurrari.

Kontuz gero, ez gara malthusiarrak eta ez dugu erredukzionismo merkerik egin nahi. Arazoa ez datza «jende asko - elikagai gutxi» ekuazio errazean, irtenbidea ez da beste iraultza berde bat, ez diogu nekazaritza ereduari produktibitate gehiago eskatu behar horrela elikagai gehiago edukitzeko. Arazoa elikaduran gustu kontsumista mendebaldarrak munduan zehar hedatzean datza. Gero eta okela gehiago jaten da, zabor-janariaren dieta tokian tokiko elikadura usadioen gaintik inposatzen da eta, beraz, gero eta hektarea gehiago behar dira produktu transgenikoak eta azienda macdonalizatuak ekoizteko. Horrela Amazoniaren deforestazioa edo Afrika bigarren arpilatzea.

Atxagak bere azken nobela, *Zazpi etxe Frantzian*, Kongo belgikarrean kokatzen du: XIX. mendean, Afrikako lehenengo ohoinkeriaren arorik gorenean —kolonizazio eufemismoaz ezaguna—, Belgikako errege Leopoldo II.ak hainbat amarruren bidez lurralde zabal hori orduko nazioarteko *statu quo*-an bere jabego pribatuko orubetzat azaltzea lortu zuen —hura ez zen izan Belgikaren kolonia, Leopoldoren *etxaldea* baizik—; eta bertan gertatu ziren kolonialismoaren astakeria gordinenak, bertako jendearen esklabizazioa, lan itogarrietara behartzea, sekulako bortxakeria eta gizalege ororen kontrako praktika ankerrak, literaturan lehenengo Joseph Conradek eta orain Atxagak berak islatuak. Lehenengoak gertatzen ari zen momentuan egin zuen bere ilunpeen bihotzerainoko bidaia; Atxagak, berriz, prozesu oso antzekoa Afrika osoan gertatzen hasten ari den momentuan, orain, alegia.

Izan ere, azken urteotan mendebaldeko multinazionalak eta baita estatuak ere Afrikako zientoka hektareen jabetza-titulua erosten ari dira, azken uneotan Txinako kapitalak ere lasterketa horretan aurrea hartzen ari direla. Afrikako esta-

tuak —askotan mendebaldeko politologia konbentzionalak porrot egindako estatutzat hartutako horiexek— lurra sal-tzen ari dira, praktikan eguneroko erabiltzaileen eskubideak ezertarako ere kontuan hartu barik. Kontinente osoan —ja-be txuri handiak eta gobernu beltz postkomunistak dauden estatuetan, hala nola Hegoafrikan edota Zimbawen, izan ezik— subsistentzia-nekazaritza praktikatzen da. Benetan lur horietan esportaziorako edo, are okerrago, bioerregaiak sortzeko laboreak jarriko balira, indarrez jarri gainera, horren ondorio sozialak ikaragarriak izango lirateke.

## Zazpi lotsa Iztietan

Ondorio ikaragarriak, ez soilik Afrikan, baita gure lurralde sastrakatsuetan ere. Afrikako makrohirietako miseria-auzoetan pilatutako jendetza handituko balitz, zalantzarik ez eduki: orain, antza, krisiaren kariatz mantsotzen ari diren migrazioak areagotuko lirateke, eta, gurean ez da giro.

Ikusi bestela Joxe Iriarte *Bikila* euskal aktibista zintzoaren lotsak; ez ditu berak zenbatzen, lotsaren lotsaz sentitu, ostera, bere herrian Errenteriako Iztietan auzoan izaniko jendearen mobilizazio xenofoboak, komunitate magrebtarraren kontrakoak:

Herri errebeldea, injustiziaren aurkako borrokalariz betea, eta, esate baterako, homofobiaren aurka egotea hain zaila zen garaietan puntan edo abangoardian izandako herria. [...] Errenteriako Iztietan auzoan ikusi eta entzun dudana gurean gerta zitekeela esan balidate urte batzuk lehenago, ezingo nuen sinetsi.

Lotsaren lotsaz mintzo zen *Bikila* euskaldunon egunkarian sanferminotan; tinko eta zuhur erantzun zion gero Joseba Leizeaga irudigileak, bien artean adiskideen arteko polemika osasuntsu eta positiboa osatuz, zinez eskergarria eta irakurtzeko gomendagarria. Bai, badirudi euskaldunok ez daukagula arazo handirik identitate postmodernoak onartzeko edota behintzat horren inguruko ezbaia bideratzeko

(eta horren inguruan Oarsoaldean bertan badaude salbuespen kezkarriak), baina identitate modernoetan, gurean ere hain garrantzitsuak diren identitate etnikoetan, e!, horixe broma gutxi! Babak beti bor-bor eta askotan lapikotik gainezka!

Gai horretan ezkerreko mugimendu guztiek —bai alderdi politiko tradizional eta postmarxistek, bai eta gizarte mugimenduetan aktibatzen diren pertsona eta sareek ere— sekulako arazoak dituzte onartzeko askotan agertzen diren bi nortasun ezberdin bezain simetriko: alde batetik, orain GKEek esaten duten moduan, *migrazio-proiektu* indibidualista eta kultura propio indartsu batekin etorritako etorkinak, zeinak normalean, miseriaren miseriaz eta bazterkeriaren bazterkeriaz, nahiko pertsona desatsegin edota ankerak diren; eta, bestalde, bertako ezkertiar borrokalari integratu eta aldi berean apokaliptikoak, zeinak, blaitzen gaituen beldur existentzialaz zamaturik, nahiko mesfidati edota zitalak diren. Edo garen?

## Zazpi legoatako bidaiak

Bai, ezkerrek baditu arazo larriak halako arazoak prozesatzeko. Agian ez dituelako aldagai batzuk merezi bezain beste baloratzen: mugikortasun motorizatua eta azeleratua, adibidez. Planetak sufritu duen «konpresio espazio-denborala» (David Harveyren kontzeptu ezin zehatzagoa erabiltzeko) kontuan hartu gabe ez dago migrazio modernoaren fenomeno ulertzerik. Eta ezkerrek askotan hartzen ditu kontuan prozesu horren ondorio batzuk bere agenda politikoan —hemen eta orain, AHTaren kontrako borrokan, adibidez—, baina askotan ikuspegi partzial batez begiraturaz: ingurumenarekiko kalteak direla, industriaren deslokalizazioa batzuetan... «Borroka sektoriala» deritzan bigarren mailako kontua, alegia. Eta gero, ezin ulertuak.

Askotan ez da onartu nahi gu ere zazpi legoatako botak jantzita gabiltzala, hemendik hara eta handik hona turismo

kulturala, gastronomikoa, mendizalea, musikala, kirolaria, sexuala edota iraultzailea praktikatzen. Edo denak batera.

Azkenean migrazio arazoan inguruan portaera desordena-  
natuak eta gatazkatsuak gailentzen dira, ekintza bortitzak  
eta prozedura delinkuentzialak agertzen dira etorkin mal-  
tzur eta bertako zitalen aldetik.

Gatazkaren maila indibidualizatu horretatik aurkaritza an-  
tolatzera pasatu, horixe Ramón Fernández Durán ekologista  
madrildarrak orain dela jadanik urte askotxo bere liburu  
profetikoa (*La explosión del desorden*) proposatzen zuen  
ezker berriarentzako lan fin eta nekeza. Askotan badirudi  
nahiko gutxi aurreratu dutela mugimendu eraldatzaileek bi-  
de horretan. Aipaturiko Harveyk edota Hollowayk identita-  
te etniko guztiek desagerrarazi behar dutela azpimarratuko  
digute. Ez omen dakite sabi izeneko landare xume batek  
(*Amaranthus*, izen zientifikoa, edo) lortu duena Monsanto  
transgenikoen multinazionalaren kontra: Estatu Batuetan  
hainbat labore transgeniko bertan behera utzi behar izan du-  
te sabiak erresistentziak garatu dituelako glisofato herbizida-  
ren kontra, bakarrik soja transgenikoak jasan ahal omen  
zuen pozoia, alegia.

Agian ezkerre fase horretan dago, ingurumen transgeniko  
berri batera egokitu behar eta, lehenengo eta behin, erresis-  
tentziak garatzea, aurkaritza antolatzea, helburu.¶